

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Berastegi



Aurkibidea

Udalerria: Berastegi

Sarrera



Tolosaldeko udalerria. Hizkeraz ere eskualdeko gainontzeko herriein parekotasun handia dauka, Nafarroako mugan egon arren. Eremuz herri handia den arren, auzoak herrigunetik oso hurbil ditu. Auzo nagusiak: Elizalde, Aitzunalde, Izotzalde, Eguzkialde, Urdinarrain eta Eldua. Azken hori auzo berezia da ez baitu lurrez muga egiten Berastegirekin, bien bitartean dagoen Elduain herriarekin baizik.

- **Biztanleak:** 1.061
- **Euskaldunak:** %88,77

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **31**
- Zintak: **41**
- Pasarteak: **456**
- Transkribatutakoak: **123**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **451**

Proiektuak

- Berastegiko ahotsak
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Antonio Alduntzin Zubeldia (1929)



Berastegiko plaza ondoan zegoen baserri batean jaio zen. Zazpi senidetan zaharrena zen eta baserriko lanetan ikasi zuen txikitatik. Aita igeltseroa zuen eta amak etxean egiten zuen lan. Eskolan gutxi ibili zen eta 13 urterekin Tolosara bidali zuten izeba baten etxera han laguntzera. Berastegitik Andoainera joan zen bizitzera gaztea zela, eta geroztik han bizi izan da.

Jesus Altuna Etxabe (1932)



Berastegiko plazako Joxene etxean jaioa. Ama bertakoa zuen eta aita Urrestillakoa. Lehen lau urteetan Madrilen egon ziren bizitzen, aitaren aparejadore lanarengatik. Uda herrian pasatzen zuten, eta gerrak Berastegin harrapatu zituen ama-emeak. Aitonaren etxean bizi izan ziren biak handik aurrera; autobus gidaria (eta postaria) zen hura. Bederatzi urte zituela, aita hil zitzaion Jesusi. Seme bakarra da. Berastegiko eskolan ibili zen zortzi urte bete arte, eta ondoren Tolosako eskolapioetan. Apaiz ikasketak egin zituen Gasteizen eta Donostian, eta gero Biologia ikasketak Madrilen eta Alemanian. Arkeologo ezaguna da, animalien hezurren azterketan aditua (arkeozoologia). Joxe Migel Barandiaranek aholkatuta hasi zuen bide hori. Elkarrekin ibili ziren indusketak egiten hainbat urtean, Lezetxikin eta Ekainen, besteak beste. Koro Mariezkurrena arkeologoarekin ezkondu zen, eta bi seme-alaba izan zituzten. Barandiaran, historiaurrea, euskara... gai askori buruz jardun du; aitonak kontatzen zizkion bi ipuin ere kontatu zizkigun.

Patxi Aranalde Lasa (1932)



Patxikutorre etxean jaio zen, baina ezkontzerako osabarena zen Intxaurren baserrira joan zen bizitzera. 9 senide ziren. Artzain ibilia da gaztetan. Familiatik jaso zuen hargintzako ofizioa. 16-17 urterekin hasi zen hargin lanetan. Hala ere, fabrika ere ibilia da lanean, lehenbizi Arrospi paper-fabrika eta gero Leitzan (Sarrion). Anson (Huesca) egon zen soldadutza garaian. 12 seme-alaba izan zituzten eta semeek ere hargintza lanbideari eutsi diote.

Katalina Azpiroz Alda (1910-2011)



Bengoetxe baserrian jaio zen 1910ean. Ama 5 urte zituenean hil zitzaion eta aita ere handik gutxira. Anaia zaharrena apaiz egin zen eta Usurbilera destinatu zuten. Katalina anaiarekin batera Usurbilen bizi izan zen urte askoan. Anaia hil zenean, Andoainen zuen pisura joan zen bizitzera eta hango elizan laguntzen ibiltzen zen. 95 urte ingururekin Berastegira itzuli zen bizitzera, iloba baten etxera. Elkarriketan tarteka bere iloba Juliana Goienetxeak ere hitz egiten du.

Florentzia Azpiroz Nazabal (1924-2017)



Aitzunalde auzoko Antsone baserrian jaio zen, baina lau urtetik 12ra bitartean kalean bizi izan zen osaba-izebekin. Gurasoak biak Berastegikoak zituen. Sei urte ingururekin hasi zen eskolan eta 12 urtera arte ibili zen plazako eskolan. Gerra hasi zenean Antsone baserrira itzuli zen. 22 urterekin Eguzkialde auzoko Osiñeta baserrira ezkondu zen eta bertan bizi izan da ordutik.

Joakin Azpiroz Nazabal (1918-2013)



Aitzunalde auzoko Antsone baserrian jaio zen 1918an. 8 anai-arreben artean hirugarrena da. Eskolan plazan ibili zen. Soldadutza Afrikan egin zuen eta handik larri etorri zen pleuresiak jota. Berastegiko alkate izan zen 1968-1979 bitartean. Joxe anaiarekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Joxe Azpiroz Nazabal (1915-2010)



Aitzunalde auzoko Antsone baserrian jaio zen 1915ean, baina osaba-izebekin hazi zen Goienetxe baserrian. 8 anai-arrebatan nagusiena zen bera. 7 urte zituela hasi zen eskolan plazan eta 12 urte ingurura arte ibili zen. Betidanik asko gustatu izan zaio irakurtzea. 80 urte ingururekin, etxekoek bultzatuta, bere bizipenak idatzi zituen eta Aita Zabalaen laguntzarekin argitaratu egin zen liburua: "Arbol zarraren kimuak". Geroago gerrako bizipenak ere kaleratu zituen beste liburu batean: "Gogoz kontrako pausoak"; eta, azkenik, nobela bat ere idatzi zuen: "Alkarrentzat jaioak".

Simona Azpiroz Nazabal (1926)



Aitzunalde auzoko Antsone baserrian jaio zen 1926an. Gurasoak biak Berastegikoak zituen. Zortzi senidetan azken-aurrena zen bera. Eskolan plazan ibili zen. Urdinarraiz auzoko Etxoinberri baserrira ezkondu zen. Bere senar Bixente Saizarrekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Dolores Egues Saizar (1928)



Elduaingo Iriarte baserrian jaio zen 1928an. Aita Zorregieta baserrikoa zuen eta ama Berastegiko Etxoin baserrikoa. Zazpi senide ziren. Berastegiko Eldua auzoko eskolan ibili zen, bertako maistra oso ona baitzen. Hamabost urterekin hasi zen Galparsoro paper lantegian lanean. Ondoren Eldua auzoko Etxezar baserrira ezkondu zen eta zazpi seme-alaba izan zituen.

Lucia Egues Saizar (1925)



Elduaingo Errekalde baserrian jaio zen 1925ean. Aita Zorregieta baserrikoa zuen eta ama Berastegiko Etxoingoa. 7 senide ziren. 4 urte ingururekin hasi zen Elduaingo eskolan, baina 6-7 urterekin Berastegiko Eldua auzora hasi zen eskolara, bertako maistra oso ona baitzen. 14 urtera arte ibili zen eskolan. Ezkondu ostean Berastegiko Eldua auzoan bizi izan da, paper-fabrikak bertako langileentzat egindako etxeetan (aitak paper-fabrikan lan egiten zuen). Hiru semeren ama da. Dolores ahizparekin batera egin zitzaion elkarrizketa.



Mari Karmen Etxabe Egia (1940)

Gurasoak Berastegikoak zituen eta autobus gidariak ziren. Matematikako eta hezkuntza fisikoko irakaslea.



Andres Etxeberria Iztueta (1942)

Amerialde auzoko Ameri baserrian jaio zen 1942an. 11 senide dira. Eskolara gutxi joan zen, baserrian lan egin behar izaten zuelako. 11 urte ingururekin eskola partikularrean ibili zen pare bat hilabetez. Gerora, Leitzako nekazari-eskolan prestatu ondoren, Valladolidera joan zen 25 urterekin "Dirección y gestión de la empresa agraria" izeneko ikasketak egitera. Mutikotatik izan du artzaintzarako zaletasuna, eta etxeko ardiak beti zaindu izan ditu; Valladolidetik itzuli zenean, ordea, bere kontura jarri zituen ardiak. Armuño baserria egin zuen Urdinarrain auzoan eta bertan bizi da ordutik. Arantzazuko artzain-eskolako ikasleak hartzen ditu etxean praktikak egiteko. Egurra lantzea ere gustuko du.



Jose Julian Garciaarena Arregi (1929)

Izotzalde auzoko Elgorreaga baserrian jaio zen 1929an. Ama bertakoa zuen eta aita auzo bereko Elaunde azpitik etorria. 10 anai-arreba ziren, nahiz eta bat umetan hil zitzairen. Zazpi urterekin hasi zen eskolan plazan eta 11-12 urtera arte ibili zen. Gero gau-eskolan ere ibili zen don Victor Labaienekin. Gaztetan kontrabandoan ibilia da. 27 urterekin Arrosi paper-fabrikan hasi zen lanean eta 17 urte egin zituen bertan. Fabrika itxi zenean Leitzako lantegira bidali zuten. Zazpi urteren ostean, Leitzatik Berrobiko lantegira bidali zuten, jendea behar zelako. Bertan egin zuen lan 59 urterekin erretiratu zen arte.

Esteban Garciarena Belaunzaran (1929-2011)



Azpilleta baserrian jaioa. Seme bakarra; gurasoak adinekoak ziren bera jaio zenean eta. Gurasoak biak Berastegikoak zituen. 11 urterekin kolegiara joan zen Oronozera eta bost urte egin zituen bertan. Gaztetan osaba-izeben dendan aritu zen lanean. 33 urterekin ezkondu zen. Berea izan zen laugarren kotxea herrian. Geroago kamioiarekin pentsu-banaketan egin izan zuen lan urte askoan. Oilo-granja ere izan zuen.

Evaristo Garciarena Uzkudun (1923-2013)



Malengone baserrian jaio zen 1923an. 13 anai-arreba izan ziren, nahiz eta bi umetan hil ziren. Beti baserrian bizi izandkoa; ardiak zaintzen denboraldiak ematen zituen mendian zuten etxolan. 1955ean ezkondu zen Maria Angeles Olaetxearekin. Biei batera egin zitzairen elkarriketa.

Domingo Gurrutxaga

Berastegiko Eldua auzokoa.

Maria Huizi Apezetxea (1933)



Goizuetan jaio zen 1933an. Berastegiko Intza baserriko Pedro Lecearekin ezkondu eta bertan bizi izan da ordutik. Aitarengandik ikasita bertso zahar ugari dakizki. Senarrarekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Xinfo Iparragirre Intxaurre (1932)



Izotzalde auzoko Bulatzi baserrian jaioa, bera da 8 senidetan zaharrena. Mutikotan solfeoa eta soinu handia ikasten ibili zen, lehenbizi herrian Jakakortajarenarekin eta geroago Tolosan, Tarragonarekin. Hainbat herritan ibilia da soinua jotzen. 24-25 urterekin Kalparsoron, Eldua auzoko paper-fabrika, hasi zen lanean. Han 3-4 urtez egin ostean atzera etxera etorri zen, baserriko lanetan aritzeko. Ezkondu ostean berriz sartu zen paper-fabrika, Arrosin. Hura itxi zenean Leitzara joan zen Sarrio lantegira, baina han 7 urte inguru egin zituenean Berrobiko lantegira bidali zuten, jendea behar baitzuten han.

Flora Iztueta Lizaso (1918-2010)




Berastegiko Eldu auzoko Argiñanea baserrian jaio zen. Gurasoak Amasakoak ziren, baina Berastegira ezkondu eta bertan izan zituzten euren 10 seme-alabak. Florak ez zuen izaten eskolara joaterik, anai-arrebetan zaharrena zenez, umeak zaintzen gelditu behar izaten zen etxean.

Maria Iztueta Lizaso (1928)



Maria Berastegiko Eldu auzoko Argiñanea baserrian jaio zen. Hamar senidetan seigarrena zen bera, eta auzoko batek neskametzarako lantokia bazeukala esan zionean, ez zuen zalantzarik izan. Bazituen hamabost urte, eta etxetik kanpo zerbait ezagutzeko gogoia ere bai, eta han joan zen Ordiziako kale nagusiko etxe batera neskame. Han hiru urte pasatu zituen, abuztuko Ama Birjinaren egunean jaiotetxera itzuliz, eta asteazkenetan azokara joaten zen aitaren berriak jasoz. Gustura bazegoen ere, etxea gertuago nahi zuela eta, hiru urte pasatu ondoren handik Tolosara joan zen okindegi batera lanera. Han beste lau urte egin zituen, eta handik Donostiako pentsio batera joan zen. Han zebilela lagun batek Londres hotelean lana izango zuela esan zion, eta hala joan zen bertara. Hogeita hiru urterekin hasi, eta hogeita hamazazpi urte bete arte egin zuen han lan. Ezkio-Itsasora ezkontzea erabaki zuen orduan. Seme bat izan eta gutxira hil zitzaion gizona istripuz, eta alargundu ondoren Elduara itzuli zen bizitzera.

Saturnino Iztueta Lizaso *Eldu* (1920-2013)



Berastegiko Eldu auzoko Argiñanea baserrian jaio zen. Gurasoak Amasakoak ziren, baina Berastegira ezkondu eta bertan izan zituzten euren hamar seme-alabak. Ume-umetan aitarekin ikasi zuen artzain lanbidea eta bizi osoan jardun du lanbide horretan. 27 urterekin Ernio aldera joaten hasi zen ardiekin eta 56 urte egin zituen bertara joaten. Zelatungo zelaietan edukitzen zituen ardiak eta bertako txabola baten egiten zuen lo. Neguan Berastegira itzultzen zen ardiekin. 600-700 ardi izatera iritsi zen.

Marcelina Lecea Iparragirre (1940)



Izotzalde auzoko Intza baserrian jaio zen 1940an. Baserritik bizi ziren eta Marcelinari sarri suertatu zitzaion artzaintza lanetan aritu beharra. Arrautzak eta babarrunak saltzen zituzten eta bezeroak etxera joaten zitzaizkien erostera. Eskolan Berastegin ibili zen. Umetatik izan zuen pilotarako zaletasuna eta baita jokalaria ona izan ere. Ezagun batek bere eskuz jokatzeko moduari erreparatu eta Madrilera pilotan jokatzera joateko aukera eskaini zion, eta baita joan ere. Baina oso une gogorrak igaro zituen etxetik kanpo eta atzera etxera bueltatu zen. Berrobiko paper lantegi batean aritu zen lanean eta ondoren Beasaina ezkondu zen.



Pedro Lecea Iparragirre (1929)

Izotzalde auzoko Intza baserrian jaio zen 1929an eta bertan bizi izan da beti. Maria Huizi (Goizueta, 1933) emaztearekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Lucio Lizartza Esnaola (1932)



Martintxone (edo "Gabinoene") baserrian jaioa. Aita, [Gabino](#), palankari ezaguna zen eta 1924ko Parisko olinpiar jokoetan parte hartu zuen disko jaurtiketan. Baina gazterik hil zitzaion aita, berak sei urte zituela, eta amak gogor lan egin behar izan zuen bost seme-alaba aurrera ateratzeko. Luciori ere mutikotatik baserririk baserri lanean ibiltzea tokatu zitzaion. Paper-lantegiek indarra hartu zuten garaian, Berrobiko Uranga lantegia eraikitzeko lanetan lan egin zuen eta gero paper-fabrikan bertan lan egin zuen (40 urtez). Berastegiko udalean zinegotzi izana da. Sei seme-alabaren aita da.

Mahai-ingurua Berastegin



Honako lekukoek parte hartu zuten 2009ko ekainean Berastegin egindako tertulian (ezkerretik eskuinera): Ramon Saizar Matxinea (1938-08-31), Juan Malkorra Urkizu (1937-07-10), Justa Saizar Etxeberria (1938-11-01), Agustina Saizar Matxinea (1928-07-14), Bixente Etxeberria Señorena (1930-06-09), Joxe Saizar Matxinea (1934-03-10). Herriko kontuak jasotzeaz gain, lexikoa (baserriko tresnak, zomorroak, txori-izenak...) ere jaso zen tertulia honetan.

Maria Angeles Olaetxea Saizar (1930)



Benixone etxean jaio zen 1930ean. 4 anai-arreba ziren. Aita oso gazterik hil zitzaien (41 urterekin) eta ama eta izebarekin hazi ziren. "Poxpolinetan" dantzari ibilia da. Malengone baserrira ezkondu zen 1955ean. Evaristo Garciarena senarrarekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Bixente Saizar Ugartemendia (1926-2011)



Berastegin jaioa 1926an. Aita Ameriketara joan eta aberastuta itzuli zenean 3-4 baserriren jabe egin zen, tartean gero Bixenteren eskuetan geratu zen Etxoinberri baserria. Bixentek 7 urte zituela hil zitzaien aita. Antsone baserriko Simona Azpirozekin ezkondu zen eta Etxoinberrin bizi izan dira beti. Elizako koruan abesten zuen eta koruko ahotsik onenetakoa zen berea, gainera.



Ines Ugartemendia Olaetxea (1938)

Manuel Yaben Agirre (1915)



1915ean jaio zen Berastegin. Aita bertakoa eta ama argentinarra zituen. Eskolan Berastegin ibili zen, 12 urte bete eta apaiz egiteko ikasketak egitera joan zen arte. Musika munduarekin lotura handia izan du beti eta Donostiako kontserbatorioan ikasi zuen organoa jotzen. 20 urte bete zituenean soinu handia ikasten hasi zen eta laster hartu zuen ospea, baita etxe azpian, Hernanin, akademia zabaldu ere. Txapelketa ugari irabazi zituen, horien artean Espainiako txapelketa Bartzelonan.

Gregorio Yeregi Aranalde (1940)



Yeregienea etxean jaio zen 1940an. 12 anai-arrebatan azken-aurrena da. 5 urte ingururekin hasi zen eskolan, lehenbizi maistrarekin eta gero don Jose maisuarekin. 6 urtetik 12ra arte meza-mutil ibili zen eta elizako koruan ere abesten zuen. Geroago, 19 urte ingururekin, antzerki taldean ere ibili zen. 14 urterekin hasi zen lanean Tolosan, errementari lanetan, ofizioa ikasiz, osabarekin eta anaia nagusiarekin. Han urte askoan aritu ostean, Berastegira etorri zen eta Patxi anaiarekin lan egin zuen errementari gisa.

Patxi Yeregi Aranalde (1928-2009)



Yerregienea etxean, bere aitak 1912an eraikitako etxean, jaio zen 1928an. 12 anai-arreba ziren. 7 urterekin hasi zen eskolan. 12 urte zituela aitarekin hasi zen lanean ferratzaile- eta errementari-lanetan eta gau-eskoletara joaten zen lanetik irtendakoan. Urte asko aitarekin batera egin ostean, ferratze-lanak gutxitu zirenean, Gregorio anaia eta biak ibili ziren errementari-lanetan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Familia osatzeko garaiak

- **Hizlaria(k):** Garciarena Belaunzaran, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-002/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:02:06. **Bukatu:** 00:04:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Gerra hasi zenean, 9-10 urte zituen. 11 urterekin hasi zen eskolan. Seme bakarra zenez, arreta handia ematen zioten. Bere emaztea nola ezagutu zuen azaltzen du. 33 urterekin ezkondu zen.

Transkripzioa

- Asike ni gerra hasi zenen nittun ee... zazpi urte. Ta geo, ez jaio nintzenen zazpi urte, geo gerra hasi zunen nittun ee... beatzi urte, beatzi-hamar urte, “tres años más, siete que tenia y tres”, zazpi ta hiru, hamar urte. Ta geo hamikatan, hamika urte nittunen kolejoan sartu nindduen. Ni seme bakarra nintzen ta...
- Orduan hasi ziñan lehenbizikoz eskolan?
- Bai, bai, hemen ibiltzen nintzen e? Baiño, nei seme bakarra nintzen ta jaiotza ezkerro ya niñera're ba nun, niñera nun, bai. Nere aitte Frantzín eondue zan ta oso berandu ezkondu zan “calculo yo que tendria los 47 años, el padre”
- Zu jaio ziñanean?
- Ni jaio nintzenen. Ta ama, berriz, izango zittun “los cuarenta y cuatro o cuarenta y cinco o así”, asike txiripatikan jaioa naiz ni, txiripatikan. Ta geo, klaro, ordun esnerik eta ez zan izaten, ta joaten nintzenian horko baserri batera eamaten nindduen, amona haundi bat zan hue ta geo haren alabakin ezkondu nintzen. Ta hara joaten nintzen esnea edatea, ta “en fin” geo haren alabakin ezkondu nintzen “al cabo del tiempo”, ni're oso goiz ez bainintzen ezkondu. “Y yo” ezkondu nintzen nittula, zenbat urte nittun nik ordun? Urte nittun ur... zea “mil novecientos”, jesukristok bezela, e mil...
- Hogeita hamahiru urtekin.
- Hogeita hamahiru urtekin.

1.2. Aurkezpena

- **Hizlaria(k)**: Yeregi Aranalde, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-004/001
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Diaz, Josu
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Noiz eta non jaio zen azaltzen du. 1912an eraiki zen bere etxea. 12 anai-arreba ziren, eta 12 urterekin hasi zen aitarekin lanean.

Transkripzioa

- Zu Patxi ze egunetan jaiotakoa zara?
- Ni “seis de junio del veintiocho. Mil novecientos veintiocho”
- Orduan Esteban baiño urte bat zaharragoa, ezta?
- Bai.
- Eta hemen Berastegin bertan jaio ziñan?
- Hementxe, etxe hontan, hemen jaio ta hemen bizittu naiz ni beti.
- Nola dauka izena etxeak?
- Yeregienea.
- A bai! Orduan familiako etxea da.
- Bai, aittonak egiña. Aittona zanak ein zun. Aittona beterinarioa gendun guk ta harek ein zun “el año doce”.
- A bai e?
- Bai, “docen” egindako etxea da hau, bai.
- Eta hamaika anai-arreba?
- Hamabi.

- Hamabi.
- Hamabi. Ni laugarrena senidetan naiz, ta ni hamabi urtekin hasi nintzen aittekin lanen, zeran, perratzen aitzen giñen behiek eta behorrak eta perratzen, ta hoi perratzeke hamabi urtekin. Hasi bittarten morroiak eukitzen zittun mutilek, zeatzeko, laguntzeko aittek. Ta ya hamabi urte aillegatu nintzenen, ordun hasi nintzen. Geoztikan erabat hemen aittu naiz jubilatatu arte guztin.

1.3. Eskolako garaiko jolasak

- **Hizlaria(k)**: Yeregi Aranalde, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-004/005
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:05:22. **Bukatu**: 00:06:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Diaz, Josu
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolako garaian zertan jolasten zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Akordatzen zara eskolan hemen plazan ibili ziñanean edo jolas orduan edo ze jolas egiten zenduten?
- Gu, guk, guk pelotan gutxi ibiltzen nintzen ni, bai. Ordun gordeketan ta holaxe; bestea tornike o ez dakit zer esaten giñun. Zea batzutan, ta holako zea batzutan. Baiño denbora gutxi izaten gendun guk e? Ez gendun.
- Hortxe eskolako denboran, ez?
- Eskolako denboran, bai ordun. Mutil koskorretan emakumek bezela kaniketan, kanike zea txiki batzuk izaten zien ta, kanikekin ta... Hola zeozer, hara ta honea, ahal dan bezela.
- Ta bestea, esan duzuna, tornike edo zelan izaten zan hori?
- Tornike, hoi torniken izaten zan, ba, kuadrillen zeatu ta bat gorde, gordeketan bezela, ta korrika bata besteakin zeon, ta hola, holako jolas klase bat zan.
- Ta kanikarik eta eukitzen zenduen?
- Bai, txikiten bai, mutil koskorretan izaten giñun.
- Erosita?
- Erosita. Erosita. Hor dendak bazien, ta dendatan ta eoten baizien, ta nolabaitte denbora pasatzeko, baakizu, hola zeatzeko.
- Eta bestela pelota, pelotan esan duzu gutxi. Ta futbola edo egiten zenuen orduan?
- Ez, futbolarik ez, ez, pelotan bai, pelotan ibiltzen zien. Nik ez nun hartako afizio handirik e, pilotarako ez nun. Ibili izandu nintzen behin eo beste hola pixka bat baiño asko ez. Ez nun pelotako ta afizioiken.

1.4. Senideen arteko harreman ona

- **Hizlaria(k)**: Azpiroz Nazabal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-006/015

- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:18:37. **Bukatu:** 00:20:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Ardirik ez zuten Goienetxan; bai, ordea, jaiotetxean. Senideek elkarrekin egiten zuten lan beti, eta ez dira inoiz haserretu elkarren artean.

Transkripzioa

- Eta ardirik? Ardirik edukitzen zenduen?
- Hemen ez, hemen ez, han bai. Han, han jezten ta dana aitzen nintzen anaiakin joan ta lardaxkan. Jai bazan, astea bazan, anaiak gu denak alkarrekin bizitzen giñen. Gehio esango dizut: hue han, Joakin, han, hirugarrena zan Joakin, han Joakin ta ni hemen. Ta geen denbora guztin lana alkarrekin in degu guk. Hangoa in ber bazan, han; hemengoa in ber baldin bazan, hamen.
- Hemen, beti elkarri lagunduta.
- Bai, alkarrei lagunduta. Ni ta andrea ta umek eta denak. Sekula ez deu hasarreik izandu. Behin o behin xitalkerin bat bai, "kakitzat" o holako zea batzuk bai, baiño gaiñeakuan behin'e ez. Han bezela hemen. Nik lehen'e han nintzenen bezelaxe sarrera dauket, oain pixko bat, Joakin ezkondu zan, ta andrea ta umek eta [...] ez zienak etorri zien eta. Hala're han lehen bezelaxe segittu nun. Geo oain Joakiñen semea ere ezkondu dau, ta hark'e haren semek'e ezkondu dade, ta oain'e neroni oaintxe nola-nahi jungo naiz sukaldea ta... Kuartota ez, lehenao bai kuartota ere, baiño oain kuartota ta ez. Hue honea igual-igual.

1.5. Bizimodu gogorra

- **Hizlaria(k):** Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-009/003
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:00:51. **Bukatu:** 00:02:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Bizimodu zaila izan zuen txikitan. Aita hil, eta ama gazte gelditu zen alargun 5 umerekin. Ama nola moldatu zen zorrak ordaintzeko. Non jaio zen azaltzen du.

Transkripzioa

- Ba txikitan oso, oso bizimodu txarra gutzat. Aitte hil zitzakun berrogeita beatzi urtekin, ama geratu zan bost semeekin, zaharrenak hamar urte ta bigarrena bi gutxi [...], binaka-binaka urte, txikinak hiru hillabete. Gero zaharrenak etxetiken noabaittea; etxe txikie gendun, hiru behi bakarrek, ama bakarrik joaten zan ganauentzako belarra ekartzea ta ahal zun tokira gaixoa. Dirurik ez, eostunekin hiru behi [...] baldin bazittun, bi belaze erosi zittuen aittek eta amak, ta aipatu gabe arten dena, ta mixeri baten mixeri baten bizitu giñan. Geo gerra etorri zan.
- Eta ze etxetan jaiotakoa zara?

- Ni Martintxonen.
- Martintxonen.
- Martintxonen, bai. Gabino esaten giñun, zeatikan aitta zanak Gabino Lizartza zan, Gabinoene edo Martintxone, total. Hala da, bai.

1.6. Umetan egindako lanak

- **Hizlaria(k):** Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-009/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:05:48. **Bukatu:** 00:06:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** 12 urterekin berak egiten zuen ogia baserri batean. Beste baserri batean, trukean alpargata pare bat ematen zioten. Behi asko zeuden han, eta bi morroi gehiago, eta gerora neskameak. Lan asko egin zuen han.

Transkripzioa

- Urtek ez zazkit goatzen, baiño beste etxe batera joan, ta ez dakit hamabi urte edo zenbat izango nittun nik, ogie nik itten nun hara joanda: etxen erre, han labea bazuen, ogie etxen neronek ogie egin, erre ta jateko ta... Holako komeria asko buff! Gero hemen beste baserri batera ya hoi pixko bat geroxeo, baiño gazteik, oso gazteik. Hor alpargata pare bat ematen baldin bazizuen noizbaiten hausten zirenen janzteko, besteik gabe, baiño etxe hortan beatzi behi zien e! Beatzi behi ta zezena ezta? Ta beste... Hor morroiak zien ordun, bi morroi euki zittuen bizkaitarrak... Alfonso ta Boni ziela uste det, ta ni haiekin baten eoundu nintzen, ta haik alde in zuen, geo ni bakarrik, ta neskame bat hartu zuen, ez dakit ordurako hor zan eo ta zenbat lan eitten gendun neska, oaindik bizi da neska, Serafina. Neska gaixo horrek eta biok hamaika lan egin gendun...

1.7. Txikitako gaiztakeriak

- **Hizlaria(k):** Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-009/021
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:28:56. **Bukatu:** 00:31:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Aisia » Oporrak
- **Laburpena:** Apaizei beldur gutxi zien. Inguruko baratzeetan sartzen zen udareak lapurtzera, lapurtze hutsagatik. Berastegin, kanpotik etortzen ziren turistei egindako gaiztakeria kontatzen du. Ez zen geldirik egoten zenetakoa.

Transkripzioa

- Ta gaiñera hori ez, apaizak eta gero ikusi ezkerro ta izango zan pixkat...
- Apaizai ta nik ez nien hainbeste beldurre. Hemen konfiantza, plaza ingurukoa giñen, ta hemengo baratza guztitaa, inguruko baratza guztitaa sartu nintzen ni udarek manejatzer, udarek harrapatzer. Mugan gaiñetiken sartu ta udarek lapurtu. Oain mahaien gaiñen eukitzen dittue denak, baiño ordun ez zan, udare batzuk lapurtuta ta haiek jan ta...
- Gosea pasau zenduen, ez?
- Gosea baiño zer esango dizut nik, bizioa!
- Falta, zerbait falta.
- Zerbait egin behar, hemen beraneante asko izaten zan ordun. Beraneante asko, hemen Fonda Arregin e habitazioak ziren, hemen [...] habitazioak ziren ta etxe partikularretan ta asko ta hola ta. Argirik ez zan hemen ia, farola txar bat-eo bakarren bat edo beste, baiño hemen jugadorek eta ´re etortzen ziren: Ontoria ta Mendiluze ta beste [...] Jugadorek ibiltzen ziren hemen, etortzen ziren. Donostitikan ere jende asko etortzen zan. Familia Amunarriz, berak barkue zuen gaiñea, haien barkun ibilli nintzen ni, haiek famili guzti hemen izaten zien. Ta ni izandu nun hontza harrapatu, hontza bat harrapatu hemen ganban ta afaltzen ari zirela haieri bota, jendei, haik karraxik ta hura eskandalo, holako...
- Zure gustatzen zitzaizun pixkat gaiztakeri batzuk ittea?
- Bai, oain zerbait ittea baldin bazan segitun neregana etortzen ziran: “Eh Luzio!”.
- “Zu izan zera”.
- Hemen [...] Zakue-eo burutik behera hartuta mutil koskorra korrika amonei-ta segitu igual, haik garraxika jarrita
- Bai, bildurtzen?
- Bai. Oain esaten [...] neskak eta esaten dia hor ni baiño zeozer gaizteago zirenak: “Zuen atarira etortzeko beti bildurrez eoten giñen”, esaten die askok. Bueno, baiño gaizki ez giñun inori egiten.
- Ez, ez, bromak. - Zure entretenimendua hoixe zan ezta?
- Aber, zerbait in berko zendun, zerbait in berko...

1.8. Beste gaiztakeria bat

- **Hizlaria(k):** Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-009/023
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:32:17. **Bukatu:** 00:33:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Beste mutil batekin zihoala, lurrean topatu zuten tresna astun bat zuhaitzean gora igo zuten.

Transkripzioa

- Han baserri egondut nintzenen, taberna hasi berri berria ta pixka bat, hoi fabrika hasi baiño lehenagoko kontuak esan dizut orain esango dizutenak ta han Meaka baserrie zan, han mutil bat zegoen morroi ta ni aldameneko baserrin, ni ere ezerrez, ez morroi ta ez neskame, ez, lana. Tabernetik etxea gindoazela biok alkarrekin arriada, oso traste txarra, lurra harrotzen ibiltzen dana katxarro zahar bat, ta ba al dakizu zer egin gendun harek eta

nik: intxaur arbolen gora igo hue, pentsatu ze ittekook gaittuen. Ze talentue, batez, batez, bueno, baiño...

- Gustora...

- Gustora, halaxe, bueno, komerik.

1.9. Aurkezpena

- **Hizlaria(k)**: Huizi Apezetxea, Maria ; Lecea Iparragirre, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-011/001
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Diaz, Josu
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Noiz eta non jaio ziren azaltzen dute. Pedrok txikitatik egin izan du lan baserrian, bestelako lan txikiren bat kenduta. Lehen ganadu asko edukitzen zuten.

Transkripzioa

- Bueno pixkat hasieran jasotzeko bakarrik: zuk, Pedro, esan duzu...

- Pedro bai, Pedro.

- Larogei urte...

- Larogei, abendun.

- Aurten, ezta? Abendun.

- Bai, aurten bai

- Abendun ze egunetan?

- "Ocho de diciembre"

- [MARIA] Hillen zortzien Ama Birjiña egunen

- Ama Birjiña egunean?

- Bai.

- Orduan bale, eta zuk esan duzu hirurogeita hamasei?

- Nik hirurogeita hamasei hamabosten, abendun hamabosten, "quince de diciembre", osea hil bateko gera bik, [...] lau urten diferentzia, baiño hil baten jaiok.

- Antzeko ordun.

- Bai.

- Eta zein da hemengoa bertakoa?

- [PEDRO] Ni, ni naiz hemen bertakoa, bai, hemen jaio eta hemen hazitakoa.

- Intze?

- Intza bai Intza baserri, Intza baserri, bai.

- Hemen jaiotakoa zara, orduan?

- Bai, bai, bai.

- Eta mutikotatik baserrian lan egin behar...

- [PEDRO] Erabat baserriko lana guk, ez gara iñun kanpoan aritu [...] Bueno obratan ta teillatutan ta bai, baiño gaiñerakuan fabriketan ta iñongo industrin ez. Etxen baserrin ganau asko izaten gendun lehen ta, ardi ta, azienda asko.

- Ze auzo da hau?

- Izotzalde.

- A, hau da Izotzalde.

- Izotzalde, bai, izena du.
- Eta orduan ganadu asko eukitzen zenduen.
- Bai, lehen bai, lehen etxen zortzi behi ta're eukitzen giñun, esnea ateratzen giñun lehen, ta txekorrak eta danak, ta txerri-saille ere bai, ta hola, baserriko gauzak holaxen izaten zien, bai, bai. Kanpoa joan ez gera, etxen saiatu behar ta etxen, etxeko lanetan. Oain ez, oain ya aspalditxo jubilatuta gare, ta oain ez dago. Bi behi badauzkagu baiño, been txekorrak hortxe daude kanpoan, baiño gaiñerakoan ez dago aziendik ezer. Oilok [...]

1.10. Bederatzi senide eta bi ama

- **Hizlaria(k)**: Garciarena Arregi, Jose Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-012/002
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:01:02. **Bukatu**: 00:03:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Diaz, Josu
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Baserrian jaio zen, eta lan asko egin behar izan zuen. Gerra hasi zenean, zazpi urte zituen. Bederatzi senide ziren, baina bi amatakoak. Bere amaren familiari buruz hitz egiten du, eta aitaren lehenengo emaztea nola hil zen kontatzen du. Ama eta aita nola ezagutu ziren azaltzen du. Gaur egun haietatik zein bizi diren aipatzen du.

Transkripzioa

- Baserrin jaiotakua mutikotatik ya lana tokatuko zitzaizun, ez?

- Lana erabat mutikotiken lana izaten gendun. Garai hartan pobre giñen, denak pobre. Nik zazpi urte nittula hasi zan gerra, bai, ta bukatu hamar in nittunen, bai, hamar iña nittun bukatutakon, ta gu're beatzi senide bagiñen, hamar giñen baiño ttikitan hil zan bat, bai, zazpi hillebeteko hil zitzagun bat, bai. Ez dakit ze gaitz eo... ez daukat gogoan baiño, bai, beatzi behintzat aurrera atera giñen, baiño bat, zaharrena, aurreneko amana, geo gu berriz... Ama zan etxekoa, nee ama zan etxe hontakoa, zien hoik hiru ahizpe ta anaia gure ama-ta, ta anaia fraile joan, enteintzen dezu? Anaia fraile joan, ta geo, anaia fraile jon zanen alaba zaharrena etxea ezkondu, bai, ta aitte Elaunde Azpitik etorri zan, baserri Elaunde Azpi, bai, Izotzalde da hoi're e? Elaunde Azpitik etorri zan nere aitte. Ta aurreneko semez alabak o aurreneko alabakin ezkondua ta aurreneko alaba izandu ta akordatu bate akordatu gabe ohian odolustua andrea. Familia etxen izandu hemen, garai haitan etxen, ta neskatoa urtetako o ordutako neskatoa geratu ta andrea hil zitzaion, bai. Geo esaten zuen nee ama Villafrancan neskame emen zegon hemezortzi urtekin, ta nee aman aitte biudoa zegon hemen, ta geo suhie Elaunde Azpitik etorri ta biudo geatu berriz, aurreneko andrea hilda, ta geo nee ama hemen zeon Villafrancan neskame, ta hue ekarriazi etxea honera ta ezkondu.

- Orduan alargunduta gelditu zanean zure aita ahizpakin ezkondu zan.

- Ahizpakin bai, koiñata harentzako, koiñatakin bai, lehengo ahizpen, bai bai koiñatakin ezkondu, bai. Ta geo koiñatakin beatzi izandu, hamargarrena aurreneko amana, baiño bat ttikitan hille deu, bai, aspaldi hille hau'e, ttikitan, bai, baiño beatzi, ta beatzitatik gaude bizik hiru hillek dauzkeu: bi arreba ta anaia gazteena...

1.11. Emaztea ezagutu eta Berastegin jarri bizitzen

- **Hizlaria(k):** Garciarena Arregi, Jose Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-012/004
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:05:45. **Bukatu:** 00:06:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Emaztea Leitzakoa du. Emaztearen ahizpei buruz hitz egiten du. Ume bat izan, eta galdu egin zuten, eta iloba hazi zuten etxean.

Transkripzioa

- Andrea ere Berastegikoa da ezta?
- Ez, Leitzekoa
- A, Leitzekoa, klaro, klaro, honen Se, Se... zelan da? Seberiana... Zelan da? Zure koiñata? Se...
- Xerapia. Hau Juanita, hau Juanita.
- Xerapian ahizpa da.
- Bai, hau Juanita ta bestea Inaxia. Hiru ahizpe etorri zien Berastegira. Nik ekarri nun aurrena, ta gero honea etortzen zien da hemen besten batzuei gustatu ta hiru ahizpe etorri zien bai, bai. Ta nik Leitzeko baserri batetik ekarri nun, ta geo famili bidean izandu gendun ta galdu ein gendun, gehio ez gendun izandu. Ta geo illoba etxen hazia izaten gendun hemen anaia gazteenana, oain nausi daukeuna, ta horrek'e Leitzetik ekarri zun beste bi etxekoandre Leitzeko [...] bai, bai, bai.

1.12. Neskak goiz etxera, baina mutilak ez

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Nazabal, Simona
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-022/003
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:03:57. **Bukatu:** 00:05:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Emakumeek gizonek baino askatasun gutxiago zuten lehen. Soinu-jotzailea herrira etortzen zenean, dantza egitera joaten ziren; baina eguzkia sartzen zenerako etxera itzuli behar izaten zuten neskek. Mutilek, ordea, ez zuten halako mugarik.

Transkripzioa

-Ba halaxe. Gue bizimodue goorra izandu zan.
-Emakumeentzat beti gogorragoa, ez, alde horretatik, eliza eta.
-Bai, bai.
-Eta emakumeak libertade gutxiago, ez?

-Bai, pentsatzen al dezu. Gu jai atsaldetan joaten bagiñen herria dantzaa, hemen bertako seme bat zan hankamotza, bi hankak ez zitun, bizkarren hartuta ta ibiltzen zuen. Eta akordeoia harek jotzen zun, baiño iluntzen, "Aimarie" esaten zitzaion, elizen jo itten zan garai hartan oaindik, gero belaxe galdu zan-ta, baiño hue jotzeako eon ber zendun etxen. Ia euzkie sartzen zonetiken aurrea ya etxea joan ber zendun. Bestela handik aurrea, bueno! Ezautu dittegu baita berandu joan dielako etxetik kanpoa bialduta ta ibili dittuenak'e.

-Bai, e?

-Bai, ezautu dittegu, aizu. Oaiñ gauerdin atea itten dan bezela, ba ordun ilune hasteako jun ber zendun etxea.

-Hori gizonak ere bai ala emakumeak bakarrik?

-Ez, ez, gizonak libre. Gizonak libre. Emakumentzat izaten zan zea guztie. Arriskua emakumek emen zeuken, ta tentazioa emakumek ematen emen zun. Zuk ala entenditzen al dezu?

-Eta gizonak ez zun batere kulparik.

-Ez zun batere kulpeiken. Ez ba.

-Beti emakumiak.

-Defendittuaoa zan beti. Igual du han eta parrandaa joan eta mozkorkerie ta zea gizonak zun, ez?, baiño...

-Gaiñera izan balitz gizonak lana egin duela eta gero juerga egin duela, baiña lana...

-Berdin-berdin inda, berdin-berdin inda.

1.13. Emakumeak gizonak baino beheragoko mailan

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Nazabal, Simona
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-022/004
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 00:05:36. **Bukatu:** 00:09:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Emakumeak beheragoko mailan zeuden lehen. Tabernetan ere ezin izaten zuten sartu, bestela kongregazioko zinta kentzen zien eta. Simonari zinta zergatik kendu zioten azaltzen du. Zinta berreskuratzeke egin beharrekoak eta apaizarekin izandako ika-mikak kontatzen ditu.

Transkripzioa

-Baiño aparte beste gauz bat bai baigendun, nik ez dakit nola esan baiño. Gendun, emakumek giñen azpikoak, beheko maille hoi. Gizonak ez zeuken zeiken. Ezertatiken zigorrik ez zeuken. Alde hortatiken bueno, zan... Mutikoak'e bai, e. Neska txar hoik, gu "neska txar hoik" izaten giñen eta mutikoak beste zea bat izaten zuen. Hoi zan matxismo bat, aurren aurrenetik hola ezautu zuen eta hola etorri zan. Bai. Ta taberna batea sartu? Bueno! Kongregazioko zinte, Mariaren Alabak izaten zien garai hartan, gu hala giñen, kongregazioko zinte kenduko ziguen gu harea sartu bagiñen, taberna batea sartu bagiñen. Zuk pentsa zazu nei zergatiken kendu zirean kongregazioko zinte. Nere ahizpe bat ezkondu zan eta haren bodan, nee aman anaia, osaba, bea Donostian-ta ibilitakoa zan-ta, harek

dantzan-ta bazekin-ta, dantza lotua ittea ez zan libre. Ordun ba azken-azkeneko momentun, baiño momentu bakarra, osaba horrek eta azkenen jarriaazi niñun dantzan. Eta huexe bukatu bakarra in gendun. Ba hurrengo jaien sermoien hue esan zan elizen. Ta nei Marian Alaban kongregazioko zinte kendu in zien, kendu in zizen. Eta egondu nitzen gabe, eta geo berriz atzea txartela ateatzea jun behar izaten gendun urtero, eta txartela eta dotriñara jun giñenen apaiz horrek beti izaten zun neetzako halako zeozer. Gaztek denak eta bialdu eta bakarrik hartu niñun.

-Lotsagabe ikusiko zintuen.

-Bai ba, ni lotsagabe. Eta lotsagabe in nion, aizu. Hartu niñun zintengatik'e bai. Ta geo zintengatiken eskatu nion jarri al nezaken edo ez. Neska zahar-zahar bat zan, hari ematen genizkion, hue gendun presidenta. Zintak hari, hue garbie zan-ta. Gaiñea -nastutzea nijoia baiña igual zaio-. Soltera edo neskazahar zeuden hoiri ez zaie esan behar "neskazaharra", eta "soltera" ere ez, esan behar zaie "etxebirjiñek".

-Etxebirjiñek?

-Bai, gure apaizen legea hola zan. Zien etxe-birjiñek. Ta guk eukitzen giñuen haundi hoik edo zahar hoik ba azpin bezela eukitzen giñuen. Ta esan zian egun baten, bakarrik hartu niñun baten, hemen neska bat estadun geldittu zan, soldaduskatik etorri zan mutil bat, etorri zan Berasteira, bere anaia han ez, eta hor egun batzuk pasa zittun ta, nik ez dakit, harena zula esaten zan, behintzat estadun geldittu zan. Ta geo hemendiken alde ein zun baiño ya sei bat hillebete edo aurreratutakoan. Lotu-lotue ibiltzen zan hola. Guk ez gendun sospetxaik'e horrena izan zittekeenik, ez, baiño geo behintzat kanpoa joan zan, eta geo kanpoan esan zuen semea izan zula. Ba apaiz horrei baten batek esan dio nik esan nula, ta ni hartu niñun. Ta nik esaten nion, aizu, nei ez bañdin badit -berrorrika, e-, nei beorrek ez baldin badit esan behar zeñek esan dion, ez naiz ni hemendik etxea joango. Elizen, sankristin. "Ba joan zaitez etxera..., lotsagabea!", ta, "Ez, pekatue esatea libre da, eta pekatarie ez? Pekatarie beorri hori esan diona da, ez ni. Ordun datorrela honea, ni hemen egongo naiz". Sankristin bi zea zien, hor sankristi txikie ta hemen sankristi haundie. Ta nik txiki hortatik haundia alde ein zunen, harea ere seittu in nion. Eta esan zian: "Ez al dizut..., alde itteko esan dizut eta" hasi zitzaian eskuk zabaldua, ta alde ein in nion. Ta ez dakit oandiken zeñek esan zion, baiño zan gezurre.

-Esan zuen zuk esan zendula harek umea izan zuela?

-Bai, haren familiak esan zula nik esan nula. Ta hori baten batek hari esan zion. Ta harek sinistu in zun esan zion dana, baiño nerea ez. Eske nei zian gorrotoa bezela, ez. Geo hok zittuan bere semeak baiño maittego. Bai, hok bai. Eta ni honekin nola ibiltzen nitzen, eta nola ni gaiztoa nitzen, "ardi beltza" esaten dan hoitakoa, haren ustez behintzat, ba kargatzen zan nee gaiñen. Nee gaiñen kargatzen zan. Holaxe ibiltzen niñun. Buenooo!

1.14. Janzkera ez da arimaren ispilu

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Nazabal, Simona
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-022/005
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:09:49. **Bukatu:** 00:11:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Iritziak

- **Laburpena:** Jantzeragatik inor ezin dela epaitu esaten du. Bere familiako emakume helduen jantzkera nolakoa izaten zen azaltzen du.

Transkripzioa

-Ikusten zendulako gauzak..., prakak jazteko modua dala ba bueno...

-Bai, bai. Aizu, eta zer? Harek'e frakak jazten zittun eta gonakin tapatu. Total bi jantzi ibiltzen zittun batea ba. Hoi ez da persona bat juzkatzeko, jantziingatik ezin dezu persona bat juzkatu o txarra dan o ona dan.

-Ez, ez.

-Izan ditteke mundun dan onena nahiz ibilli, ez dizut esaten esajeratu baten azalduta baldin bazabiltze. Guk'e ikusten deu, gaztek izandu gea, badakigu tentazioa zer dan. Hortaiño jartzen bazea bai, pentsatzen dezu atentzioa deitu dezakela gizonan aldeti. Ez? Guk hoi geok ikusten deun gauze da. Baiño guk ez gendun...

-Orduan bueno...

-Bai, bai. Gure ama ta gure garaien etorri zienak bai, gu bezela jantzita zien. Oain, guk amandrea esaten giñun, aittejaune ta amandrea. Amandrea ibiltzen zan beti hanketaiño gona luzekin. Gaiñeantzen beste izebak eta gurasoen zeak eta denak ibiltzen zien gure antzea. Luze xamarra bai baiño zea hortan.

1.15. Bixenteren aita: "Amerikano Handia"

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Nazabal, Simona; Saizar Ugartemendia, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-022/010
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:23:08. **Bukatu:** 00:24:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Diaspora » Euskaldunak diasporan » Diasporatik itzulera
- **Laburpena:** Bixenteren aitari "Amerikano Handia" deitzen zioten, Ameriketara urte asko ibilitakoa baitzen. Berastegira itzuli zenean, Ameriketara egindako diruarekin herriko hainbat lursail eta baserri erosi zituen.

Transkripzioa

- Gure aitte zan "Amerikano Haundie", [...] horko semea zan, horko baserri hortakoa, hamen motea zun izena Berastegin, "Amerikano Haundie" esaten zien danak.

- A bai e?

- Bai.

- Ta Amerikan egona zan?

- Bai, hiru aldiz'e. Horko semea, Saizar. Eta Ameriketa joan emen zan soldaduska liberatu zanen, Ameriketa joan. Ta Ameriketara bere kasa hasi, ta letxero ta zeak ta ustez aberastue, aberastu. Ta geo parte batekin etorri zan Berastegira eta beste bi parte han utzi zittun. Ta parte harekin erosi zun esateko Berastegin erdie bai.

- (Simona) Erdie ez, ez. Lau o bost baserri, Bizente, ez pasa gehiegi.

- Lau o bost baserri ta gaiñe terreno-saillek eta aparte zeak'e asko, erosi

zittun asko, sail haundik [...].

- (Simona) Ta hau da, hau da basarri hoitako bat.

- Hoitako bat, aitten herentzie da hau.

- Erosi zuna berak ezta?

- Bai, erosi zuna berak. Han etorri giñen gu.

- Bera ze baserritan jaioa zan?

- Oilloki, horko baserri hortan. Saizar, hor Saizar dia, gu Saizar gea.

- (Simona) Bai, horkoa zan, eta geo basarriok erosi zitun denak eta seme bakoitzei tokatu zitzaion basarri bat.

1.16. Bixenteren aitaren bizitza

- **Hizlaria(k)**: Azpiroz Nazabal, Simona; Saizar Ugartemendia, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-022/013
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:25:38. **Bukatu**: 00:27:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Diaspora » Euskaldunak diasporan » Diasporatik itzulera
- **Laburpena**: Bixenteren aita ganaduarekin lan eginda aberastu zen Ameriketara. Itzuli zenean, herriko elizarako kanpai bat erosi zuen. Emakume batekin ezkondu zen, baina haurrik izan baino lehenago hil zen hura; eta orduan neskamearekin ezkondu zen, Bixenteren amarekin, alegia. Bixenteren gurasoek alde handia zuten adinean.

Transkripzioa

Aita nola aberastu zan, ze lanbide euki zuen?

-(Bixente) Ganadero. Ganadukin. Aberastu.

-(Simona) Baiña ganadu asko. Eguynen ez dakit zenbat txekor jaiotzen ziela ta hola.

-(Bixente) Esango dizut. He aberastuta etorri zanen, elizea jun gabe-ta, erlijioa utzita-ta urten askoan ibili zan eta. Elizei ekarri zion kanpana, aurreko kanpana hoi.

-(Simona) Kanpana hoitako bat.

-(Bixente) Hoi jarri zion gue aittek elizei. Izena hantxe dauke: "Matin saizar Ugartemendia, Saizar Lopetegi y Maria Bautista Lizarribar Olano. Hoi zan lengo etxekoandrea. Maria Bautista hoi zan haren andrea. Beastegiko alaba, e. Baiña lengo andrea. baiño ez emen zun familirik izan harekin, abortatu itten emen zittun. Eta geo hue hil zitzaion, eta gure aitte geatu zan bakarrik, eta neskamea gue ama, neskame zeoan, eta gue amakin ezkondu. Eta gue amagandik etorritakoak gea gu.

-Orduan aurretik egon zan ezkondu ta beste emakume batekin.

-(Bixente) Bai.

-(Simona) Han bizittu zan, ez, ezkondu ta han bizittu zan.

-Ameriketara?

-(Simona) Ameriketara, bai. Eta handik honea etorri zan ustez dirue in zunen inbersioa hemen itteko. Baiño ya andre hoi etorri zan granoak zittula esaten zuen, nik ez dakit zer izango zun, baiño gaixotasun batekin, eta hoi ordun hil in zan. Eta geldittu zan geo, alargun geldittu zan aitte hoi, eta ezkondu zan nexka honekin. Gau parragure ta dana ematekoa da baiño honen aittek ezkondu zanen zeuzken berrogeita hemezortzi urte, ta amak

hogeta hiru.

-Bai, e?

--(Bixente) Hiroitaberatzikin hil zan eta nik zazpi urte nittun, sei urte.

-Eta berrogeita hemezortzi urtekin ezkondu eta artian sei seme-alaba izan zittuan.

-(Simona) Eta pentsatu, hirurogeita beratzikin hil zan ta txikina jaiotzeko gelditu zan.

-(Bixente) Bai, gizonak zartuta're balio dula! (Barreak).

1.17. Lehengo ezkontzak

- **Hizlaria(k)**: Azpiroz Nazabal, Simona
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-022/024
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:43:35. **Bukatu**: 00:46:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Ezkondutakoan, San Ferminetara joan ziren. Lehen ezkontzak nolakoak izaten ziren azaltzen dute. Ezkontzako doteari buruz hitz egiten dute.

Transkripzioa

-Ezkondu ta urtebetea. San Fermiñea joan giñen ezkonduta, San Fermiñen ezkondu giñen eta, San Fermiñea joan giñen. San Fermiña han in gendun guk. Handik ekarri gendun semea.

-(Simona) Ez dakigu ekarri gendun, geo azaldu zan behintzat.

-Ezkondu San Fermin egunian?

-Ez, nueve, hillen beatzin. Nueve de juio del sinkuentaidos.

-Nola izaten zan ezkontza. Oingo moduan ospatzen zan? Ze arropa ta?

-(Simona) Paisano jantzie dena, e, jantzi zuririk eta ez zan. Ez, gu giñen garaian ez. Baiño dena zan paisano jantzi hau. Eta gurea bitarten ia gure senidek eta aurretik ezkondu zienak ezkontzen zan garai hartan, goizen igual asteazkenakin jeneralen ezkontzen zien goizen. Gosarie etxen ein ta joaten zien biajea.

-Bai,e, goizean ezkondu?

-Bai. Gero etortzen zien [lanbte] einda etxea. Ta jaien izaten zan eliz-sartzea. Elizen ezkondu ta elkarrekin eliz-sartzea esaten zitzaion. Eta egun hortan bodako bazkarie izaten zan nere senidek hola zien garaian, ez.

Baiño geo aurrenekotan gu giñen, gu ezkondu giñen eguadiko hamaiketan. Hamaiketan ezkondu ta hemen bertan bazkarie ein gendun.

-Kakonen.

-Kakonen hemen bertan bazkarie ein gendun eta joan giñen biajea ta baita bestek bezelaxe etorri giñen laanbatakin, jaien elizan zea in gendun ta hemen ekin giñon. Geo honea aurea. Histori zaharra holaxe daamaikigu guk. Baiño beira, suerte bat degu eskertu ezin dan halakoa.

-Etz zuek entzun izan duzue, zuen garaian igual ez zan izango hori, baiña dotian kontua-ta, ezkondutakuan dotia eraman beharra.

-Oain izango dan bezela. Oaiñ'e andre bere aldetiken duna berak ematen du, ez, eta gurasoek ematen baie parte bat ba hue'ere beak ematen du. Arreoa esaten zaiona. Arreo hoi bai. Guk ekarri gendun arreoa, nik ekarri nun arreo bat hona, honentzako elizea joateko jantzi behar zun erropa ta

dena nik ekarri nun.

-A bai? Hori zela izaten zan, gurdiaekin ekarri eta...

-Ez, ez. Ya orduako hoi ya ezautu're ez. Guk ezautu're ez degu ein.

Berastein bai. Gure aitta zanak bere arreoazabaltzen aitzen zala esaten zan, baiño gue senidek, berrogeita..., zaharrenak'e hoi ya ezkondu zan hogeita sei urtekin, eta hoi zan garaien'e zan normal. Orrek Orejakoa zun emaztea, eta Orejatiken arreoazekarri zuen aberetan, aberetan ekarri zuen. Ordun ba dozena bat maindire gaiñeko, azpiko, zera, sobrekama, bueno... eitten zan dena, dena. Oain ohittura hoi guk bagendun hoi. Nola nik etxe berria etorri behar nun gaiñea, ba sukaldeko ontzie ta zera guztie ta dena, dena ekarri gendun, bai.

-Dena berriro hasi giñen eta, dena berriro.

1.18. Ezkontzako apaingarriak

- **Hizlaria(k)**: Azpiroz Nazabal, Simona
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-022/025
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:46:52. **Bukatu**: 00:49:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Lehen ezkontzako apaingarrietan lihozko izarak, alkandorak eta toallak oparitzen ziren. Simonak ez du inoiz ikusi lihoa nola egiten den, nahiz eta inguruan bazituen hura egiten zekitenak.

Transkripzioa

-Maindireak eta esan dezue. Ezagutu dezue linuzko maindirerik?

-Nik bai. Nik neonek ekarri nittun honea. Izeba bat zan nere barriotan, eitten gendun koperatiba bat bezela elkarrekin lana. Hoi zan matrimonio bat umeik ez zuna. Eta geo hartu zuen gizonan aldeko mutil bat. Eta hue ezkondu ta jarri zitzaion. Baiño izeba horrek berak berez eskuz indako liñu hoitako zeak zeuzken rolloak, rollotan bilduta. Harizko maindirek esaten giñon. Eta haitatiken bi maindire eman zizkian honea etortzeko. "Hainbeste baden lagundu eta hau jaso itzin rekuerdotaako, e!", ta. Guri hika itten ziun harrek. "Jaso itzin" eta. Haik ekarri giñun, eta ezautu bai. Ta geo aparte Josen etxen horren izebak kutxen eukitzen zun baiño bueno. Garai hartan arreoan-eta itten zitzaien gizonai itten zitzaien alkandora, linozko alkandora baiño dena bordatuta. Eta hola mokasin zea hontan kuello bat hola ixten zana, itxie, kuelloik gabe hola itxie ta dena bordatuta ta hola. Hoik nik ezautu dittut nere anai horren etxen. Oain ze ein zien ez dakit, gero ze in zien. Baiño toallak eta're linoz itten zittuenak, ta hola bolante luze-luzek parpailletan bainikakin ta geo zeatuta eindakok hola, ta beak bordatuta koloretako harekin, gorri-urdiñekin-eta. Bordatutakuak-eta harenak, eta gue ama zanak halaxe zuen arreoaz, hoik ezautu bai. Oain, guk gerentzako geok, esan detena, honek emandako bi maindire bakarrik.

-Berak egindakuak zien bi maindire horrek. Zure izebak egindakuak?

-Bordatuta izeba horrek.

-Eta linoa ezagutu dezue hemen soroan?

-Ez, ez, ez, hori ez. Haria itten ez. Ardi-illeakin harie itten bai. Baiña liñoakin itten ez. Hoi iñoiz ez. Izeba honek, esan detena eman zizkiala, honek esaten zidan gaztea nintzela: "Nik eakutsiko niken, oaindiken

bazekinak liñoa nun daon, ta ekarri ta eakutsiko niken", baiño, bai... Gizonakin bakarrik bizi izan zen ta ez zan aileatzen ezta..., iñoako ez zan aillegatzen-ta. Nik ikusi ez det in. Ikusi ez det in nola itten zan. Baiño arreo esaten zuen beak etxen haria ein ta beak indako zeakin, mainderekin izaten zala garai hartakoa.

1.19. Umeen hitz egiteko gaitasuna

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Iztueta, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-026/003
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:07:12. **Bukatu:** 00:08:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- **Laburpena:** Umeak zirela, Berastegikoek ez zekiten ondo hitz egiten; Leitzakoek, ordea, bai. Izan ere, Berastegiko umeei isilarazi egiten zitzairen helduen aurrean, eta ez zuten normal hitz egin ahal izaten.

Transkripzioa

- Umek, adibidez, eskola-umek. Oain hemen'e beharbada hiztunek bazeudek, ezta? Baiño lehenago guk ez gitxakin hizketan, gure ume-denboran. Ta Leitzeko edozein ume koskorrek zaharrazin ta gaztekin ta bokabularioa esaten zaiona, hiztegi hoi, hoi sailen zekien. Ikeragarritzko errextasunekin. Hor. Ta hizketan ta herri hontan, Berastegin, beti notatu izandu det nik famili batzuk kenduta ez giñakila hizketan. Hemen gehiena hitz eitten zuenak eta aixana hitz eitten zuenak Ansoane ta Goienetxe ta hola besten batzuk'e bai.

- Bai, tarteka.

- Horrek esan nahi zin umekin hartu-eman normalagoa hizketan. Ta guri ixilik egoteko esaten ziguen, zaharrazin bakarrazin hitz ein ber zien. Ba hoi aldatzen baldin bada, formula hoi aldatzen bada, umek ya trato normalen sartzen dittuk.

1.20. Berastegi inguruko herriein harremana

- **Hizlaria(k):** Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BRS-028/003
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:05:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- **Laburpena:** Leitza eta Berastegiren artean zer harreman egon izan den azaltzen dute: Leitzatik Berastegira joateko joera txikia egon izan

da; alderantziz, ordea, handia. Berastegitik Tolosara joateko ohiturarik ez zeukaten lehen (inauterietara, adibidez); orain, berriz, bai.

Transkripzioa

-Hemengo jendea Leitza aldera, eta Leitzakoak Berastegira ta, hartueman eta izango zan, ez?

-4-Bai baiño gutxi. Oain gehio, e.

-6-Berastegikok badare Leitzea joanda, baiño hango hizkera itten due haik.

-2-Hango hizkera, hoi ez da kanbiatzen. Goizutakuak badare hemen eta haik Goizutakua itten due, e. Hoi marka, e!

-5-Ni gauz batekin fijatzen nintzen: Berasteiko festak lenao izaten die Leitzen baiño, eta leitzar gutxi izaten zan hemen. Hemengok bukatzen zienen danok Leitza gu.

-6-Leitzera autobuskaa juten zien gaztek.

-2-Hangok honea baiño joera hemendik hara.

-4-Hemendik Aresora eta Gorritira ere bai. Goiazuetara're bai.

-Hemendik beti Leitzera?

-1-Goizuetara ere bastante, Goizuetara.

-5-Herri hoitara denetara.

-6-Inguru [osoan] izaten zien denak, Aresoko ta Gorritiko...

-5-Egie esate ezkeoz Berastegin kostunbre gehio zan behera baiño gehio gora festatara.

-Tolosara ia inoiz ere ez festetara?

-1-Joera gutxigo behintzat

-2-Gure gazte denboran Karnabaletan ez giñen ailleatu Tolosara. Karnabalak. Eta oain berriz erabat hor ibiltzen die.

1.21. Inauterietako programa

- **Hizlaria(k):** Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BRS-028/006
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:09:07. **Bukatu:** 00:10:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Inauteriak ospatzeko, egun bakoitzean zer egiten zuten azaltzen dute. Nesken eta mutilen artean ez zegoen berdintasunik.

Transkripzioa

-Orduan karnabalak izaten ziren ostegunean hasita edo?

-6-Ostegun Gizen izaten zan, umeena izaten zan ostegune. Umena ostegunen eta gero...

-1-Hiru egun. Hiru egun segidan izaten zien.

-3-Igandea, astelehena eta asteartea. Igandean ateatzen zien soiñekoakin gerrien txintzarri ttiki hoik. Kanpanillek. Sonbrero luze bat.

2-Jantzi dotorek bazien.

-1-Asteazkenan hautsa hartzea elizara.

-2-Izerdi earra atera bai zakukin jantzita.

-Jantzi bat edo bestea zer zan, batzuk modu baten eta beste batzuk...
 -5-Ez, ez, egunen egunen diferente.
 -3-Baiña astelehenen soiñeko zer hoik, luze hoik. Bai, eta gero astearten zakukin.
 1-Gero [...] izaten zan maskurikin, maxkurie, txerrie hil eta. Maxkurie... sekatzan. Harrekin zipi-zapa.
 -3-Harrapatzen zittuenei epelak emanez.
 -Zerriena?
 -Zerrina, zerri-maxkurie.
 -2-Bai. Miñik ez zun /etzun/ ematen baiño
 -1-Ez, baiño umeei, bakizu, beti sustoa edo.
 -Eta hori esan dezue gazteen kontua zala. Neskak ere bai?
 -3-Ez, neskak aparte.
 -1-Neskak, ordun ez zan /etzan/ oin bezelako ambienteik neska eta mutillekin. Ordun neskataa jun behar bazendun gaue illunduta ia.
 -6-Neskak'e izaten zien ordun etxea abittu ta atzea begiratu; ta, gustokoik ez bazun "beste fandango bat in bar diñau", ta atzera. Ja-ja, gustokoa etorri arte atzetik.
 -5-Plazatik abiadan korrika abittu eta gero mantxotu. Gustokoa bazan atzea jira ta: "beste pieza bat in ber diñau".

1.22. Desberdintasunak aberatsen eta pobreen jolasen artean

- **Hizlaria(k)**: Azpiroz Nazabal, Florentzia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-031/012
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:18:36. **Bukatu**: 00:20:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Kaniketan ere jolasten zuten, eta nola izaten zen jolasa azaltzen du. Panpinak bazeuden, baina aberatsek bakarrik zituzten. Erregetan ez zuten oparirik jasotzen normalean, familia aberatsetan bakarrik.

Transkripzioa

-Kaniketan esan dezu. Kanikak erosi egiten zien?
 -Bai. Ta geo paretan baztarren hola jo, gelditzen zien tokin. Geo beste kontrarioak joko zun eta hari hola harrapatzen baldin bazun, harena kanike. Ez baldin bazun...
 -Eta bestela muñekarik edo bazan?
 -Bai, baiña guk ez.
 -Geroago igual.
 -Ez, ez. Ordun Kakonekoak eta hemen aberats-jendek bazittuen, Martentonionen eta. Bazien muñekak eta kuzinak eta, Erregetan berebiziko pesta ibiltzen gendun. Maistrak esaten zigun: "Qué os ha traido los Reyes?", eta "nada. Si son mentira". Bestek, berriz, denak hemen haundi xamarrek zerenok esan itten zittuen. Nik kasualidadez ondoan neuzken eta haikin jostatzen nitzen, aillegatu nitzen holako trasteekin jostatzea, baiña lagunena. Martentonekoak eta Marijexuxek eta. Hola.
 -Eta esan dezu Erregetako kontua. Zuen etxera ez zan ailegatzan ezer.

-Ez, ez. Guretzat ez. Nik muñeka bat izan nun, poxpolin ibilli giñen gu neska-koxkorretan, gerra arte. Ta ordun Manolitak, auzoko lagunak ahizpek ekarri zian.

-Baiña hori zer izaten zan, dantzaz poxpolin moduan...

-Bai, bai. Kalen eta ibiltzeko.

1.23. "Okerra" soinu-jotzailea

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Nazabal, Florentzia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-031/020
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:32:29. **Bukatu:** 00:33:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** "Okerra" soinu-jotzaileari buruz hitz egiten du. Hankak okerrak zituen, eta asto gainean ekartzen zuten.

Transkripzioa

-Gero beste soñujole bat, Okerra edo.

-Okerra, bai, hemen Oiñetazarren, hue bai. Bueno, haren beharrak izaten giñun guk, gure soñujotzailea hue zan. Arrunt, hankak-eta oso okerrak zittun. Esango zizuen lehen'e baten batek. Eta oso okerrak zittun, hola bilduk izaten zittun, baiño sana zen. Abildade haundie zun, trikiti jotzen ziun, ta geo astoan gaiñen eamaten zuen. Ta Gorriñ edo atarin, Karakonekon [...], han, bakizu, [...] zan lehenao. Haraiño aillegatzen zanen plazaa aterata jartzen giñen gu, bizkarren hartuta exeita jartzen zuen kontsejutik sille ekarrita ta. Haren beharrak izaten giñun.

-Makiña bat dantza-saio egin zendun orduan hark musika jota.

-Bai. Zuzen edo oker bai guk. [...] giñen. Bai.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Eskolan hasi zenekoa

- **Hizlaria(k):** Garciarena Belaunzaran, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-002/003
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:04:06. **Bukatu:** 00:04:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** 11 urterekin eskola hasi arte, plazan ibili zen, baina beti maisu desberdinekin. Askok eskertzen du kolegioan joan izana.

Transkripzioa

- Esan duzu kolejiara hamaika urtekin.

- Bai, bai, hamaika urtekin, baiño hamaika urte bitartean hemen ibilli nintzen.

- Hemen plazan?

- Hemen, bai, plazan, bai. Baiño ordun maisuk'e badakizu maisu're gutxi izaten ziren ta, zea, oso maiz kanbiatzen ziñan, ze beti maisu diferentekin izaten giñen.

- A bai?

- Ta ez gendun. Baiño nik gauzik hobena egin zidaten, gurasoei eskerrak ematen dizkiet kolejiyoan sartu ninduelako. Ta han ikasi nun nik beste menden nola egoten zan, ta nola muitzen zan. Ta geo gaiñea urtek'e txarrak tokatu zien gerra ondoa, gerra ondoa zan, ta kolejioa nik hoi detalle hok kontatuko dizkizut...

2.2. Eskolako jantokian janaria falta zenekoa

- **Hizlaria(k):** Garciarena Belaunzaran, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-002/004
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:04:57. **Bukatu:** 00:06:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Gerraostea zen eskolan zegoenean, eta jantokian janaria falta zenez, etxetik eraman behar izan zuten janaria, bestela eskola lehenago bukatu behar izango baitzuten. Jantokian bi zatitan banatuta zeuden. Eta beste zatikoek, uraren bila joateko aitzakiarekin, janaria soberan ote zeukaten galdetzera etortzen zitzaizkien.

Transkripzioa

- Han kolejiogan gogoatzen naiz komedorea: ni hamaika urtekoa nitzen ta nire kidekoak'e asko zien, ta geo beste batzuk haundigoak. Ta komedore bat izaten zan, baiño bi parte egiñe. Ta gogoratzen naiz urte baten, jana palta zeatzeko ta [...] babarruna atera itten gendunai eskatu ein zion kolejioa ya bi hillabete hillabete falta zanen itxi ein beharko zuela, ez zala, ez zuela janik billatzen.

- Etxetik ekartzeko.

- Bai ta emateko ta halaxe eman gendun, zeatik hemengo zelai hau dena oain berde-berde dao. Hemen dena artoa, garie, patata, denatatik itten zan, ez zan berdeik ez zan izaten hemen; ta geroztik gauzek kanbiatu dia oso. Ta urte haietan ba mixeria asko, ta gogoatzen naiz han kolejiogan komedore hartan alderdi baten, bueno komedore bat baiño alderdi baten haundik egoten ziren ta beste baten ttikik. Ta ttikin zeran egoten zan itturri bat zegoan ta zaharrak etortzen... "aizu, zea sobratu al zazue?". Konturatu zazu, sobran bille, ta huren aitzakiekin etorri ta sobrak ta sobrak ematen giñezkien geo, sobratzen zitzaizkigunak. Ta hoi ere holaxeko boillo txiki batzuk lauentzako ta kabezaik botaik ta gora iyo beharren behera eroritzen ziren. Bai, bai, zerak, ez dakit ze izena zuen, ez dakit, ez naiz gogoratzen, oain ez zait etortzen izena. Ba holako bizimodue eman [...] ni.

2.3. Ezkondu arteko bizitzaren laburpena

- **Hizlaria(k):** Garciarena Belaunzaran, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-002/005
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:06:36. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Kolegioan sartu zen, maristetan. Gero soldadutzatik libratu zen, aita edadetua zelako. Ikasketa onak izan ditu, eta erdaraz egin izan ditu. Horregatik gustatzen zaio gehiago erdaraz hitz egitea. Kolegioa eta gero, kotxea erosi eta ezkondu egin zen.

Transkripzioa

- Ta geo kolegioan sartu nintzen ta...
- Kolegioa nun? Nun zeon?
- "En Mugaire, Oronoz-Mugaire con Maristas, alli aprendi..."
- Marianistena?
- Maristas. Bai, ta han ikasi nun nik garroten zer zan soldaduska. Geo soldaduska esaten zuen geo soldaduskako denbora etorri zan, ta nik aitte zahartue nun, ta soldaduska libre atera nintzen, ta aittari esaten nion: "baiño zeatik ni soldaduskatik libre?" Ta "zeatik esaten dezu hoi? Gaizki bizi al zera?"
- "Ez", baiño nik nittun etxean gurasoak, ta geo nittun beste hiru izebak, bi izeba ta osaba bat, ta haikin gaizki etortzen nintzen. Haik denda zuen, ta nik, nik hemezortzi urtetako "titulo profesor mercantil" banun, asike nere denboran estudioak onak izandu dittut nik. Horregatik erderaz gehien gustatzen zat mintzatzea euskeraz baiño. Baiño urte haik joan ziren, ta ze esatera nijoan, ahaztu itten baitzaizkit.
- Maristekin, gogorak ziran Maristak?
- Bai, bai, bai, geo beste kolegioa, geo ezkondu nintzen, urte nittun ezkondu nintzenen kotxe berria erosi nun, ta joan nintzen zeara, ordun ezkondu nintzen urte hartan.

2.4. Autoarekin anbulantzia-lanak egiten

- **Hizlaria(k):** Garciarena Belaunzaran, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-002/006
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:08:05. **Bukatu:** 00:09:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena:** Autoa erosi zuenean, ez zegoen anbulantziarik. Eta berak egin behar izan zuen zerbitzu hori. Berastegiko 4. autoa izan zen berea.

Transkripzioa

- Kotxea primaberan ekarri ta esango dizut kotxe harekin ze pasatzen zitzatan. Kotxea "citroen cuatro chapas" esaten zien haietako gendun, nun nik. Eta hemen ordun anbulantzik eta ez zan, ta beti batek ematen zittun kotxe bat bazan, ta harek ematen zittun. Ta "nik [...] kotxe "cuatro chapas" izango det, baiño hemendik aurrera lan hau dena hitzako" ta. Baiño ordun'e mangoneo izaten zan. Hemengo atzena ein zun serbizioa nere kinto lagunea, ta haren semearena eingo zun, "bueno, hemendik aurrera serbizio denak hitzako". Ta hala, ta eman zidan, bueno, hau ordun, klaro, anbulantzik ez zan ta serbizio "ahí" ta han paper bat betetzen zan han, ta paper harekin gero kobratu itten zendun. Ta ni astero joaten nintzan asten bi aldiz igual hemengo laugarren kotxea zan Berastegin.

2.5. Eskolan 12 urtera arte

- **Hizlaria(k)**: Yeregi Aranalde, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-004/002
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:01:32. **Bukatu**: 00:02:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Diaz, Josu
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: 12 urte izan arte, eskolara joan zen. Eta gerora, gaueko eskolara joaten zen. Orduan 7 urterekin hasten zen eskolan. Mutilak eta neskak aparte egoten ziren klasean. Gerraostean, ez zuten zorte handirik izan maisuekin.

Transkripzioa

- Eta hamabi urtera arte eskolara ta joango ziñan, ez?
- Eskola hamabi urte arte bai, baiño hamabi urtetik aurrera gabeko eskola.
- A bai?
- Egunez lanean aitzen nitzen ta negun gabeko eskola ematen zigun [...] ta gabeko eskola. Eskolan ez genun asko ikasi, gogorik ez gendun ta, badakizu.
- Gabeko eskolan hasi aurretik hemen ibili ziñan plazan?
- Bai, herrin, bai, herrin.
- Zenbat urtekin hasi ziñan eskola?
- Eskolan? Ordun zazpi urtekin eo hasten zan. Bai, maisu, mutillentzako maisu bat izaten zan ta maistrantzako beste bat.
- Neskentzako?
- Neskantzako aparte beste maistra bat izaten zan, bai. Guk ez gendun maisukin suerte handirik izandu; gerra ordun ni eskolan hasi ta belaxe hasi zan, ta maisu asko kanbiatu zizkiguen guri. Gure aurrekoak aittek eta hoik, hoik sekulako eskola hartu zuen, hemen maisu bat oso ona egokittu zitzairen, ta sekulako eskola eman zien. Baiño gu oso, urtebete ez zuen itten, kanbiatu itten zien maisuk asko ta ez gendun asko. Gogoa're gutxi ta, badakizu, geo maisuk'e halamouzkoak izaten giñun ta [...] hola...

2.6. Eskolatik kanpo pozik

- **Hizlaria(k):** Yeregi Aranalde, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-004/003
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:02:48. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolan erdaraz izaten ziren. Eta beraiek erdaraz ez zekiten. Ez zuten denbora asko ematen eskolan, kanpoan gusturago egoten baitziren.

Transkripzioa

- Ta eskolak ze izaten zian euskaraz edo erdaraz?
- Bai, euskaraz.
- [Emakumea] Erderaz.
- Erderaz ordun.
- [Emakumea] Erderaz hitzik maisuk ez zekien euskeraz ta.
- Batzuk, erdaraz, izan bai ordun.
- Kanpotarrak izaten ziran?
- Bai, bai, kanpokoak, bai, kanpokoak. Erderaz ta guk erderaz ez genekin ta gero gutxi joan. Hola eskola gutxi hartu gendun guk oso.
- Gutxi joaten ziñeten ze etxian lanak egoten zialako edo bestela?
- E?
- Gutxi, denbora gutxi esan nahi duzu.
- Bai, bai, etxekoak bidaldutzen giñuen ahal dan guztin. Baiño baakizu, geo uda etortzen zanen izaten zan batzutan behien aurren ibili behar zendula besten ez dakit zer egin behar zendula. Hor aittonan ta osaban etxean joan behar izaten gendun, ta hemen auzotan'e bai askotan, ta haitan pozikio ibiltzen giñen gu zeatzen baiño eskolan baiño.
- Eskolan baiño?
- Bai. Guk eskola ikasi genduna gabeko eskola pixka bat ikasi gendun, eskola ez degu guk asko. Geo letzeko ta're afizio gutxi izandu dut nik beti, ez det hola afizioik izandu. Horrek'e asko itten du.

2.7. Gau-eskola

- **Hizlaria(k):** Yeregi Aranalde, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-004/004
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:03:55. **Bukatu:** 00:05:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena:** Gau-eskola herrian bertan ikasten zuen, udaletxean. Egunez umeekin egoten zen maisuak ematen zien klase. Jende ugari joaten zen gau-eskolara. Han gehixeago ikasi zuten. Ez du gogoratzen maisuaren izena.

Transkripzioa

- Ta gabeko eskolan hemen herrian bertan?
- Bai, bai, herrin bertan, bai.
- [EMAKUMEA] Udaletxen.
- Bai, bai, eskola egunez ematen zuen tokin bertan udaletxen.
- Eta hor maisua beti berdiña euki zendun edo?
- Zean zegona, egunez zegoena, egunez zegon maisue, umekin ta zegoan maisuek gaben ematen zun, harek ematen zun. Negu parten ematen zun e? Negun ba ez dakit zenbat hillebete, bost hillebete eo, sei eo, zean ematen ziun [...]. Ordun egunez ez baizan, gutxi joaten giñen, jende guztik lan ein behar izaten gendun. Mutil koskorak ez zian oain bezela libratzen, batea ta bestea dana lanea. Ta horrengatik, badakizu, gaben ya lana librexeo nola izaten baitzan. Gaben koadrilla handia ibiltzen giñen e! Mutillek hamasei ta hamazazpi ta hemezortzi urte ia soldadu joan arteko mutillek izaten zien ta.
- Koadrilla orduan?
- Bai, ordun.
- Ta hor ya gehitxoago ikasi zenduten ez? Ya gau eskolan.
- Bai, gabeko eskola.
- Ze ikasten zenduen, matematika edo?
- Denatatiken zeozer, eskribitzen ta leetzen ta zeozer beñipin pixkat kontuk ateratzen ta hola zeozer, bai.
- Zein zan maisua edo zein...?
- [EMAKUMEA] Ez al zea akordatzen zer zun izena maisuk?
- Uf, ez, ez, ya memoria asko joan zait nei, ya oso memoria bajatzen ari zait.

2.8. Behien aurrean lanean

- **Hizlaria(k):** Yeregi Aranalde, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-004/006
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:06:57. **Bukatu:** 00:08:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Baserrietan non eta nola egiten zuten lan azaltzen du. Behien aurrean ibiltzeko umeak eskatzen zituzten gehienbat. Ume batek behien aurrean ez ibiltzeagatik egindakoa kontatzen dute.

Transkripzioa

- Eta esan duzu behien aurrean eta ibili behar izaten ziñatela...
- Bai, Jesus.
- Baiña zuek hemen ez zekazuen ez?
- Hemen ez, baiña auzoan han osaban etxen elizen ondoan bizittu zien aittona ta osaba, ta haikin. Ta gero hemen auzo hotan, auzo hotan askotan zeatzen giñen.
- [EMAKUMEA] Honen etxen, honen etxen aittona hau, aman aitte hau zuen, ta hau itsue ta honen semekin ta, han elizen ondoan, haik bai...

- Ta hemen ondoko baserri hota're bai. Gu koadrilla handia nola baigiñen gaztek hola giñenai deitzen zigun itzulen, udan, primabera parten beñipin bai, launtzeko bai, launtzeko bai. Baserritan asko ibili behar izaten gendun, garaie etortzen zanen, ba, baten ta besten, hola. Ordun zelai hok denak laboreak izaten zien; oain belar daude, baiño dena behiekin eitten zan, ta behien aurren ibiltzeko umek nahi izaten zittuen, ta hemen ume asko nola nola baigiñen, baten batea ta besten bestea, ta garaien beti izaten gendun.

- [EMAKUMEA] Felik esaten o, baserri batea jun omen zan, ta ez omen zun ibili nahi haik behiekin, ta sekuleko tripeko miñe jarri zitzaiola, Eibarko estankon bizi danak, sekuleko tripeko miñe jarri zitzaiola, ta gaixo zegola, ta negarrez jarri omen zan, ta etxea...

- Behien aurrean ez ibiltzeagatik?

- Ez ibiltzeagatiken. Bai, bai, ordun etxe askotan ibili behar izaten genun guk hemen e? Bai, etxe askotan ibiltzen giñen. Ordun denatan baserri hoitan denatan nola zien behiek, ta denatan laborea asko eitten zuen, ta bea famili ttikiago, bea handiago bazuen ba umek hola zeбен tokitatiken deitzen zigurean...

2.9. Sorginak auzoan

- **Hizlaria(k):** Yeregi Aranalde, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-004/048
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:58:37. **Bukatu:** 00:59:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Sorginak izan omen ziren auzoan. Baina azkenean semearen gaiztakeria izan zen.

Transkripzioa

- Ta hemen bestela holan, sorgin konturik eta entzun izan dozue? Gurasoeri eta?

- Bai, sorgiñek izan izandu die, hementxe auzoan. Hor badao etxe zahar, txabola zahar bat. Ta hor zien aitton-amona batzuk bizitzen zien. Ta zuen mutille gazte bat, seme bat, hola tipo hoitakua zan. Ta harek itten zien sekulako sorginkerik itten zizkien hairi. Harri koskorrak bota ta, tximinitik zea bota ta... sorgiña zala, ta haik ibiltzen zien sekulako komeritan, hor ibiltzen zien. Ta eun baten holaxe ikeatu seko, bi zaharrak zien, ta gure aitte zanai esan zien. Ta hoyek ez deikela izan, ta aitta jua ta seittun harrapatu zien, nola botatzen zizkion, ta ordun zeatu zan geo "Sorgiña" esaten zien.

- Eurak pentsatzen zaben sorgiña zala?

- Bai, beak bai.

- Ta zein zan, semia?

- Semea!

- A bai?

- Semea, zeatzen ziena, gaiztakerik itten zizkiena.

- Ta gurasoak bildurtuta?
- Hombre, oso ikeatuta e! Seko ikeatuta. Tximinitiken harri koskorrak eta botata, ta beste aldea gaiñea, bi zaharrak, ta haiei aixa botatzen zizkien, zeudela diximuloan. Ta bestek sorgiñek diela ta hola. Zelebre hoitakoa zan e? Semea, mutille, oso zelebrea zan.

2.10. Eskola garaiko oroitzapenak

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Nazabal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-006/011
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:14:35. **Bukatu:** 00:16:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena:** Eskolan oso maisu ona izan zuen. Ez zuen eskola egun askotan galdu behar izan, baserriko lanak senideei tokatzen zitzaizkielako normalean. 12-13 urterekin eskola utzi behar izan zuenean, pena hartu zuen. Maisu bakarra zuten, eta zer ikasten zuten azaltzen du. Koadernoak bazuten ariketak egiteko.

Transkripzioa

- Eta eskolan zein zan maixua?
- Don Elias Azpiazu Gorosabel, mundu hontan izandu dan maixuik hobena.
- Bai e? Askok ikasten zenduen orduan? Askok ikasten zenduen berakin?
- Askok... ze esango dizut? Ni eskola garaian itulea... Itulea zer dan ba al dakizu? Behien aurren soroan ta ibiltzea. Bueno, bale, hoi baldin bazan, gelditzen, gelditu arazten niñuen egun batzutan; baiño gaiñekoan ni eskola beti joan behar izaten nun. Anaiak joaten ez bazien, anaiak ardik eta gehio galazten zien. Baiño nik bakar-bakarrak bada're, joan in ber izaten nun. Ta azkeneako, gelditzeko, gelditzeko tenorea etorri zanez, ez dakit hamahiru urte hamabi o zenbat nittun, gelditzeko tenorea etorri zanen, pena nun: ez nun nahi geldittu. Ikasi in nahi nun gehio, baiño... dirue.
- Hamabi urte arte ikasi zendun orduan eskolan?
- Bai, bai, bai.
- Ze ikasten zenduen, danetik? Maixuakin danetik ikasten zenduen?
- Bai, maixu bat, maixu batekin, bakarrakin, guk ez gendun besteik iñor izandu. Ta "sumar, restar", ta "multiplicar", ta "dividir", ta geo problemak'e bai, ta ortografia're pixko bat bai ta... Ez nintzen ikasleiken txarrena izango, maixuak maitte izaten niñun, bai.
- Eta libururik eta erabiltzen zenduten? Libururik erabiltzen zenduten? Liburuak edo koadernoak edo erabiltzen zenduen?
- Bai, koadernoak, han bertan eskribitzeko ta etxen operazioak eta in ber baldin bazuen koadernoak etxea. Ta geo hurrungo egunen maixugana ta maixu beak ikusten zittun danak e? Hark besteei ez zion ezer uzten hortako, bai.
- Eta gero ez ziñan ibili, orduan hamabi urtera arte eskolan...?
- Hamabi-hamahiru nittun, ez dakit, baiño bai, ez, ez, geoztiken etxen lanen, basarri-lana.

2.11. Mutil azkarra izanda, apaiz sartzeko animatzen helduek

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Nazabal, Joakin ; Azpiroz Nazabal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-006/021
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:27:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Behin errainak koaderno eta boligrafoa ekarri zizkion idatz zezan. Joxe oso azkarra izan da beti, eta apaiz sar zedin animatzen zuten batzuek.

Transkripzioa

-Halako baten erraiñek blok bat ekarri zian eta. Blok bakarra ez, boligrafoa ere bai ekarri zian. Nik txikitandik eskribitzeko afizioa izan dut beti. Kartak eskribitzen eta. Basotako administradore egondu nitzen, eta ni eskribitu errex.

-Hau txiki-txikitandik... Gu zortzi anai-arreba giñen baiño denok baiño azkarrara zan. Maixu zarra, oso ona gendun guk maixue. Sobresaliente para todo. Apaiz egiñarazi nahi zun, apaiz egiñarazi nahi zun.

-Izebak, bai.

-Izebak ez, maixuk.

-Ez. Maixue ta erretorea etorri emen hittuen honea, edozein karrera ikasi nezakela ta. Izoba, apaizak'e bai, gure izobak'e apaiz izatea nahi zin, baiño osabak[...], apaiz itten bada hemengo etxeok galduko dizkik. Ta batere akordatu gabe, nik ez dakit, urtek joan zien eta bate akordatu gabe hemen geldittu nintzen.

-Baakizu zer pasatzen dan, bizimodue beti dijoan heiñen beti abanzatzen juaten da. Lehengo kontuek eta beti berrie, beti berrie sartu itten da eta. Hola juaten die lengo gauza asko apreziatu gabe, desaparezidu holaxe itten die.

2.12. Medikuntzako aurrerapenak

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Nazabal, Joakin ; Azpiroz Nazabal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-006/036
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:49:54. **Bukatu:** 00:50:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikak eta sasimedikuak
- **Laburpena:** Lehen jendea azkarrago zahartzen zen. Medikak baten esanetan, gerra garaian izan ziren aurrerapen gehien medikuntzan.

Transkripzioa

- Orduko orduan jendea azkarra zahartzen zan oain baiño askoz'e.

- Bizimodu gogorragoa edo?
 - Ez dakit. Geo botikerik ez.
 - Gure aitte hirurogeita hamasei urtekin hille deu, baiño oso zahartuta.
 - Raroa zan ez?
 - Oso zahartuta.
 - Klaro, botikarik ez eta...
 - Bai, bai, botikak eta're bazien, baiño...
 - Ez.
 - Txikitatik lan nekatue.
 - Don Juanek esan izango zien, gure meikue, izandu zala, oaintxe hille da Donostin, don Juan, bai; ta hark esan izandu zian gerra denboran izandu zala sanidaden adelantoiken gehiena. Probatu in behar "hau hola, hoi hola, ta bestea hola", ta probatu in behar ta gauza asko ondo atera ziela ta belaxe penizilina laixter sortu zien, geroxeo, baiño bai, sortu zien.

2.13. Soldadutza "amaigabea"

- **Hizlaria(k)**: Azpiroz Nazabal, Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-006/041
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:58:30. **Bukatu**: 01:00:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena**: Soldadutza bukatutakoan, 1943an berriro mobilizatu zituzten. Afrikan zegoela, gaixotu eta hilabete bateko baimena eman zioten etxera itzultzeko. Soldadu zegoen bitartean, aitak 20 duro bidaltzen zizkion hilero.

Transkripzioa

- Ta lizentziatu ta "el año cuarenta y tres", gu handik kuarentaidosen etorri giñen lizentziatuta, eta "el año cuarenta y tres" mobilizatu in giñuen berriz, ta Zestona eraman giñuen, ta han in nun nik beste urtebete exkaxa, hamaika hillebete.
 - Bai e? Artean be berriz?
 - Hue, hue zer zan! Guk, garbi esanda, guk sekulan gehio libratuko giñenik pentsatzen ez gendula, ta esan dizut ba, zazpi urte herriko pestaik ezautu gabe e?
 - Bai, bai, eta Afrikatik gaiñera ez ziñaten etorriko...
 - Behin etorri nintzen ni: pleuresia harrapatu nun han, ta pleuresia harrapatu nunen, sei hillebeteko konbalezentzia eman ziaten.
 - A bai e? Orduan, sei hillabeterako hona.
 - Bai. Sei... Ez! Sei hillebeteko ez, hillebeteko konbalezenzia eman ziaren. Ta hala're etorri nintzen. Eta ondo, han eukitzen det, gero joan in behar, ta Tolosako estazioa jun nintzen, lista de markak eta beak patua izaten gendun. Orejako Juan de [...] apaiza Tolosako estazioan: "nora zoaz, gazte?" ta "hola ta hola noa, Madride ta handikan Afrika". Ta pentsa zak noizko kontuk, bueno, negar itteko gogua ematen die.
 - Ta biaje gogorra gaiñera hemendik Afrikaraiño, ez? Tolosa...
 - Gu, bakizu, jarri, jarri itten da persona, datorrena datorrela, ta era bat urtetan jarri itten da persona, ohittu, ta noizpaitte aillatuko al dala beste aldekoa ta hortxe pasa gendun. Oain askok izaten ez duena: nik lehen'e

esan det ta gure aittek, gure aittek, nik ez dakit nondik eo nola, baiña hillero hoge duro. Ta hillero hoge duro garai hartan semiai soldadu zegonai bialtzeko ez dakit nik nundik eo nola, baiña hark bialdu itten zian nei. Bai.

2.14. Eskolako giroa

- **Hizlaria(k):** Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-009/006
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:04:02. **Bukatu:** 00:05:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolara askotan joaten zen taloa lurreko suan eginda. Lurreko su nolakoa zen azaltzen du. Eskolara joaten zirenean, Cara al Sol abestu behar izaten zuten. Klasean ikasle gehiegi zeuden. Gerraostean hasi zen eskolan. Fundamentu gutxiarekin joan zen eskolara, etxeko arazoengatik.

Transkripzioa

- Ni askotan joan nintzen eskolara taloa neonekin, zortzi-bedeatzi urtetako kontua esaten dizut e? Taloa neonekin, erre, lurreko sue, lurreko sue ez zendun ikusi egingo zuk segur asko, lurreko su baten, hantxe hautsetan pixko bat zikindu ta...

- Lurrean sua einda?

- Bai, sue zan bere tximinikin ta bere...

- Baiño hori etxean.

- Etxen.

- Zuek sukaldean zeukazuen sua lurrean?

- Bai, lurrekoa bai, ta han taloak erre puska emateko beste jan. Esnea izaten gendun baizik hoixe, esnea bai, ta eskolara eo ahal zan tokia, bueno... Ba komeria baten ibiltzen [...] gu txikitan. Eskola joaten giñenean ere, orduko eskola zan, eskolara joan ta lehendabiziko 'Cara al Sol' kantatzen. Ta orduko zeak, eta igual berrogeita hamar ume igual o berrogei o, dena batera eskola...

- Neska ta mutil denak batera?

- Neska-mutil ez gendun eskolik. Ikasi gendun pixke, bueno...

- Klaro, ze zu eskolan hasiko ziñan gerraostean, ezta?

- Bai ba, bai ba, bai ba. Sei urte baiño lehen iñor ez zan joaten gaiña, geo, geo hasi zan. Ta geo aitte hil eta geratu giñan iñorre gabe eta ezerre gabe, fulamenturik gabe, ta hortxe...

- Eskolara gutxi.

- Gu eskolara oso gutxi, eskolara gutxi, esaten diet oain, hodi esaten diet nik semei ta "zuek, zuek bezela eskolara izan banu nik modua joateko abogadu izango ninduen". Matematikatan dana oso aisa aitzen nintzen, bai, bai.

2.15. Txikitako gaiztakeriak

- **Hizlaria(k):** Lizartza Esnaola, Lucio

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-009/008
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:06:58. **Bukatu**: 00:07:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Diaz, Josu
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Nagusiak tinbre bidez jotzen zien morroiei. Luziok tinbrea puskatu zuen ez gehiago horrela deitzeko. Eta gero komeriak.

Transkripzioa

- Baiño gaixtoa're, pixkot gaixtotiken'e banun nik.
- A bai?
- Bai, han hoi Lizarra da Lizarra baserrie, ta han morroiai nausik tinbrea jotzen zien jekitzeko habitaziora, bai, habitaziora bai; ta ni morroiak alde inda geratu nintzenen, pentsatu nun, nei'e tinbrea jotzen, ta pentsatu nun "tinbrea? Ez zidak jo ber nei gehio honek tinbre honek, eta zerbait ein behar diot", baiño tonto hutse. Jats nun atek muelle zun atzetiken, jo nun makillakin, ta jata dena txikitu tinbrea, ta nagusin ta aurren, ate aurren potekan tinbrea joan zan. Han ikusi nittun komerik geo...
- Geo ze, errita?
- Buff, buff, bueno, hola...

2.16. Donostian arotz-lanetan

- **Hizlaria(k)**: Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-009/009
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:07:55. **Bukatu**: 00:09:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Diaz, Josu
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Lan desberdin asko egin zituen, eta gerora Donostiara joan zen lanera, arotz. Baina bronkioetako arazoa zuenez, utzi egin behar izan zuen lan hura.

Transkripzioa

- Geo holaxe pixkana-pixkana hasi ginen geo lantokikin, baten igeltsero batzuei laguntzen, beste batzutan zeozer hola. Beno, Donostiara're joan nitzen igeltsero, anaia zaharra igeltsero joan zan Donostiaa ta ni ere joan nintzen Donosti... Rekondo, Casa Rekondo aitzea izango dezu, Igeldo iyoeran dago, restaurante bat dago. Han hamar behi zien eo hamaika-eo dana dala, ta behiek-eta jetzi ta bokadillo hartu ta lanea. Amaran lehendabiziko etxea karrille bat zan Amaran aurren, Hernani edo ez dakit nora joaten zen trena hue. Baina Amaran lehendabiziko etxen obran arittu giñen gu. Bai, han obran arittu ginen, baino gaizki pasatzen nun oso, ta medikutan ta medikuk esan zianen: "Zu [...] oso lan gogorra daukezu. Ta igel ofizio hortan beti gaizki ibilliko zera".
- Nondik ibiltzen ziñen gaizki?

- Bronkiok, bronkiotatikan gaizki ibiltzen nintzen ta alde in ta etxera etorri [nittuen].

2.17. Neskatan

- **Hizlaria(k):** Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-009/013
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:14:29. **Bukatu:** 00:15:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Emaztearekin hasi zenekoa kontatzen du. Ze trikimailu erabiltzen zituzten gustuko neska etxera laguntzeko. Dantza soltean ibili behar izaten zuten. Debekatuta zegoen dantza lotua.

Transkripzioa

- Honek oain andrea [deten] honek han egiten zun lana, beno lehen ezagutzen nun, baiño honekin hasi nintzen pixkat zerbaiten, ez dakit nik zergatik edo nola hasi nintzen arrastorik ez. Ordun hemen soiñu izaten genun igandero inbalido bat etortzen zan, soiñua harek jotzen zun, ta dantzan ta suelton, baiño pixkat ibili ta hola ta baten batek laguntzera jun nahi baldin bazun, soiñu geratzeko igual esaten giñun zeai: “Bueno, ni neska horrengana joaten naizenen, zuk soiñua geratu ta hori geratzen denen ni berarekin joango naiz” ta hola.

- Hitz eginda ordun.

- Soiñujolekin hitz eginda. Soiñujoleakin hitz eginda. Nik ez nun askotan egin ta, baiño hola.

- Eta neri atzo esan zidaten, baiñan neska bakoitzeko igual hiru mutil egoten zirala zain.

- Bai, zu neskakin geratzen ziñen, baiño han bazterren beste bi hiru igual zen ta zu neska helduta ez baziñen, habitzen “raaa” harek igual heltzen zion ta aurrexeago joan ta apeiza-ta han zeuden zai aber. Beno.

-Konpetentzia gogorra.

- Buu txarra, txarra.

- Ta dantza sueltoan.

- Suelto, suelto.

- Agarrauan ez?

- Ez zen uzten gaiñea agarrau eiten, suelto.

2.18. Soldadutzako bizimodua

- **Hizlaria(k):** Lecea Iparragirre, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-011/003
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:02:39. **Bukatu:** 00:04:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Pedrok urte eta erdi pasa zuen Tetuanen soldadutzan. Sukaldean egiten zuen lan, eta jatekoa nahikoa izaten zuten. Hara egindako joan-etorriak azaltzen ditu.

Transkripzioa

- Zu Afrikan egon zifan, orduan?
- Afrikan egondu naiz, bai, urte ta erdi han pasa nittun Afrikan, moro tarten, moroan tarten hantxe.
- Nun egon zifan?
- Tetuan.
- Tetuanen e!
- Bai, bai. Ordun bazeuken Espaiñik, geo utzi zun, baiño ordun bazegoen Espaiñi bazegoen ordun, gu giñen zinkuentaiunon joan ta dosen etorri, bai.
- Ta ze moduzko bizimodua han Afrikan?
- Han? Hantxe, berotzen zun puxka bat, baiño lan puxka bat ein behar nik izaten nun, arrantxeriko lana hartu eman ziguen guri ta arrantxerin aitzen giñan, kozina edo arrantxua prepaatzen soldadu, bai. Ta hoixe, lan hoixe. Urtebete pasa hartantxen in gendun, [...] baiño tripea ondo betetzen gendun ta segi, aguanta.
- Bai? Jatekua ta nahikua?
- Bai, bai, jateko izaten gendun ta ondo izaten giñen. Geo ez giñen behin'e permisoakin ta're ez giñen etorri behin'e, ya lizentziatua bezela etorri giñen, berriz atzera eramazi giñuen e. Etorri ya lizentziatuta bezela etorri, baiño atzera berriz eramazi in giñuen, ta hillabete hantxe egin gendun ezer egin gabe hantxe. Ta buelta atzea, hemezortzi hillebete egin ta etxea. Ta hola.
- Han egon bakarrik, ez? Zeregiñik ezer ez...
- Ez, ezer ez, ezer ez, azkeneko hillabeten ezta ezer'e, ez serbiziozik eta ez kozinana beandu; "joan" esaten ziguen, baiño ez giñen joaten. Ez, ez, hantxe paseatu ta egon, ta denboa ezin pasa, hue luzea zan denboa ezin pasa, hue luzea, denboa asko, [...] denboa luzea, bai.

2.19. Eskolako oroitzapenak

- **Hizlaria(k):** Garciarena Arregi, Jose Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-012/005
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:06:38. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Ganadu asko izaten zuten txikia zenean. Eskolan, zazpi urterekin hasi zen. Baserrian zer lan egiten zituen kontatzen du. Baserrian lan egiteagatik, eskola asko galdu zuen, eta 11 urterako utzi eskola utzi egin zuen. Gerora, gau-eskolan ikasi zuen. Han izandako maisu bati buruz hitz egiten du. Plazako eskolan ikasi zuen, mutilak eta neskak bereizita. Gerra denboran ere eskolara joaten ziren. Maisu gaiztoa izan zuen garai hartan.

Transkripzioa

- Eta zu mutikoa ziñanean hemen ganadua ta eukiko zenduen etxean, ez?
- Bai, bai, ganaue garai haietan ganau asko eukitzen gendun: sei-zazpi bat behi, ehun arditik gora, ehun arditik gora, beste dozena erdi bat behor. Hoik hoik ganau hoik izaten giñun; geo ikuillun zerrik ta oilok ta, hoik'e bai, bai, ardik
- Konejurik eta?
- Koneju... ordun ez, oain bai izaten dittugu, ordun ez, oain bai bauzkegu. Ta geo dirurik ez zan ta, eskolan'e berandu samar hasi zazpi urtekin eo hasi nintzen, ta geo primabera etortzen zan ta itzulera behien aurren soroa banetzen behien aurrea batzutan; geo ardizai joateko oain alanbreakin da ixten ditteu ixturekin itten deu, baiño ordun ez alanbre...dirurik ez zan ta. Ta ardizai ta, nik eskola oso pobrea hartu nun, oso pobrea zeatu nintzen. Ya hamaika-hamabi urtekin geratu nintzen gaiñea, ordun aixa geatzen zan eskolatik, baiño geo gabeko eskola esaten giñun, gauen bi ordu sartzen nittun, hemen sartzen giñun hemen Oiñetaberriko apaiz batekin ikasi nun nik eskola, Don Victor izena zun, Labaien Don Victor Labaien. Haretzekintxe gabeko eskola nik eskola pixko bat hartu nun, bai, gauen. Goor jartzen zitzagun e! Harek ondo hitz ingo zizun, zeatuko zizun baiño eskolan ari giñanen gogor itten zigun, bai gogor ta hantxe ikasi nun nik eskola, bai hantxe, bai...
- Orduan lelengo zazpi urtekin eta plazan ibiliko ziñan, ez?
- Bai plazan aiuntamenduko goi hortan: neskak alde batetik ta gizonezkoak, bai mutillek, beste aldetik ibiltzen giñen.
- Eta zuk, klaro, zazpi urtekin hasi ta gerra etorriko zan segituan, ta gerra denboran ere eskolara joaten ziñeten?
- Bai, bai, gerra denboran'e joaten giñen; maisu hankamotz bat gendun. Gaiztoa e! Bai, garbi esango det, gaiztoa, geok'e hala izango giñen baiña gaiztoa. Hola makille luxe bat ibiltzen zun mehe bat oholan giseko ohola zera bat, ta behatzak hola jarrita deskuidatzen baziñen tas-tas [hotan] eman, bai.

2.20. Eskolan ikasitakoa

- **Hizlaria(k):** Garciarena Arregi, Jose Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-012/008
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:10:52. **Bukatu:** 00:12:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Eskolako maisu on bati buruz hitz egiten du: nongoa zen, non bizi zen... Zer ikasten zuten azaltzen du. Gau-eskolan gehixeago ikasi zuen. Ez zuten libururik erabiltzen. Etengabe joanez gero eskolara, ikasteko aukera bazenuen. Baina etxean lan egin behar izanez gero, atzean gelditzen zinen.

Transkripzioa

- Eta orduan gero, hori, gau eskolan don Victorrekin ibili ziñan...
- Bai, Don Victor, bai, Labaien, harekin...
- Nun, hemen Berastegin bertan ematen zun?

- Bai, hor kalen ematen ziun, hor kalen bizitzen zan hor etxe baten bizitzen...

- Bertakoa zan?

- Bai, hemengo semea zan, bai. Hoi Itziarren ta hoitan ibili zan baiño gero honera etorrita zegon, bai, hemen zegon, bai, bertako semea.

- Eta ze, ze ikasten zenduen?

- Ikasi, ikasi jartzen zigun: “sumar, restar ta dividir”, hoi, hoi behintzat aurrena ikasten, hoik zeatzen ibiltzen giñen, bai.

- Gau-eskolan igual pixkat gehixeo ikasiko zenduten ez?

- Ikasi nun hantxe ikasi nun nik pixko bat, bai. Gaiñeakuan, “sumar ta restar ta dividir” hoi hoik gue eskolak hoik zian garai hartan, bai.

- Bestela hori, libururik eta erabiltzen zendun?

- Ez, ez, ez. Han kuadernoak eo bai, baiño danak eskolan han uzten giñun e?

- Berak pizarran...?

- Bakoitzak bere... Bai, pizarran, pizarra handi baten berak jartzen zittun ta guk handiken zeatu, bai, bai, handiken.

- Ta bestela ze gehiago: geografia ta holako maparik eta...

- Garai haitan, guk behintzat ez. Guk ez. Oain, eskola pixko bat hartu zuenak, eskola pixko bat hartu zuenak, erabat joaten zana, beti eskola pixko bat bai hartu, erabat. Baiño zu etxen zortzi eunen etxen eon ardizai o behien aurren eo soroa banetzen ta ibiltzeko ta ibili ta geo joateko're gogo gutxio, lagunak aurrera joanak, ta hor diferenteixo izaten zan, bai.

2.21. Gau-eskolan serio ikasten

- **Hizlaria(k):** Garciarena Arregi, Jose Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-012/009
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:12:38. **Bukatu:** 00:13:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena:** Gau-eskolan gehiago ikasi zuen, egunero joaten ziren, eta kontzientziatuago zeuden. Gau-eskola ordaindu egiten zen. Baina plazako eskola publikoa zen.

Transkripzioa

- Gau-eskolan ere, bueno, huts asko itten zendun ala hori gehiao mutiko gazteagotan, ala?

- Ez, ez, ez, gabeko eskolan, gabeko esko... gehio ikasi, burue ere gehixeo ordun zeatu, bai...

- Eta beti joango ziñan ez?

- Bai, eunero, eunero joaten giñen, ordun launbeten e bai e! Ordun launbeten jairik ez zan egitten e! Ordun launbeten eamanazten giñun.

- Ta gaueko eskola hori ordaindu eitzen zan?

- Bai, zenbat ez dauket gogoan, ta ez dakit, ama ibiltzen zan ama, ta ez dizut esango zenbat, baiño ordain... apaiza pagatu eitten gendun, bai, paatu.

- Bestea publikoa izango zan plazakua, ez?

- Bai, plazakoa bai, plazakoa bai, publikoa, plazakoa bai.

2.22. Baserrietara jauna ematera joatean, bidean jendea belaunikatu

- **Hizlaria(k):** Yeregi Aranalde, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-019/012
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:22:55. **Bukatu:** 00:24:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena:** Berastegin ez zegoen ohiturarik baserrietara zerbait bedeinkatzera joateko; bai, ordea, gaixo zeudenei jauna ematera joateko. Okasio horietan farola eta kanpaitxoak eskuan zutela joaten ziren apaizarekin eta bidean jendea belaunikatu egiten zen. Behin baserritar bat topatu zuten bidean: bere behiekin zihoan eta bidea lokaztuta zegoenez, ez zen belaunikatu; apaizak belaunikatzeko agindu zion eta baserritarra belaunikatu zen, baina ez zen gehiago elizara joan.

Transkripzioa

- Eta bestela hemen bazan ohiturarik baserritara ta joateko bedeinkatzera, zerbait bedeinkatzera edo...?
- Ez, ez.
- Zuek beti elizan egoten ziñaten, ez ziñaten joaten iñoiz apaizekin, ba...
- Jauna ematera bai.
- Bai?
- Jauna ematera, bai, asko. Zea, gaixo zeudenak eta zea hointzako jauna ematea gu juten giñen, askotan bi monagillo izaten giñen, ta igual bi meza lagundu o goizen, ta bat gelditzen zan beste bi meza laguntzen, ta beste monagilloa joaten zan apaizakin jaune partitzea gaixoi.
- Etxera eramaten ziren?
- Bai, jauna etxea ematen zitzaion, ba, ezinduta zegonai, eliza joateko ezinduta zegonai etxea ematen zitzaion; ta gu juten giñen, monagilloak juten giñen kandela, zea, farola baten kandela, ta besten kanpana, kanpanille bat, ta elizan eo biden tan-tan-tan kanpanilla joaz joaten giñen. Ta ordun baten bat biden kruzutzen bazan, ba hue lurren belaunikatzen zan.
- A bai e?
- Bai, hue lurren bedeinkatzen... hue beharko, busti bazeguan ez baldin bazeguan...
- Belaunikatu in ber?
- Belaunikatu in ber izaten zan. Hemen kaso bat kontatzen due bat zea bazihoala jaune, nik esan detena gaixo baten zea ta hemengo baserritar bat zeakin, behiekin, emen zatorren. Ta lokatza, zuek ez dakit lokatza ze...
- Bai, lokatza.
- Lokatza, lokatza emen zegon haundie pare hartan ta zeak, baserritarrak, txapela kendu ta jarri emen zan, baiño belauniko ez jartzen; ta apaizak belaunikatzeko ta lurren lokatza zeon, ta ezetz, belaunikatzeko ta belaunikatzeko ta belaunikatu omen zan, baiña ez emen zan gehio elizea jun.

2.23. Gurpilik gabe aurrera

- **Hizlaria(k):** Iparragirre Intxaurrondo, Xinfo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-020/009
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:11:12. **Bukatu:** 00:12:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Behin furgonetarekin zihoazela, harri baten kontra txoke egin eta gurpil bat galdu zuten. Frenatu arte, ordea, ez ziren konturatu galeraz.

Transkripzioa

- Eta behin baten gertatu zaiu: hamarrak laurden gutxitan abittu gea handik kamionakin, bea txofer. Ta hor Berrobin ermitte bada San Sebastian, ta San Sebastian handiken behera ai zien obran kamioan, ta baztarretiken zanka o ebakitzen eta harri-pillek eta zeuden kamion. Ta badator sekulako belozidaden ta jotzen du harrin bat eo ta sekulako potek atea zittun kamionak eta aurea [...] zan. Ordun hue, ta pentsa zazu errueda galdu zun han: aurreko ezkerreko rueda galdu eta hala're handiken Kalparsorua ze eongo die? Zortzirehun beatzirehun metro, eta ezta kontuatu're. Ta frenun danborran gaiñien etorri zan kamiona, ezkerreko errueda galduta. Ta horrea aillatu gea, ta geo hor barrua sartu behar patiora, eta porteroa etorri zan atarik jaikitzea. Ta klaro, bolantei geo ezin eman geldittu zanen, han belozidade hartan ekarri zun, baiño geldittu zunen ezin eman bolantei eta "pintxazo zerbaitte badik [...] honek". Eta porteroa zaharra zan Elduaingo bat, Joxe, ta "pintxazoa nola izango dik, ba! Errueda falta dik eta!"

2.24. Soinuarekin dantza lotua ezin

- **Hizlaria(k):** Iparragirre Intxaurrondo, Xinfo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-020/014
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:20:03. **Bukatu:** 00:21:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Lehen, soinua jotzen zuenean, tabernetan kanta eta kanpoan jendeak dantza soltea egiten zuen. Dantza lotua debekatuta zegoen eta hartan harrapatuz gero, kongregaziotik bidali egiten zituzten.

Transkripzioa

- Eta, adibidez, zu soinuakin ta lagundu ta kantatu izan du jendiak, hola

bertsuak eta...?

- Beno, ordun izaten zan dantza, dantza sueltoa. Eta plazatan ta ba dantza sueltoa jotzen zan gehiena. Geo tabernan, bai, kantun ta hola lagunduz ta're bai, tabernatan ta, taberna ezkeo ez da, baiño gaiñeakon ta sueltoa bakarra gaiñea. Ez dena pekatue zan ta. Agarraua pekatue zan, pentsa zazu. Eta emakumek'e pues Marian alabak eo kongregazioa izaten zan ta mutillena San Luis, eta bodan baten eo dantzan ibilli ziela, dantza lotun emakumek eta kongregaziotik atea, ta zinte izaten zuen jauna hartzea joateko, ta zinte hoi kendu ta... Orduko apaizak kriminalak zien.

2.25. Flora, maistra ona

- **Hizlaria(k):** Iparragirre Intxaurrondo, Xinfo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-020/020
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:28:31. **Bukatu:** 00:29:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena:** Behin maistra ona izan zuten eta beste urte guztietan baino gehiago ikasi zuten harekin negu batean. Errespetua zioten, ondo ikasten zuten eta gustura joaten ziren eskolara.

Transkripzioa

- Gero negu baten ibili giñen, hemengo alaba zan ta geo illoba're bai bazun maistrak zienak, plazaik gabe zeen, politikangatik plaza kenduta. Ta hasi zien eskola ematen partikular, ta kuadrille osoa, ta gaiñeako lau urtetan baiño gehio ikasi gendun negu baten harekin. Maistra ona zan, jo, eakusteko ta balio zuna, ta errespetoa ta harekin bai gustoa joaten giñen. Beste etortzen zien bat edo beste maixu eta belaxe alde itten zuen, ta eakusteko batez, makille eskun beti, ta zipli-zapla. Ta osea, haita baiño gustoago joaten giñen ta errespeto haundigo zan emakume hoi, Flora; baiño bai eakutsi're.

2.26. Maisu onak eta bera gaixo

- **Hizlaria(k):** Iparragirre Intxaurrondo, Xinfo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-020/021
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:29:31. **Bukatu:** 00:32:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** 12 urte zituela hankatik operatu behar izan zuten eta urtebete gaizki pasa zuen. Garai horretan Iruñeko maisu ona

egon zen eskolan. Flora ere maistra ona zen eta etxean klase partikularrak ematen zituen.

Transkripzioa

- Geo, pues ni hamabi urte nittula, gaixo geldittu nintzen, hezurre daiñatu, hankeko hezurre, eta operazio txarra in ziaten. Garai hartan ezen adelantoik ez, penizilinaik ez zan arten ta; “guerra europea” ai zula zan... beste, bai, milla ta beatziehuneko berrogeita laugarren urten. Ta urtebete pasa nun gaizki ta orduntxe zan maixu politte hemen, Pamplonako bat, Jose del Hoyo, ta bastante saiatzen zana. Ta ni gutxi ibili nintzen harekin, pena earra eukitzen det, baiña gutxi ibili nintzen. Gaiñekoan ikasteko motiboik ezer ez.
- Bestela Flora horrekin ikasi zendun gehiago orduan.
- Florakin, ikasi genduna Florakin ikasi gendun.
- Ta esan dezu lehen kenduta zeukala titulua, ez?
- Titulue bazun.
- Nazionalista zalako?
- Nazionalista zalako plazaik gabe geatuta zegon, eta bere anaia zegon hemen sekretario: ta hoik, berriz, frankista amorratuk zien, ta hue nazionalista zalako plazarik gabe geratu ber. Ta Etxabe, Etxabetarrak. Ta, pues, holaxe.
- Ta bere etxen ematen zittun klasek?
- Bai, bere etxen. Oain farmazia dagon etxen goien bizi zien ta han ematen zun eskola. Ta ba bi habitazio mahiekin ta banketakin jarri ta dena beteta. Geo illoba ere bazun, Amalia o... Gaztegoa zan baiño ez zan hola diferentzi haundie... ez dakit, illoba esaten zun zala ta hue ere titulua zuna. Ta bik aitzen zien, gaztegoakin ta zaharragoakin ta. Baiño joe, hala pues haik harrapatu izan bagiñun guk beatzi-hamar urtetan, eo zortzitan eo, ta bi o hiru urten ikasiko gendun zerbait geren kaskagorren. Baiño, ezer ez.
- Eta ordaindu itxen zenduezen klase horrek? Ordaindu itxen zan? Florari ordaindu egiten zenioten?
- Bai, ordaindu itten gendun. Uste det hillen hillen bostna euro eo... ordaintzen Flora horri. Oain bestek’e zeozer eman itten zitzaien ta zeozer laguntzen zitzaien maixuei, baiño balio ez zuenak zien asko.

2.27. Herrian galtzak jantzi zituzten lehenengo emakumeak

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Nazabal, Simona
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-022/002
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:00:24. **Bukatu:** 00:03:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
 - Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena:** Simona eta bere familiako beste emakume batzuk izan ziren soroko lanetarako galtzak jantzi zituzten lehenengo emakumeak herrian. Kritika asko jaso zituzten horregatik, baina beraiek erosotasunagatik eta babesagatik janzten zituzten. Apaizak ere haien kontra hitz egiten zuen, baina pixkanaka herriko beste emakumeak ere galtzak janzten hasi ziren.

Transkripzioa

-Gu mendia ibiltzen giñen ba gizonak bezelaxe, berdin-berdin-berdin. Ama izaten gendun etxen, baiño gizonak eitten zun lan guztie eittea juten giñen mendia. Igual izango zen egurrakin, igual izango zan belarrakin, denera ibiltzen giñen mendia. Eta hasten giñenen udazkeneko lanetan, ta garoa gizonak ebakitzen zuen, maille bat eitten zuen, ta guk bildu in ber izaten gendun, ta biltzeko hartzen gendun esku baten itaie, itai honekin azpitik hartzen gendun garoa, eskukin hola kontuz, ta hola bera genekarkila ba iztarran ondoan joaten zan, ez, ta zanko denak eta iztarra denak-eta eukitzen giñun ba dena urratuta. Ta ordun hori ez itteko bonbatxoak, bonbatxoakin ibilli behar huken-eta. Eta anaiak hasi zitzaizkigun hola esaten: "Bai, zaute ixilik, jendek earki hitz eingoik, zea hasiko zeate hor!". Ta behintzat gure mutill hoik animatu giñuen ta gu baita ere, haen galtzak guk ondo giñun, eta bueno, haik jantzitzen giñun eta hasi giñen hola. Hori ez markatzeagatiken.

-Lanerako.

-Lanerako. Baiño giñen gu bakarrik. Aurrenetako bat ni nitzen eta beste bi neekin koiñata ta beste bat neekin ibiltzen zienak, hirurok hasi giñen aurrena hola. Eta, Aintzerga esaten zaio hor atzeko barrio horrei, eta zea hortaa joan giñen baten gizon batek hola pasadizoan esan zion anaiai, Josei, esan zion: "Hpk zer dittuk hok, abioietiken botak al dittue hok holakoak?". "Hik utziek hoiri paken, hoik errespetoz zebiltzek eta", esan zion Josek. "Hik utziek". "Ju-ju-ju", parrea einda joan zan. Baiño aurreneko urte hortan hartu giñuen hola. Ia handik hurrungo urten beste batzuk'e hasi ziela, ta geo hasi ziela bestek, ya geo mendia garo-lanea joaten giñenen behintzat hasi zien denak. Bai, librengo gelditzen giñen. Bestela hankak zabaltzen ziñulako, izterrak azaltzen zielako, kuleroak ikusten zielako, hainbat aldetaa giñen kritikatura soiñekoakin baldin bagebiltzen. Ta apaizak esan zun bezela, galtzak jantzi giñun ba lotsa galdu gendulako. Iruitzen zaizu hori?

-Hori esaten zun apaizak?

-Apaizak esaten... Lotsa galdu gendula hola hasi giñelako, gizonak bezela jazten hasi giñelako. Ni neetzako gauze kuriosoagoa da. Ta gaur bertan'e ikusten dittut nik. Igual ai zea, gu aitzen giñen bezela, oin patata ateatzen aiko giñen, beste baten artoa bakantzen beste baten. Eta zer? Ibiltzen giñun soiñekoangatik kulerotaraiño ikusten giñen dana atzetik. Nik aurrekoa ikusten nun nola joaten zan kulerotaraiño ikusten zala, ta ni halaxe ikusi behar niñun beste batek.

-Makurtutakuan eta.

-Horregatik. Eta erabat makurtuta joaten giñen, biltzen erabat makurtuta. Ta esango diazu nei lotsa galtzea dala tapatuta jartzea? Politteaoa da. Baiño ez zan hola...

-Lanerako komodoagoa.

-Bai, librengo. Ta gutxigo hoztutzen ziñen; nahiz ta busti tapatuago zenden. Defentsa haundie du galtzak. Horregatiken oin hainbeste ikusten dezu galtza. Defensa haundie. Baiña gure garaien izandu zan oso kritikatura, e! Eta apaiz bat txorrontxano bat, Bikendi, gendun, bueno!, harrek sermoira joan eta handik esan itten zittun. Aaa! Eta geo danak guri beire hola. Bakizu ze eoten dan maxiatzeko jendea.

-Herrian denak jakingo zuten...

-Denak zekien zein zien eta bueno, ya está. Hori pasatzen zan, bai.

2.28. Elizara sartzeko janzkerak

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Nazabal, Simona
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-022/006
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:11:05. **Bukatu:** 00:13:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena:** Elizara joateko zer arropa eraman behar izaten zuten azaltzen du. Alargunek beste era batera joan behar izaten zuten. Jaunartzeko janzkerari buruz hitz egiten du. Eskote handi xamarra eramanez gero, elizan jauna hartzea ukatu edota elizatik bidali izan zituztenak baziren.

Transkripzioa

-Lehen esan dezu elizara joateko-ta eskoterik ezin zala eraman, beti goraino itxita.

-Ez, ez. Goraiño itxita.

-Manga lueia bihar izaten zan?

-Bai, bai, bai.

-Manga motza ezin zan?

-Ez, ez, ez, ezin zan. Luzea.

-Luzea, ezin zan, horreaño tapatuta joan behar zendun, ta aparte matanillie eman behar zendun.

-A bai, e?

-Mantanillie ez dakit ezautzen dezun. Da zea bat. Enkaje baten antzeko beltza zan, enkaje bat bezela hartu ta hoi jartzen zendun ta horrekin tapatuta joan behar zendun.

-Burua tapatuta beti?

-Bai, elizea joateko bai. Eta alargunek eta gaiñea hola ibiltzen zuen, guk ibiltzen gendun enkajea antzea, hola lore batzuk-eta zittuela. Hoik ez, hoik tupittu-tupittu, itxi-itxie. Gasan postura itxi-itxiko beltz [...] haundi batzuk goitik beheraño ta juten zanak. Eta alargunek hola ibiltzen zien.

-Danak izaten zien beltzak?

-Bai, bai, bai. Bueno, txurik'e izaten ziela nik'e aittu izandu nun, estilo hortakoak, ez berdiñek baiño komoniotan-ta jartzen zizkien hotan lorekin-ta hola. Baiño ordun dena izaten zan, ordun komunio txikie zazpi urtekin itten gendun, baiño itten gendun baita tapatuta hemen koroia batekin eta hola. Eta komonio haundikoan koroia hoi ez, baiña ordun belo txurie. Bai, belo txurie. Burue eraman behar zendun tapatuta. Ez zeukazun elizea sartzeik, elizea sartu nahi bazenun eta ez bazendun mantal... E, guk esaten giñun bezela..., oaintxe esan det ba baiño ya joan zait.

-Manteliña?

-Bai, bai, bai. Buruko mantaliña. Hori ez baldin bazeukezun besteik ez bada jantzi behar zendun paiñuelo bat. Ez? Patriken zeunkazun paiñuelo bat besteik ez bada; ta harekin atea behar zendun, ta sartu behar zendun elizea. Bai, zan, hain rigurosoa zan.

-Eta gonak?

-Gonak zankereditaraiño. Zankereditaraiño. Honbre! Motxaxeao baldin bazien kritikakua izaten zan hue. Hortiken zean ez zittekeen ibili. Baiño zan, dena zan hola.

-Lehenago esan dezu, puxkat eskote haundiagorekin jun ezkerro jauna

ukatu.

-Bai, jaune ukatu zion, hori da, nik baiño, guk baiño izango zittun lau-bost bat urte gehigo.

-Senarra-Elizetik bialdu're bai. Nik ezautu nun don Andres Bikandi hue hola forasteroak etorri kanpotik, eliza ikustea edo sartu ta: "Ez daukazute sartzeik, ez zaudete elizan sartzeko modun", eta bidaltzen.

-Abai? Nik hoi ez, baiña jaunartzea bai. Nola ni han nitzen. Jaunartzea joan zan [Modestoneko] Maria. Hola eskote bat zea, eta geo bular haundik nola zittun, dibisioa puxkat ikusten zitzaiola ta hola ibiltzen zan kanpoan'e. Aizu ba, ez eman in zion. Bera pasa ta "zuri ez dizut emango eskote horrekin". Aurrea, ez eman in zion. Hoik zien gauz batzuk...

2.29. Kanturako zaletasuna eta gaitasuna

- **Hizlaria(k)**: Saizar Ugartemendia, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-022/019
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:35:11. **Bukatu**: 00:38:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Bixentek umetatik izan du kanturako zaletasuna. Ahots ona zuen umetan, eta ahotsa aldatzen hasi zitzaionean, urtebete egon zen abestu gabe. Gerora abesten jarraitu zuen eta asko estimatzen zuten. Don Pedro organistarekin ikasten zuten kantuan, eta hari buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

-Gustora nun, kantatze hoi gustora nun. Ume-umetatik gaiña beti kantuako gogoa ta ikasteko-ta gogoa nun. Soldauxkan'e bai, soldauxkan'e denak, "benga Bixente, hasi bihar diau kantatzen" beti hola zeatzen zidaten-ta. Tenorra-ta, ni elizan hor ibili naiz erabat. Aurrena monagillo zazpi urtekin hasi nitzen, hamalau urte arte monagillo. Baiño monagillo edo "simonero" esaten diogu guk. Simonero nitzela're, askotan organiste lehengue profesorea, organistek, Don Pedro Ettxeberria gendun, eta harek esaten zion parrokoai, Don Andres horri, "Bixente bial zazu gaur tipleko, gaur Perosi-n meza kantatu behar degu ta, bial zazu Bixente", ta. Ni simonero [jantziekin] gora joan izan nitzen kantatzea. Tiple boza, polite izango nula uste det, ez dakit. Gero ez dakit behintzet, geo kanbioko garaien, boza kanbiatzeko garaie etorri zitzaidan hamalau urtekin, eta mediku bat bazan hemen, Don Tomas Almandoz, bai, hue apaizak pelotakin jo ta hil zun. Ta hue zeon korun. Eta esan zian: "Zu, Bixente, ez dezu kantatu behar, e! Urtebete gutxieneko ixil-ixilik egon behar dezu". Jo, ni geatu in nintzen. Ez nun kantatzen. Harrek esanda, e, geatu nitzen.

-Ahotsa kanbiatu zitzaizulako?

-Bai. Geo etorri zitzaidan, hasi nitzen eta denak harrituta. Buo! Espeziala nula ta espeziala nula. Denak hoixe. Aidean hartu niñuen eta hor ibiltzen nitzen. Bueno! Ni're pozik, eta danak.

-Koruan ibiltzen ziñan?

-Bai, erabat, erabat. Hortxe dauket bastoia. Eman zidan, herrik eman zidan gero zea bat, makille. Fotografiek eta ere asko. Soroa hil zanen, oain hil

zan Soroa pelotarie. Hue kanpeon atea zanean'e mezataa, meza kantatzea gu jun giñen. Ezpeleta, zera, Ezpeleta baserrie zeon hor Elduaiñen. Harea joan giñen eta eskolan eman ziguen bazkarie. Ta eskolan eman ziguen bazkaria, han giñen berastegiarrak; beastegiarrak giñen.

-Berastegi herri txikia izateko koru dezentea zuen.

-Hamabost-hamasei lagun biltzen giñen gu, ta gaiñea oso ondo... Perosin meza hoi ta danak guk kantatzen giñun. Danak, bueno, nik ez dakit baiño, jendea harrituta eoten omen zen. Beastegi herri txiki bat holako korue nola zegoan denak, bai.

-Zeinekin ikasten zenduen kantuan.

-Guk don Pedro organiste.

-Horrekin, Pedro Etxeberria?

-Bai. Haren semea Don Jazinto Antiguan organista urte asko egon zan. Don Jazinto. Geo Bitoriko zaharretxera joan zan. Don Jazinto Etxeberria.

Antiguan egondu zan urte askoan Donostin, eta haik'e harengena Donostia joan zien hemendik bizitzea, Don Pedro Etxeberria hoi. Gui musika eakutsi ziguna zan. Besomotza zan, eskue bat elbarrittue zun eta ezkerakin jotzen zuen ta hankakin organoa.

-Esku batekin bakarrik?

-Bai. Ta harek mezak-eta, Perosin mezak-eta, hankakin. Oain semek'e organistak zien biek'e. Bat Euxebio ta bestea..., bat apaiza ta bestea soiñujotzaillea, Euxebio. Ta bik'e organoa... Manolo Yabenen osaba. Manololo Yaben, askotan, bere illoba zan eta.

2.30. Elizan simonero

- **Hizlaria(k):** Saizar Ugartemendia, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-022/021
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:38:44. **Bukatu:** 00:40:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena:** Elizan simonero (eliz mutil) izan zen, eta zer eginkizun izaten zituen aipatzen du. Meza lehen latinez izaten zen, eta jendeari bizkarra emanda egoten ziren simoneroak.

Transkripzioa

-Elizen hazi gea gu, elizen ibilita behintzet. Ni hala naiz.

-Elizen hazik ez baiño elizaa asko...

-Elize asko junak gu, bueno! Erabat.

-Monagillo esan dezu ibili ziñala?

-Monagillo, ximonero. Hemen esaten zaio simonero.

-Simonero?

-Bai. Simonero.

-Eta zein izaten zan zure lana?

-Apaizai laundu. Bai ta Introitoak lagundu. Hara joan mezetaa ateatzen zanen ondoan jarri. "Adiuturium tuas meas..." hasten zan hue ta guk erantzun hari. "Fiat tu-tu...", oain ahaztuta dauzket. [latinezko pasarte ulertezina]. Ta hurrena... kredoa izaten zan.

-Hori da mezako zea.

-Meza orduan latinez izaten zan?
 -Bai, bai, latinez. Eta atzeaka. Apaizan ondoan makurtu ta lurren, ipurdia jendeai emanda.
 -A, bai, bizkarra emanda jendeari?
 -Bai, bai. Hala izaten zan. Urte askoan, e!
 -Baiña apaiza egoten zan meza ematen bestaldera begira?
 -Bai, aurea begira, aldareai begira. Aldarea. Gu're bai. Ta gaiñea apaizan ondoan holaxe makurtuta. Geo alkitara ateatzen giñen. Baiña hantxe. Eta bueno. Jesus!, gue denboa holaxe jun da.

2.31. Beraiek sortutako familiaren bilakaera

- **Hizlaria(k)**: Azpiroz Nazabal, Simona; Saizar Ugartemendia, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-022/022
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:40:04. **Bukatu**: 00:42:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Ezkondutakoan familia ugaria izan zuten, garai hartan Elizak ez baitzuen uzten familia-plangintza egiten. Simonak bere iritzia ematen du gai horren gainean. Bilobei buruz hitz egiten dute.

Transkripzioa

-Geo, jakiñe, honea etorri giñen-ta gu biok hasi giñen ta familie etorri zan eta familie ugarie, ta eskerrak, eskerrak familie. Aurretiken'e bagiñun ugarik eta guk'e ez gendun ikasi tranpaik, garbi esanda.
 -Apaizak esaten zuen tranparik ez egiteko?
 -(Simona) Honbre! ta ez ziñula absolbittuko. Pekatu haundie zan. Nik bakizu zer dan esaten detena? Nik ezautzen dittut neonek, apaiz asko daude apaizetatik atea ta ezkondu dienak. Baiño ez zapi ta zortzi ume dittuenak! Eeez. Ordun gutzat zan pekatue eta oiangoantzako ez? Nik hoi askotan esan detena da. Aizu, biok bakarrik etorri giñen, baseeri ze hontantxe giñen, hemendik umek mantendu behar giñun, eskolatu behar giñun, ta gu fortzatu iten giñuen ba ekartzea, "jainkoak nahi du" esan eta ekartzea. Baiño oaiñ hortik atea ta jarri dienen, jainkoan nahie haik azaldu in behar lukea!, azaldu, ez gorde.
 -Bueno, bale. ... Behintzat hola, familia haundie, ta familiarrak lagundu ziguelako hementxe atea giñun famili galantakin; oain hementxe bizi gea. Denak bizi die. Zazpi seme-alaba dittieu ta zazpik bizi die. [...] eta abar eta, denak ezkondu zaizkigu, bakoitze bere tokitan bizitzen jarri die, denak ume bana, bina edo hiruna. Batek hiru. Kontxi edo lehen esan dezun horrek, Jabierren zerak hiru dittu. Baiño gaiñeakoak denak biña due.
 -(Simona) Denak sanoak.
 -Eta hamabost illoba, hamasei. Oain gaiñea beste bat deu, seme zarrenak oaiñ izan du bestea, billoba.
 -(Simona) Illoba zaharrenak badu ya.
 -Orduan birramona ta birraittona egin zerate.
 -Bai, hala gaude. Muriko bat zoragarrie, [...], dauzke beatzi hillebete, zoragarria!, rubio-rubioa, baiño dau..., esaten dana, jateko modukoa.

2.32. Besteei laguntzen pozik

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Alda, Katalina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-024/004
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:08:47. **Bukatu:** 00:10:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** Ez du inoiz izan ezkontzeko gogorik. Lan ugari egin izan du besteentzat. Anaia apaizari eta baserriko anaiari lagundu izan die bere bizi guztian.

Transkripzioa

-Nobiorik ba al zenduken?
-Ez, sekula ez nun izan nobioiken. Pretendentek bai. "Así!". Baiño ez nun bokazioik ezkontzeko. Ez nun.
-Pobrek zielako edo?
-Ez. Ni're probrea nitzen.
-Aberatsa etorri bazen igual...
-Ez, ez. Ez nun bokazioik nik ezkontzeko. Ez nun. Jainkoan izenen, iñor etortzen zana praille, monja, debalde eman jaten eta hantxe, lanen. Bai. Ni bizikera huaxe izan zat. Debalde eman. Monjak eta fraillek eta esken zebiltzenai debalde jaten eman.
-Eta gero gabe'e ez zan ordun kotxeik eta denak honen etxea.
-Nee etxea denak lo eitteko.
-Ostatue.
-Eta debalde denai ematen nien. Lana pranko eginda det besteentzako, e. Pozik nao baiño esan nahi nuke lana ere bai.
-Eta ez zendun pentsau monja sartzea?
-Ez. Anaia apaiza zan eta anaia apaizai laguntzea bidezkoa billatu nun, zergatiken haik'e kanpoko emakume bat hartu behar zuen eta apaiza batentzako arreba bezelakoik ez da. "Las cosas como son". Eta anaia apaizakin, hue bizi zan arte. Eta geo hue ejerziziotaa edo juaten zanen, ordun baserria juaten nitzen laguntzea, lanen laguntzea. Baserrin anaia bakarra, ona gendun anaia baserrikoa're, hari laguntzea. Hola bizittu gea, batlak besteai lagunduz. Eta hola.

2.33. Sokasalto eta abestiak

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Alda, Katalina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-024/019
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:33:06. **Bukatu:** 00:34:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- **Laburpena:** Sokasaltoan ibiltzen ziren jolasean, eta orduko kanta bat abesten du.

Transkripzioa

-Eta jolasteko astirik eukitzen zenduen?
 -Bai, soka ibiltzen giñen, soka dantzan. Soka erai eta han saltok ein, eta bai.
 -Zeozer kantau soka?
 -Soka? Bi neska koskor hasten zien eta haik zeatu ta guk han saltoka eitten giñun eta.
 -Kantatuz ala kontatu itten ziñuen?
 -Kantatu're bai. Kantatu're bai. Kantatzeko're afizioa banun-eta.
 -Ta ze kantatzen zan soka?
 -"En la calle de amargura iba la virgen llorando, encontró una mujercita que iba vestida de blanco. Le preguntó mujer cristiana, has visto Jesus amado. Si señora, ya le he visto, por aquí le han pasado. Una cadena arrastrando, de allá las iban tirando, san Juan Y Madalena les iban acompañando. San Juan le dijo a la virgen, caminemos al calvario, caminito, caminito, caminito de la cruz".
 -A, ze politta.
 -Hola. Belaxe ikasten giñun eta garai haitan. Ordun burue argie, oin burugogortuk gaude baiño.

2.34. Valladoliden ikastean burua ireki eta aberastu

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Iztueta, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-026/022
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:54:24. **Bukatu:** 00:56:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- **Laburpena:** Valladolideko ikasketei esker, burua ireki, jantzi eta aberastu zuen. 4 urte eman zituen han: hasieran, egoitza batean; geroago, beste hainbat mutilekin pisua konpartitzen.

Transkripzioa

- Gauz oso neretzat urte hoiek nere bizitzan izandu dien aberatsenak sentidu hortan, burue irikitze ta gauzek planeatzeko ta iñoren morrontzan edozein preziotan ez ibiltzeko ta hor. Neretzako fundamental izandu zan.
 - Ta zenbat denpora in zendun han?
 - Han, lau urte.
 - Bertan egongo ziñan beti ez? Esan nahi dot...
 - Bai, bertan han hemengoak danak hemengoak egoten giñen, bi pisotan bizi giñen azkena. Harea joan ta aurrenen egondu giñen residentzi baten aurreneko kursoa; gero jendea ezautu ta han jendea sortu zan, hemengoak, eta eskola berdiñen ta. Gero jarri giñen piso bat alkilatuta beatzi mutil piso baten bizitzen. Urtea hala in gendun, ta gero hurrengo urten gehiago azaldu zian ta ordun bi pisota zabaldu giñan.
 - Bederatzi mutil piso baten asko izango zan ez?

- Bai, pisa haundi samarra zan, haundi samarra. Bastante... Santiago kalea deitzen zayon baten hantxe; Santiago kaletik ondo-ondon, beste izen bat zun, baiño berta-bertan, zentron ta baldarra baiño piso haundia. Ta hantxe in gendun, geok otorduk eta geok denak itten giñula. Ta gero jende gehio bildu giñan ta baten zazpi, piso baten zazpi ta besten zortzi egondu giñen. Ta holaxe.

2.35. Berastegiko erromeriak eta soinu-jotzaileak

- **Hizlaria(k):** Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BRS-028/007
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:10:58. **Bukatu:** 00:12:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Lehen igandero egiten ziren erromeriak Berastegin, eta inguruko herrietatik ere etortzen ziren (Elduaindik, esaterako). Erromerian soinua jotzen zuen gizon batek, Pedrok; ezindua zenez, asto gainean edo bizkarrean ekartzen zuten. Behin, erromeriara zekartela, momentu batean barrika baten gainean utzi zuten eserita. Barrikako tapa, orde, puskatu egin zen, eta Pedro barrika barrura erori zen. Azkenean, barrikari buelta eman behar izan zioten Pedro barrutik ateratzeko. Soinu-jotzaile gehiago ere etortzen ziren Berastegira: Elduaingo Mariano, eta Yaben, Espainiako txapelduna izandakoa.

Transkripzioa

-Lehen igandero izaten zan plazan musika?
-Bai.
-Hemen ingurutan ez Elduaiñen eta ez beste inon?
-5-Elduaingoak hona etortzen zien garai haietan.
-6-Ordun karreteretan oiñez etortzen zien neskak Elduaiñetik.
-Eta zer zan?
-4-Akodeoie jotzen zun.
-6-1-Soiñue. Gizona txikie zan, ezindutako hoitako bat, hankak motxak zittun eta.
-5-Ez, baiño hemen soiñue jotzen zuna Pedro uen. Ue zan [...] izen beer zun /tzun/. Inbalidue geldittue.
-1-Hue ibiltzen zan aston gaiñen edo bizkarren ekartzen zan.
-6-Hari pasa zitzaion behin politte. Berastiko Luis Sagastiberriko horrek ekarri du plazara bizkarrean, eta barrike zutiken eta upelak izaten zien garai baten arrapak [...] barrikak [...] danba behera erori emen zitzaion.
-1-Behera joan. Gero buelta eman behar barrieki.
-6-Gero Elduaingoa etortzen zan honea soiñue jotzea.
-1-Bai, Mariano.
5-Bai, urte askon harek jo zun. Hemen bertan bazan soiñujotzaile bat, bazien...
-4-Bai, Pakitto ta.
-5- Hemen Yaben, oindio biziko da.

-4-Yaben'e bai, con noventa y tantos años
 -5-Campeón de España de Acordeón.
 -6-Larogeita hamabost bat eukiko dittu harek. Hemen baserri batekoa da.
 -Hemen jotzen zuen?
 -5-Harek festatan eta hola.
 -1-Organista zan, harek organoa ere harek jotzen zun.
 -Zer esan dezu, Campeón de España?
 -Bai, kanpeonatoa atera zun, bai.

2.36. San Lorenzo eta haren sendabideak

- **Hizlaria(k)**: Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRS-028/011
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:18:49. **Bukatu**: 00:20:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Berastegi inguruko mendietan ez ziren erromeriak egiten, baina San Lorentzon hamaiketakoa izaten zen (eta oraindik izaten da) San Lorentzotan. San Lorenzo herriko patroia da, eta zauri batzuk sendatzen omen ditu. Hala ere, horretarako fedea izan behar dela diote. Elkarrizketatuetako batek federik ez, eta petrikilo batengana jo zuen zauria sendatzeko.

Transkripzioa

-Eta bestela mendietan eta erromeriarik eta?
 -2-Guk ez degu /eztegu/ ezautu.
 -Hemen ermitarik ez dago, ez?
 -1-Bai, San Lorenzo ta San Anton. San Sebastian.
 -5-San Lorentzotan urten behiñ izaten da meza ematen danen San Lorentzo egunen hamaiketakoa.
 -1-Ordun ambiente izugarria egoten da.
 -5-Hori len'e ba emen zan. Hemen amerikanoak etortzen baldin bazien han ematen emen zien hamaiketakoa, San Lorentzo egunen tokatzen bazan amerikanon bat.
 -4-Danboliñenekoak hala esaten zuen eta.
 -San Anton animalien santua, eta San Lorenzo?
 -1-San Lorentzo da herriko patroia.
 -3-San Lorentxo, haundittuk edo bizik esaten giñun, haik sendatzeko, eta entenga batzuk hartu, haik igurtzi.
 -[...]
 -4-Nik semea eaman nun zeatik hementxe atea zitzaion zulo bat baiño harrigarrie, eta nik hala fedea...
 -Sendatu zitzaion?
 -4-Nik ordun fedea banun, eztakit.
 -5-Akaso izango zan nik fedeik ez nulako, nei ez zizkidan kendu. (Barreak)
 -4-Fedea behar emen da, nik eztakit, hala da esaera.
 -5-Neri azkenean Tolosako kurandera batek sendatu zizkidan nei egia esate ezkeoz. Eta honen amak erakutsitakoa zan gaiña.

2.37. Sendatzeko etxeko erremedioak

- **Hizlaria(k):** Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BRS-028/012
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:21:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikak eta sasimedikak
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Medikua beti ezagutu izan dute Berastegin, baina etxeko erremedioak ere asko erabili izan dituzte. Hainbat sendabelar aipatzen dituzte.

Transkripzioa

-Lehenago hemen medikak baino gehiago izango ziren kuranderak eta, sendabelarrak eta.?

-1-Medikue beti ezautu deu.

-4-Etxeko erremedioak'e bai. Askok.

-4-Bide batez oain bastante sartue dago etxeko erremedioekin'e.

-5-Gaur ere badaude granoantzako eitten dittuenak.

-6-Enplasto oso onak.

-1- Berbena belarrakin eitten dittue enplasto batzuk.

4-Pasmo-belarrakin eta..

-6-Berbena ta; oain berriz ai die lapaitze oso ona emen dala reumantzat eta ez dakitzer. Lapaitze.

-5-Osiñe ere hala esan die, osiñekin erretzea, baiño iñok ez dik nahi izaten.

-Berastegin bazan udazkenen beti osiñen ure eaten aritzen zana odola mehetzeko. Osaba Telesforo.

-3-Reumantzako onena erleen zitzada. Errekalde zana jarri izandu emen zan alkandora goratu ta gerrie [...] Zirikatu aurrena eta haren paren jarri gerrie. Gorrik ikusi emen zittun.

-Gorrik ikusi? Ittoko zuen...

-5-Itto? Ameraunen astoa itto emen zien erlek.

-4-Erlek bai, hoi gure aittek esaten du erleak itto zula.

2.38. Petrikiloa

- **Hizlaria(k):** Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BRS-028/013
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:21:52. **Bukatu:** 00:23:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikak eta sasimedikak
- **Laburpena:** Hezurak haustean, Beteluko petrikiloarengana joaten ziren, baina hark ez zuen beti asmatzen.

Transkripzioa

-Eta besoa edo hezur bat hausi ta...

-3-Petrikillo.

-1-Petrikilloa, Betelukoa, aitton zahar bat zan. Tolosan `[Bar Xumetan?]
eskaillera azpi baten itten zun eta han konpontzen emen zittun danak.

-Tolosan?

-Bai.

-Baiña ez zittun danak ondo jartzen, e. Nik ezautzen det bat [...] hezurra
hemen duna Petrikillok jarritakoa.

-4-Nere koiñatai ere gaizki jarri zion, baiño...

-Nere alabai horrek jarri zion, eta harek ein zun hor eskolan eskailleratan
erori eta dana txikitu. Eta eaman gendun eta jarriko ziola, baiña harek
esandakoak ein behar zittula, e. Jarri zion bere tokin eta sei hillabeten
gimnasie, eta umea egoten zan karraxika. Jakiña, ez zun nai izaten, miñ
ematen. Baiño ein zun, in giñon batek eutsi ta bestek eiñ. Eta espezial jarri
zitzaion. Harek ez zun notatzen ezertarako. Espezial. Beste batzuk, berriz,
horrek esan duna, gaizki geatu.

-5-Bai, hori harritzekoa ezta izango. Gure Fernandok burdi-egurren gaiñen
askatzen hasi, erori eta... -1-Hezurre kanpon geatu zitzaion.

-4-Zeak'e bai, ahizpek, arrebak'e arkaitzen erori zan.

-6-Lizar hostoak eiten ai giñen. lizar-hostoa izaten zan negurako bordan
sartzeko lizar-hostoa eitten eta.

-1-Haziendentzako hostoa izateko.

-6-Lizarra moztute hantxe hua hostoa biltzeko ta. Urritze, urre han arkaitz
baten gaiñen eta urre harekin hartzen hasi ta erori ta eskumuturre txikitu
zun.

2.39. Poxpolin-jantzia eta San Juan dantzariak

- **Hizlaria(k)**: Azpiroz Nazabal, Florentzia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-031/014
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:22:05. **Bukatu**: 00:23:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elxpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena**: Poxpolin-jantzia nolakoa izaten zen deskribatzen du. Neska
asko ibiltzen ziren poxpolin. Gerra iritsi zenean, ordea, poxpolin-jantziak
erre egin zizkieten etxean. Gerra aurretik San Juan dantzariak ere
baziren (mutilen dantza-taldea).

Transkripzioa

-Poxpolin-jantzia nolakoa izaten zan?

-Gorrie, barra berde bat hola zabala, eta goien blusa txurikin zea, gorontza
berdea, paiñolo txurie, alpargatak zintekin, Bai-bai, dena estilo oingora,
baiño oain dena gona ta hoik dena diferente ibiltzen dala, hoixe.

-Ta neska asko ibiltzen ziñeten?

-Bai, mordoska giñen gu, mordoska giñen. Bai.

-Zeintzuk ibiltzen ziñaten, akordatzen zara?

-Bai, baiño. Gure ahizpek'e ibiltzen giñen eta. Hemen asko, bai. [...] eta,
[...] eta. Martiñenekoak eta. Bai, haundioak giñuzen. Geo Pedro Matxinen

alabak eta. Gero haik Ameriketara jun zien eta. Gero gerra denboran soldaduk sartu zienen gauze diferentea zan. Pss!, denak erre zittuen eta.

-Denak zer, erropak eta, arkuak eta?

-Bai, bai, bai, den-denak. Harrapatu zizkiguen guzik, danak.

-Hori izango zan gerra aurretik, ezta?

-Bai, bai. Gero ez.

-Mutil-talderik bazan?

-Bai. "San Juan dantzarik", orduako bazien, bai. Lehen-lehendik datozte gaiñea Berastein zeak. Gue aitten edadekok eta guzik bazien.

-Eske hemen dantza-soka beti egiten zan festetan, ez?

-Bai, bai. Beti eitten da, baiño Tolosan-eta bezela ez da eitten, honek badu puntu bat diferentea hoitatik.

2.40. Elizetan organoa jotzen

- **Hizlaria(k)**: Yaben Agirre, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: BRS-037/010
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:14:06. **Bukatu**: 00:15:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Organoa ikasten hasi zen garaian, beste herri batzuetara ere joaten zen elizako organista lanetan aritzera. Parrokoak meza baino hamar minutu lehenago joateko eskatzen zion, harentzat pieza batzuk jo zitzan.

Transkripzioa

-Eta ikasten hasi ziñen hartan, ibiltzen ziñen kanpoan nunbaitten organoa jotzen?

-Bai, bai. Porejenplo Astigarragan egondu nitzen sei urte. Astigarragan.

-Maixu bezela?

-Ez, ez, organista bezela. Elizako organista. Ni beti organista.

-Eta zu bakarrik izaten ziñan ala izaten zendun laguntzailen bat.

-Ez, ez, neronek bakarrik. Organoa nik jotzen nun, hango parrokoai gustatzen zitzaion ikaragarri. Neri burura etortzen zaizkit izugarritzko gauzak eta. "Oye Manolo, ya me podías hacer un favor? Porque no podías venir unos diez minutos antes y me tocas esas cosas tan bonitas en el órgano. Ah, qué bonito!". Hori parrokoak. Hamar minutu lehenago juten nitzen beragatiken. Satisfazio txiki bat emateko. Total. Neri ez zat batere kostatzen. Ni gustora. Eta hori bezelaxe izandu naiz alderdi guzitan.

-Kobratzen zendun elizako saioak?

-Ez, bate ez.

-Eta kantuak ikasteko apaizakin juntatzen ziñan edo?

-Bai, bai, ze kantu klase nahi zuten, hori berak erantzun behar zuten.

3. Herria, azpiegitura

3.1. Gidabaimena atera zueneko

- **Hizlaria(k):** Garciarena Belaunzaran, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-002/007
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:09:02. **Bukatu:** 00:10:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena:** Gidabaimena non atera zuen azaltzen du. Gidatzen ikasteko izan zuen pasadizoa kontatzen du.

Transkripzioa

- Ta karneta ateratzea're jon nintzen zeara, zeako aldapea, eee, klinika ez, ze izena du zea horrek? "Jolín, el anbulatorio aquel que está arriba ahora", ze izena dun Donostin... Bueno residentzia, residentzia, ta han aldapan geatu ta joan nintzen arkitek injenieroak esan zidan, "bueno oain geratu hau ta arrankatu zak". Ta "ui, zea, josus!". Ta, "ze pasa zak, gaizki jarri al haiz?" "Ez, ez, ez det sekula ein nik hoi". Kotxen hemendik Leitzea kotxe zahar batekin joaten nintzen lagun batenakin ta...
- Baiña hemen aldapa gutxi...
- Bai, ta baiña aurrera joan ta buelta eman ta juxtu-juxtu ez nekin ta "bueno, ez al dek...", "Nik ez baidet hau behin'e ein", ta "ez al dezu behin'e egin? Ez? Enbragiai utzitakoan frenori utzi iozu ta ikusiko dezu ze earki". Ta itten nun, ta bai zea, ez nion, frenoari uzten nion baiña enbragei ez ta atzeraka ta [...] "Ez ditela karnetik emango esaten ez ziaak ba hola!" ta... Bueno in nun, hirugarrengoan eo laugarrengoan in nun, ta hala karneta atera nun...

3.2. Fabriketan lanean, eta motorra

- **Hizlaria(k):** Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-009/012
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:14:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** Fabrika askotan ibili zen lanean. Bizikletaz joaten ziren lanera. Gero motorra erosi zuen. Lan eta lan ibili zen edozer gauzatan.

Transkripzioa

- Ba obran gero denbon bastanten ibili giñen. Gero barrun sartu giñen ta barrun fabrika guztin. Ni behintzat fabrika guzti jira nun. Bobinadoran hasi nintzen, kortadorak, bi ba ziren, kortadorak
- Non zan hori?
- Uranganen, Uranga, Berrobi

- Hemen bertan, ezta?

- Berrobin

- Ah Berrobi

-Berrobia, bizikletan, bizikletan joaten giñen. Bizikletan joan ta hantxe. Bizikletan, esaten gendun: "moto txar bat ez ote degu izango lanera etortzeko", baakizu... Benga motoan edo bizikletan ta horregatik bizikleta erosi gendun. Gero motoa erosi nun. Ordun motoak diru balio zun, hogeit bi mille pezta pagatuta, hogeita bi mille pezta ordun, "a ver". Hogeita bi mille pezta sobratu in ber zuen ta bintzat Uranganen lanen. Ta lan ta lan ta lan hortxe ta barrun sartu gñnen geo fabrika guztik makina guztitan, Mekaniko [hua] re aritu nintzen, beno edozein gauz.

- Denetik probatu zendun.

- Dena probatu in nun.

3.3. Etxeko sua eta ura lehen

- **Hizlaria(k)**: Azpiroz Nazabal, Simona
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-022/027
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:50:47. **Bukatu**: 00:52:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Simonak ez zuen lurreko sua ezagutu, baina inguruko etxe batzuetan bazegoen. Etxe batzuetan urik ez zuten, eta ura lortzeko nola moldatzen ziren azaltzen du.

Transkripzioa

-Sukaldek hain atzeratuk izango zien garai hartan. Guk, nik nere garaien lurreko sue ez det ezautu. Guk gure etxen ni, ez dakit jaiotzeako baiño, nik ezautu nun ekonomika, lurreko sue ez. Baiño izeban eta inguruko etxetan bai lurreko sue. Ta sukaldek zien, nola esango dizut ba, nahita're, guk ure bagendun, baiño gure bi izebak'e, oain esan deten familik ez zuen urik eta beste izebak'e urik ez zuen etxean. Eta joaten zien itturria, hartzen zuen "suille" esaten zien, zan egurrezko hola gauz bat borobille, holako bat altue bazun, eta egurre dena. Gero hola aro batzuk bueltan urre koloren hola zittula, izaten zittun. Suille. Hue betetzen zuen itturin, hemen "burukotea" jartzen zuen, ez dakit ikusi dezun behiñ'e, gauz zea bat, almoadille bat bezela, ta erdin txuloa du, ez, eta almoadilla bat bezela da, hemen jartzen zuen, hartu eskuekin eta txukun-txukun jartzen zuen, eta gue amonak-eta eskuk hola txintxilik zittuela, hue burue bete-betea goien, eta holaxe zuela joaten zien etxea. Haitan eamaten zen urekin eiten zuen, bai garbitasuneako, bai jateko, dena; behar zan guztiako. Sukaldek ez baitzeuden moldatuk. Mediki bat etorri ta zer? Fregadera bat eaman beharko zendun. Ta fregadera deskuidatzen bazñen hain txukuna ez zan egongo. Udik ez baldin bazeukezun nola ba?

-Beheko sua nun izaten zan, sukalde erdian?

-Ez, guk beti baztarren.

3.4. Ura eta argia etxean

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Alda, Katalina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-024/007
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:14:01. **Bukatu:** 00:15:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Berak beti ezagutu izan du argia etxean, kinkak ere ezagutu ditu. Etxe aurrean zuten iturria, eta iturri ondoko askan garbitzen zituzten arropak.

Transkripzioa

-Eta zu umia ziñanian etxian urik eta argirik bazeuan?
-Bai, bai. Bengoetxen argie eta dena bazien.
-Zu txikie ziñela ere bai, ezta?
-Baita're. Ni txikie nitzela ya argie bazan. Gure etxen bazan orduako argie.
-Hola ez al zendun ezautu kinkeekin?
-Kinkea ezautu nun. Kinkea ezautu nun.
-Beti-beti ez zan izango argie, baiño kinkekin aitzen ziela aittuta dauket nik.
-Eta sukalde epelen eoten zan gue aitta-zana, eta hola epel-epelen sue ederrakin, egurre're asko izaten zen, eta ondo. Ondo bizittu giñen.
-Eta ura?
-Ura bai, asko.
-Etxean, fregaderan?
-Bai, bai. Etxe aurreko alden gendun aska haundi bat eta itturri earra, eta erropak garbitzeko eta dena, oso ederki.
-Oain'e hantxe dao hue.
-Adelantatutako baserrie zan.
-Erropak eskuz?
-Eskuz garbitzen zien, eta geo akclaratu ba aska bertan gendun, ta akclaratu ba ondoko askan. Eta lixuba esaten zitzaion, eta hue zanen, berriz, errekaa juaten giñen. Eta errekan sartu ondoko hontaaño ta lixue jotzen. Ta hola. Baiño geo adelantatu zan itturrie etxe ondoa ekartzea, ta ordun ondo. Hola bizittu giñen.

3.5. Lanbide zaharrak eta trenak

- **Hizlaria(k):** Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BRS-028/017
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:31:01. **Bukatu:** 00:33:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

- **Laburpena:** Lanbide zaharrei buruz hitz egiten dute: ikazkinak, batetik, eta Plazaolako trenera ikatza eta egurra eramaten zuten mandazainak, bestetik. Pasaiarien trenak ez zuten egurrik eta ikatzik eramaten. Merkantziek bai. Trenbidearen ondoko auzoetan bizi zirenak gauzekin enteratuago egoten ziren. Egunkaria ere egunero heltzen zitzaien.

Transkripzioa

-Esan dezu ikazgiñak ibiltzen ziela, baiña hemenguak izaten ziren ala naparrak?

-Jeneralen Goizueta, naparrak gehio. Guk hemen ikatza eitten aitutakoak, basoan bai hemengoak arittu zien, baiño ikatza eitten arittutakoik...

-1-Gero mandaizaiek'e bai bazien hemen; Erasungoa Tomas-eta. Mandazaie mandoakin egurre ateatzen-eta, ikatzetan-eta ibiltzen zienak. Gero trena ibiltzen zan garaian, hor mendi haundik die ta ordun estaziotara trenai ikatza atera.

-6-Estaziok Olloki, Amio... estaziok trenak izaten zittun eta batzuk pilla haundik ikatza igual egongo zan zakutan, bestek egurre, bestek materiala, dana.

-5-Hor pasatzen zan linea, trena, osea pasaje(roak), jentea ibiltzen zuna. Eta bestea izaten zan merkantzie. Trenak ez zittun /etzittun/ eamaten egurrek, eamaten zittun merkantzik propio. Oin nola pasatzen dien Tolosan-eta kotxekin-eta? Estilo berdiñe.

-6-Baiño ordun Berastegin bizi giñenok baiño adelantaugo, jakintsuagok zien Amiokoak-eta.

-A bai, e?

-6-Egunero trena pasatzen zan eta haik periodikoa ta berrie ta. Beti gehio jakitten zuen haik.

-Erderaz ere gehiago jakingo zuten.

-Ez zan zaille izango.

-3-Ez gendun asko ikasi. Euskeraz eitten bagendun eskolan kastigu ederrak ematen zizkiguen baiño.

-6-Amiongo baserrin frontoia're bazan, eta pelotan nola honea etorrita ibiltzen zien haik. Hemengok baiño gehio eitten zuen haik. Frontoi-koxkor bat. Eta toka ere bai. Hemen oain jarri due baiño. Aittonai esaiozu, oaindik bizi da lareogeitamar urtekin aittona. Jo! Harek garai bateko kontuk... Ordun trenak ibiltzen zun transportea ta ordun harek egunero ikusten zuen, han pasatzen zitzaien-eta. Hor hiru dare: Plazola, handik bost kilometrora Amioene, Amioendiken bost kilometro Olloki, Bertxiña beste bost.

-Zer ziren, estazioak?

-Estazioak zien hoik, estazioak.

-Jente asko bizi zan hor.

-Bai, bai. Ordun Panplona jun behar bazen ere aittonak Plazolara juten zien trena hartzea San Fermiñetaako. Ordun jendea bastante juten zan hontatik'e eta Plazolaa trena hartzea.

3.6. Errotak eta kontrabandoa

- **Hizlaria(k):** Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BRS-028/018
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:33:32. **Bukatu:** 00:35:04

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Batzuek trena kontrabandorako erabiltzen zuten, irinez betetako zakuak bidaltzeko. Izan ere, garai hartan lan gutxi zegoenez, ogia nola edo hala lortu behar izaten zuten. Garai hartan, ez zuten uzten garia errotara eramaten. Aresoko errota ona omen zen. Errotak gaur egun zer egoeratan dauden aipatzen dute.

Transkripzioa

-3-Kontrabandoan Andoaiñera're bai zaku-iriñek eta.
 -6-Bai Plazolara ere.
 -1-Ordun ogibidea nundik-handik. Nahie ez zan lana, e. Ahal zan bezela.
 Batzuk kontrabandoan eta besteek ahal zan bezala.
 -3-Etxean garie izanagatiken errotaa eamaten ez zizuen uzten
 -1-Artoa itteko ere kontrabandoan Aresoa jun ber izaten zan ittea.
 -4-Goizeko hiruetan-eta.
 -1-Hemen'e bazien errotak, baiño...
 -Baiña ni entzunda nao Areson iriñ hobia egiten zala.
 -1-Fiñegoa. Harrik edo ez dakit ze... urek edo ez dakit.
 -6-Hemen'e errota bazan iriñ ona eitten zona, [Usiñekoa?] eta Beheko
 erota. Iriñ ona itten zona.
 -2-Eta errota haik lur jo zuen, e, akabo!, akabo! Jo!, ze pena ematen due!,
 ze pena ematen due!
 -5-Nola eingo dik ba errotak gaur daren makinakin-eta adelantoakin.
 -2-...]
 -3-Ubanen eitten due iriñe.
 -Eitten al du? Joño!
 -5-Hori kapritxoz, handik bizie ateatzeko ez...
 -1-Zean'e itten due, uste det, Alegrin....
 -5-Nonbait eitten die behintzat, hor zean kooperatiban Tolosan eoten dek
 eta.
 -Elizondon edo bide hortan eitten die, gure koiñaduek hortik ekartzen dik
 iriñe, arto-iriñe, hor badek errotan bat.

4. Aisia

4.1. Erretiroa hartu eta idazten hasteko harra sartu

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Nazabal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-006/022
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:27:13. **Bukatu:** 00:28:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Idaztea
- **Laburpena:** Erretiroa hartu eta gero, oporretara joan zireneko batean, koaderno eta boligrafoa hartu zituen idazten hasteko.

Transkripzioa

- Behiñik behin jubilatu giñen, andrea're urtebete diferentzie, hua azaroan seien jaioa, ni baiño urtebete gerogo. Ta ni azaroan hamabin jaioa ta jubilatu biyak batea jubilatu giñen, ta orduako baten hor ta besten hemen, ermandadeko sekretarioa're nitzen ta dirue're aixeaxe izaten gendun. Lehen aurreneko zeatan nahiko juxtu bizittu giñen, ta Benidorrea hutsen zeuden plazak eta Benidorrea joan giñen beste lagun batekin, hemengo lagun batekin Benidorrea. Ta hurrungo urten Fuengirola joan ber gendula ta Benidorrea joan giñenen baezpa eman in nittun plume eta, zea...

- Koaderno.

- Bai.

4.2. Idazten aritu zen garaiko kontuak

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Nazabal, Joakin ; Azpiroz Nazabal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-006/032
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:42:27. **Bukatu:** 00:44:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kultura » Irakurtzea
 - Aisia » Kultura » Idaztea
- **Laburpena:** Aita Zabalak Joxeren eskuizkribuak hartu, mekanografiatu eta zuzendu egiten zituen. Idatzi zuen hirugarren liburua nobela izan zen, eta erraza egin zitzaion, lehendik ere asko irakurritakoa baitzen. 80 urte zituela hasi zen idazten.

Transkripzioa

-Orduan Aita Zavalak lagundu, bueno, berak atera zittun (liburuak)?

-Nik eskribittu, ta etortzen zan eskribitzen itten nunen. Hartu ta eaman. Ta nere letratiken hark mekanografiatu itten zittun, ta gero hark letu ta okerrik bazeoan zuzendu. Hoitan danetan izango zien okerrak. Geo handik aurea berak.

-Eta azkena nobela idatzi zendun. Erreza izan zan?

-Bai, emakumea. Lehenau nobelak jangoikoak badaki zenbat letu dittudan; eta haik ikusiz denak, lista ein izenana ta. Bai, bai, errexa. Geo baserriko lana, baserriko gauza bakarra da nobelan, ta nerea, ni bizittu naizena, modue. Ta hortik ez naiz atea. Alperrik ateatzea izango litzake, zeatik ez nuke gauzonik ingo. Proba itteko esan izandu zian Aita Zavalak baiña ez, ez, ez. Ez. Ba berrogei edo berrogeta hamar mille duro eman zizkidaten nik hoik eitteagatik eta.

-Lehenengo liburua idazten hasi ziñen...

-Lehendabizikoa alkarrekin "Gogoan kontrako...", ez, "Arbol zaarraren kimuak"

-Eta zenbat urte zuk orduan?

-Nik? Larogei urte.

-Eta nobela idatzi zendunian?

-Gero. Gero. Bai.

4.3. Hotelean lanean, eta gero Berastegira

- **Hizlaria(k):** Huizi Apezetxea, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-011/005
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:06:04. **Bukatu:** 00:06:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Azken udan hotel batean aritu zen lanean. Eta handik Berastegira joan zen.

Transkripzioa

- Gero azkeneko udara ein nun, zeren Hostal San Antonio edo Paradorren, handik beti goraxeo, Urnieta aldexeo, kaxko baten, oain erre zuela esan zuen hura're, ez dakit nola, hotela zan, azken udaran in nun, bai.
- Eta gero handik ya hona?
- Handik Berastegira, Berastegira.
- [PEDRO] Handik etorri zan bai, bai.
- Orduan Goizuetan hogeit urtera arte egon ziran?
- Bai, bai, hogeit urte inda jun nintzan, han hogeit urtea arte baserrin hantxe.
- [PEDRO] Bai, bai, hogeita zortzi urte ezkondu zanen zittun honek, nik hogeita hamabi.

4.4. Inauterietan Berastegin giro ona

- **Hizlaria(k):** Yeregi Aranalde, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-019/022
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:38:24. **Bukatu:** 00:40:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena:** Inauteriak Berastegin bertan ospatzen zituzten eta giro ona izaten zen. Garai batean, gazteak etxetik etxe eskean joaten ziren eta 3 egun ematen zituzten beren etxeetatik kanpo.

Transkripzioa

- Karnabaletan ta're bai, karnabalak'e hemen bertan, danak bertan itten giñun.
- Karnabalak hemen ospatzen zian?
- Bai, ta pentsa zazu Tolosa ze bertan daon, ta ez giñen iñor'e joaten Tolosa, danak hemen bertan.
- Ta jantzi ta etxetik moztortu...?
- Bai, bai, bai, bai, bai, bai. Ta gu... ni ez, ni ez nintzen ibili, baiño nere aurrekoak eo nere artekoak eo itten zuen, karnabal egunen ibiltzen zien esken herri guztin, herrie pasatzen zuen esken. Ta gastuok esaten zien, ta geo hoiek kontsejun hiru egunen ez zien etxea joaten. Bai, jan ta lo...

- Bertan?

- Bertan, gaztek gaztek hor itten zuen. Mutillek e? Mutillek zea izaten zian. Ta hor kontsejoa joan, ta lo ta jan hor eitten zuen. Gu askotan, gehinak nere edadekuak'e bazien e? Baiño ez zitzatan nei gehiegi gustatu. Bueno, ta guk itten gendun igual egunen baten, karnabal egunen eo bigarrenen eo, igual haikin baten afaltzea o, kuadrillan juntatzen giñen ta guk gerena pagatzen gendun; baiño hor geldittu ta ni ez nintzen behin'e in. Baiño...

- Orduan lelengo etxez etxe, ta ze batzen zenduen dirua ala bestela, jatekoa?

- Gehina dirue, gehina dirue. Jatekoa hor eoteko jatekon beharrik ez zuen.

- Gero diruakin etorri, hor jan ta edan...

- Hor jan ta edan. Bai, bai, lo bertan itten zuen, kuarto baten igual hamabost lagunek esaten zuen eoten ziela, baiño...

- Lurrian etzanda?

- Bai, bai, baiño etxea ez zian joaten, hor hor pasatzen zittuen karnabalak.

- Ta soiñujolen bat o izaten zuen?

- Bai, bai, bai, bai. Ba zuk oain jun ber dezuna Xinfo Iparragirregana, hoi prankotan aitua.

- Hori egoten zan orduan kuadrillan soiñua jo ta festa kantau, o abestu o dantza o zeoze ingo zuen ta festa.

- Bai.

- Bueno, ambientea. Bestela hemen herriko festak San Lorentzoak izaten zian?

- Bai, San Lorentzoak.

4.5. Berastegiko inauteriak denboran zehar

- **Hizlaria(k)**: Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRS-028/004
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:05:44. **Bukatu**: 00:07:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Lehen Berastegin inauteriak ospatzen ziren, eta giro izugarria egoten zen. Gehienbat gazteak mozorrotzen ziren, eta mozorroak nolakoak izaten ziren azaltzen dute. Beraiek ezagututako inauteriek; hala ere, ez zeukaten gerra aurreko inauterien maila.

Transkripzioa

-Karnabalak hemen ospatzen zien?

-6-Garai baten karnabalak elegantek izaten zien hemen, elegantek.

-2-Anbiente izugarria izaten zan.

1.-Gero zomorro hartzeko hoi, izugarrizko ambientea izaten zan.

-Kontatu nolakoak ziren karnabalak.

-Ba jantzik zien, jantzi berezi batzuk

-2- Bi klase zien jantzik, bat soiñekokin eta besteak zakuz eta, mozorrotuta bezela.

-3-Orbelakin eta bete. Oain [txantxoak] nola jartzen dien zintzilik arbi-hazitan eta, hala bete...

-1-Txontxongilloak.
 -4-Gero zea're bai, txintxarri ttiki hoiek, kanpanillek
 -Eta herri guztia hola mozorrotuta?
 -2-Ez, gazte jendea ta. Kuadrillek.
 -6-Ordun jakiñek izaten zien, edadekok'e mozorrotzen zien baiño. Jakiñek.
 -5-Urte baten bi zomorrotu hemen eta haik ez zittun /etzittuen/ iñork ezautu. [...] Hirurogei urtetik gora egongo zien biek'e.
 -Jantzi dotorek ere bazien e, soiñekoa ta...
 -5-Arruko Fernando eta Pepitto. Pepitto oaindiken begitan zeukat hankai lotu sokakin eta oaiñala arrastan zula nola ibilli zan.
 -1-Anbiente ikaragarrie izaten zan karnabaletan.
 -6-Karnabalak izugarrik izaten zien garai baten hemen.
 -1-Oaiñ ya, oaindiken puxkat segitzen du baiña gutxio.
 -5-Nik aittu izan deanez azkenengo karnabalok ezerrez gerra baiño lenaokoakin konparatuta. Hola ezerrez.
 -Hori galdetu behar nizuen: gerra aurretik gehiago izango zan.
 -4-Jesus, gerra aurretik bai.
 -5-Guk ez degula /eztegula/ ezautu. Nik gerra moittu zanen sei urte nittun eta, eze asko ezin kontatu nik.

4.6. Karnabaletan baserriz baserri

- **Hizlaria(k)**: Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRS-028/005
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:07:36. **Bukatu**: 00:09:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
 Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Berastegiko inauterietan baserriz baserri "puxkak" biltzen, erregaloak biltzen ibiltzen ziren. Urruti samar ere joaten ziren, Plazaolaraino, esate baterako.

Transkripzioa

-Baina ohitura izaten zan baserririk baserri joatea mozorrotuta, ez.
 -3-Ez, ez, Leitzen da hori. Puxkek biltzen hemen espenserok-eta ibiltzen zien.
 -1-Espenseroak eitten zittuen, bi izaten zien izendatuk.
 -6-Ostegunen Plazolaa-ta puxkek biltzen eta espenseroak.
 -1-Bi espensero izaten zien organizatzeko, festa organizatzeko.
 -5-Bi enkargatu bezela izaten da hoi.
 -Urtero berdinak edo?
 -2-Ez. Urtero kanbiatu.
 -5-Gazten arten eitten zien bi.
 -Neska eta mutil edo?
 -Mutillek, ordun ez zan...
 -4-Dantza-soka noiz ateatzen zan?
 -1-Hirugarrengon. Azkenekoan.
 -5-Ordun ez pentsa gaur daon bezelako igualdadeik.
 -Orduan joaten ziren baserriz baserri...

-3-Puxkek biltzea esaten zitzaion.
 -Nola?
 -3-Puxkek biltzea.
 -2-Batzuk ematen zuen [...] bestek ematen zuen dirue. Ta hola ta. Geo gaztek herrin gelditzen zien, bertan bazkaldu eta juerga earra.
 -6-Hor eitten zittuen hiru bat egun, karnabalak pasatu arte hor egoten zien, gastun, sartuta. Kuadrillek baiño jakiñek. Urtero jakiñek izaten zien.
 -Lo ta dana bertan.
 -4-Bai, bai, bai.
 -1-Ordun ez zan kontrolik eta karreteran eta izaten eta.
 -Kotxeak ere gutxi, ez?
 -Bai.

4.7. Pakito soinu-jotzailea

- **Hizlaria(k):** Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BRS-028/008
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:12:37. **Bukatu:** 00:15:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
 Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Pako Olaetxeari buruz (Pakito) hitz egiten dute: txikia, polita, soinu-jotzaile ona, berezko grazia zuena. Haren gurasoak eta anaia nolakoak ziren eta Pakitok gose garaian zer jaten zuen kontatzen dute. Gosea zegoenean, elkarrizketatuek zer jaten zuten aipatzen dute.

Transkripzioa

-5-Gero beste bat zan hemen Pako, Pakito esaten giñun, ttiki bat.
 -6-Ttikie, bi anai zien ttiki-ttikik.
 5-Hola, ttikie, bi anai ttiki-ttikik.
 -1-Metroa edo askoik ez zun izango.
 -2-Baiño arpegi polittekoak, e. Arpegi politte.
 -5-Enanoak izateko, batzuk izaten die gorputze hau normala gerriraiño, hanka motxak, eta haik ez. Hankak zittuen motxak eta gaiñeakoan arpegie ere txikie zuen eta besoak'e motzak.
 -6-Akordeonista ona Pakitto.
 -5-Akordeonista bai elegantea!
 -6-Ezkerra, haren ezkerran inbidin egoten zien denak.
 -5-Ba al dakizu ze esaten zun zerak, Yabenek? "Guk soiñua jotzen estudioakin, estudion poderioz bazekigu soiñua jotzen, baiño honek dun grazie ez dittegu guk. Pakogatik esaten zun.
 -1-Gero bera txikie zan eta soiñue haundie. Ez zan ikusten.
 -2-Jendea muittu eitten zen, e. Hure soiñue jotzen hasten zanen mugittu eitten uen jendea, e.
 -4-Gaztelun-eta ere bai, bueno!
 -5-Harek proportzio bat izan omen zun, nik eztakit zenbat urte izango zittun baiño gaztea zala kruzerotan ibiltzekoa. Mundu guztin bueltan. Jornala, e!, egunen sei duro eta gastuk libre. Ez emen zan joan.
 -3-Pakitto izango zan aittei ezkondu in ber zula /tzula/ esan ziona, ta aittek

esan emen zion: "Hi ezkondu, ume earrak botako dittuk"; eta: "Zuk aiñakoak botako al dittegu". (Barreak).

-6-Aitte gizon ikaragarrie...

-4-Ama're bai, ama're haundie zan.

-2-Aitte ta ama haundiek.

-1-Aitte gizon izugarrie.

-5-Bai, bai, eitte behintzet haundie eta ama ere alta.

-6-Nik ezautu nun soroa joan eta muiño bazterren exeri eta plantilloi belarrak, albaitzen estiloko belar batzuk, trak!, [ipurditik ateata] jaten zittun harek.

-2-Bai, garai hartan gosea uen-eta pagotxa ere jaten giñun pagotxa ere.

-6-Arbiondoa ere, arbiondoa ere gustoa jaten nun nik; gordinik arbiondoa ere.

-4-Arbiondoa? Bai, nei osabak erakutsi zian.

-1-Eta bik senidek zien eta bik ikaragarri diferentek jenioz. Bat zan ikaragarri gizon gozoa eta bestea berriz malaletxea...

-2-Pako zan oso..., gaiñea hizketan'e oso talentosoa edo.

-5-Mundu gehio ikusie. Bestea etxetik atera gabea ia.

-Biak musikoak?

-4-Bai. Batek pianoa jotzen zun.

-5- Pianoa jotzen ibiltzen zan baiño ez zun seittu harek. Pakitto zan akordeonista.

4.8. Festetako zenbait ohitura

- **Hizlaria(k)**: Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRS-028/010
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:17:00. **Bukatu**: 00:18:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Lehengo festak nolakoak izaten ziren azaltzen dute: plazan ardoa hartu eta tabernara joaten ziren askaltzera. Ohitura hori, hala ere, berandu sartu zen. San Anton egunean, afari handia egiten zen taberna batean, jende kuadrilla handia elkartuta, eta Kaxianok eskusoinua jotzen zuela. Giro izugarria egoten zen.

Transkripzioa

-Lehengo festak eta nolakoak izaten ziren?

-1-Ordun egun jakiñek izaten zien hola; hemen izaten zien ba San Pedrok, San Pedrotan jartzen zun ardoa debalde herrik; zahagie, zahagi-ardoa.

-6-Botilla hartu ta tabernaa juten zan, zahagie, gero botilla-ardoa hartu eta meriendatzea tabernaa. Plazan ardoa hartu eta bete botille eta hara. Zahagien aguazille egoten zan, zahagin botille betetzeko.

-5-Hori kostunbre hori hartu zan beandu, hori ez zan /etzan/ kostunbrea hola jarritakoa. Zahagi-ardoa zan Berastegin jartzen zana San Pedro egunen. Baiño zan hure han seittun eratekoa.

-1-Bertan eratekotan, bai.

-5-Hori zan bertan eratekoa.

-Zahagiatik?

-5-Ez, basoan emango zizuen, bat hantxe egoten zan preparatzen; baiño gero modak kanbiatu eitten die eta pixkeka-pixkeka-pixkeka joan zan gero botilla hartu ta tabernaa eamatekoa. Ez zan /etzan/ hure, tipikoa ez zan /etzan/ hure.

-6-San Pedro egunen meriendatzea jende asko etortzen baitzan garai haitan. Eta pixkona-pixkona hasi zan usarioa honek esan duna.

-1-Gero beste bat izan zana San Antonetan, San Anton ermitta dao hor. Eta animalin santue da San Anton.

-5-Len bai, oaiñ ostu zien.

-4-Bigarren aldiz ostu due.

-1-Len izugarrizko afana, afarie eitten zan; bixigue ordun, bixigue jaten zan.

-6-Bixigue ta arkumea.

-1-Eta [Karakonen hor, Markakon] itten zan afari bat, kriston jende kuadrilla. Kaxiano soiñue jotzea ta, bertso zarrak eta ambiente izugarrie. Santo Anton eguna, gauen, bai.

-Hori urtarrila da.

-1-Bai. Oain ya oaiñ galdu da.

4.9. Meatzeak eta kafea

- **Hizlaria(k)**: Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRS-028/019
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:35:04. **Bukatu**: 00:36:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Meatzariak
- **Laburpena**: Beraiek ez dituzte ezagutu meatzeak, baina beren gurasoek bai. Haiei aditutako istorioak kontatzen dituzte. Kafea eta txikoriari buruz hitz egiten dute.

Transkripzioa

-Eta zuek minak ezagutu zenituzten?

-Minaik ez.

-4-Gure aittek bai, aittek zeoze. Bizkoetxe, bai.

-5-Minak nun daren badakiu baiño, nik sei urte nittun, nik sei-beratzi urte izango nittun gehina jota hor arittu zienen. Nola joaten zien lanea-ta bai, eta zeïñek eamaten zittun langillek hemendik .

-6-Pakitto aittu zan, len esan deun hori aittu izan ber zun. Gero paperak eitten ibili zan zerbaitt.

-5-Horik Pako Etxabek eamaten zittun kotxen Plazolaa. Danak ez zittun eamango baiño.

-6-Hango labetako radio mazizoak Berastegira makiña bat etorri zan gurditan. Ekonomikak jartzeko ta. Mazizoak izaten zittun ba labek eta hango radiok hemen baserritaa. Ekonomika jartzeko.

-3-Pako Etxabek hala esaten emen zun, autobusen harek eamaten emen zittun minataa jentea ta, eta Zulutaene du izena Rezolaneko etxe taberna horrek, eta: "Hamaika txikoria ear eran giñen!".

-4-Je!, txikorie kafen tokin.
-1-Garie erreta're itten zan kafea.
-4-Bai, guk gerra denboan ezautu gendun.
-Etxean erreta?
-4-Bai, bai, etxean erreta.
-6-Hoitan kantinek egoten zien estazio hoitan denetan, taberna bezela, kantinek. Plazolan'e bai, Amioen...

4.10. Pilotari trebea izandakoa

- **Hizlaria(k)**: Lecea Iparragirre, Marcelina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: BRS-035/015
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:28:08. **Bukatu**: 00:29:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Umetatik pilotan jokatzen zuen, eta mutilen aurka jokatzen zuen, neskarik ez baitzegoen jende aurrean mutilen aurka jokatzen ausartzen zenik.

Transkripzioa

-Esan dezu eskola zortzikin utzi zendula.
-Bai, hortxe, zortzi inguruan.
-Eta gero baserrin aritu zinen lanean?
-Baserrin.
-Eta sekula kanpora atera ziñen lanera?
-Bai.
-Neskame edo?
-Ez.
-Neskame ez. Aurreneko, aurreneko ateera nik Madridea hamazazpi urte neuzkela, pelotan ittea.
-Zu pelotan ibiltzen ziñen ordun?
-Bai.
-Eskolan bakarrik ez, eskolatik kanpora ere bai.
-Ba..., nik pelotan jokatzen nun. Esto, hemen herri txiki guzitan gaztea nitzela.
-Maixun bat bazenun?
-Ez. Ni nere kaxa. Baakizu, herritan beti pelotan ibiltzen da, mutille ta eso. Nik'e hori izandu det, pelotako gauze, eta pelotan ibiltzen nitzen herriz herri, hemen askotan; Villafrankan eta Santiagotan eta.
-Deitu egiten zizuten?
-Deitu eitten ziarean hola aiuntamentutiken, dena korrittuta zeoan neska bat zeoala bastante ona jokatzen zuna eta tal y cual. Jartzen ziarean mutil bat eta, bueno, partido bat exhibizioa itteko partido bat eta. Hola.
-Mutillen kontra. Neskaik ez zegoan. Nik esaten dizutena, lagun hoi, bai jokatzen zun ni bezelaxe edo hobego, baiño ez zun baloreiken izaten publikora ateatzeko. Bueno, ni pelotara.

5. Politika

5.1. Gerran soldadu

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Nazabal, Joakin ; Azpiroz Nazabal, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-006/035
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:47:16. **Bukatu:** 00:49:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Gerra garaian, aita liberala izateagatik asko zigortu zituzten. Gerra garaian Joxe soldadu zen, eta sarjentu nola egin zen azaltzen du.

Transkripzioa

-Lehen Joakin kontatzen ibili da soldaduskan sarjento izan ziñala.

-Bai.

-Nola izan zan hori?

-Ni, suerte izugarria izandu nun soldaduxkan. Esango dizut ba. Hemen gerra hasi zanen karlistek eta liberalak zien. karlistek bazien, asko. Gure aitte ta liberalak, gutxio, ta gu asko kastigatu giñuen.

-Honi ondasunek, etxe hau berea zun, eta inkautatu're egin zien.

"Incautación de bienes" egin zien. Eta ondo gogoan eukitzen det, hor oin komedorea daon hortan in zittuen, eta sekretarioai atera zanen, "denak ein al dittuk?", esan zien gure aittek. "Ordenak, ordenak". "Ordenak? Liburu horrek hojak jirauko dizkik, kontu izan zak! Hojak jirauko dizkik ondo!".

-Ni soldau nintzen orduako.

-Honi seittun albistea. Jeneralak pistola emanda bialdu zun hau...

-Ez, ez dek hala.

-Nola da ba?

-Ez, ez. Asturiasen gebitzela, han kuartel jeneralen giñen. Aurrenetk hasita esango dizuet.

-Oin esan sarjento nola in hindduen eta jeneralakin nola enlaze egondu zineten eta.

-Jeneralak estimatue. Demonio! Hotzak egoten zanen, Teruelgo hotzakin sue ein ta nik hankak berotzen nizkion. Ta edozein tokitara. Azkenen Barzelonara genijoazela, Kataluña erori zen aurre hartan mendin gora arkaiztie igo behar eta ezin igo izaten zan. Eta aberekin igotzeik ez. Eta behin baten esan nion: "Mi general, si me quiere dar usted la mano, yo le llevo a usted para arriba". "Hombre providencial. Antes me calentaste los pies y ahora me vas a subir de, hacer de ascensor? Dáme, dáme, probaremos". Eta, jakiñe, nik geldi-geldi tira eitten nion eta. Zaharra ez zan, hirurogei urtekoa, baiño kaxkaldue.

5.2. Gerrako lehenengo eguna

- **Hizlaria(k):** Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-009/004
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:02:01. **Bukatu:** 00:03:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu

- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena:** Gerra hasi zeneko eguna kontatzen du. Gorriak iritsi, eta denak etxean ezkutatu ziren. Aita etxetik irten zen orduan. Aitaren gerrako oroitzapenak

Transkripzioa

- Gaiñekuan gerra denboa etorri zan. Gerra hasi zanen... aittekin ta amakin [Entzergin] giñen belarren, ta gorrik eo esaten zuen etorri ziela, hor Naparratikan sartu zan tropa bat, tiroka hasi zien ta gurdik eta denak utzi, ta etxea etorri giñen. Etxea etorri giñen, ohi azpin eo ez dakit nonbaitten gorde, gorde giñen, gure etxea dena jendez bete zan, karretera nola hartzen zan hortik, eta gaua pasa zuen, ordun alde ein zuen, goatzen naiz gure aitta zana kanpoa atera zan ordun, etxetik alde ein zun. Zeatik ez dakit, bakizu...

- Horrek soldaduak etorri zianien?

- Bai, bai, etxetik alde ein zun. Sei urte nittun nik, hoi gootzen naiz e? Txikitako gauzek gootzen die gauzak. Sei urte bittarten soroan balenka tiratzen'e ikusi nun nik aitte, ta hoi gootzen zidan.

5.3. Gerra garaian janaria lortzeko egindakoak

- **Hizlaria(k):** Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-009/005
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:03:06. **Bukatu:** 00:04:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerraostean, ez zeukaten ogirik jateko ere. Olio eta azukre gutxi zuten. Etxe batean eta bestean ibiltzen ziren lanean janariaren truke.

Transkripzioa

- Geo gerra etorri zanen, jatekoik ez, ogiik ez, olioik ez asko, azukrea're oso gutxi, mixeri baten. Ta behin zortzi bat urte ezkeo, etxe batea bestea, lana asko ez, baiño ordun dena laborek ibiltzen zien soro guztik, dena laborea zan hau, dena dena dena dena. Ta itzulera esaten giñun behien aurren jarri eun guztin behien aurren bueltaka.

- Soroa lantzen?

- Soroa lantzen, ta ia landu o pixko itten zanen, hurruna zakarra bildu ta haik erre ta edozein gauza eitten gendun guk, edozein, oso gaztetan.

- Eta hori beste etxe batzutara joaten ziñeten?

- Bai, bai, bai, bai.

- Janari truke, edo?

- Ba aber, hoixe, besterik ezer ez, jaten gendun ta batea ta bestea ibilli, eskolaa behin eo behin.

5.4. Gorrotoak eta ezinikusiak gerran azaleratu

- **Hizlaria(k):** Iparragirre Intxaurrondo, Xinfo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-020/034
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:51:16. **Bukatu:** 00:54:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
 - Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Gerrako oroitzapen batzuk gordetzen ditu. Osaba bat Hernanin fusilatu zuten eta aita kartzelan egon zen. Gerran, ika-mika handiak zeuden nazionalista eta karlisten artean, eta beren etxean hiru auzi izan zituzten. Berastegin etxeratze-agindua zegoen gaueko bederatzietarako: gizon bati herritar karlistek tiro egin zioten bederatzia pasata kalean egoteagatik. Gorroto eta ezinikusi handiak zeuden orduan.

Transkripzioa

- Ta zuk gerrako konturik eta ez zara... txikixa ziñan zu, ez? Txikia ziñan gerra hasi zanian.
- Lau urte gerra hasi zanen.
- Gutxi akordatuko zara, ez? Gerrako konturik...
- Akordatu zeozer itten naiz, bai. Ta etxen'e denak ixilka ta geo osaba bat'e afusilatu ziguen hor Hernanin. Afusilatu zuen, bai. Ez dakit, Donostitik zetorrela o, trenen zetorrela o, detenittu ta eraman zuela ta akau. Ta geo aitte zana're kartzelan eon zan ta, bai, bastante; geo garai hartan gaiñea gure etxeok nazionalistak izandu zien, ta hemen pike haundie zan karlistek eta nazionalistekin. Geo terrenuakin ta're pleituk eta garai hartan zebiltzen, ta gure etxen'e hiru pleitu jokatu zittuen terrenuak udalanak ziala ta eskriturak eta denak euki ta batzuk udalai entregatu. Ta besteie kendu in nahi zizkien [...] ta hemen nahaspilla haundik ibili zien, nahaspilla haundik ibili zien herri hontan.
- Hemen gehienak zer zian, karlistak edo nazionalistak, o erdi ta erdi?
- Karlistak gehixeio izango zien. Geo alkatea're hemen auzoan zan ta jende asko engaiñatu zun uste det harek: pikaroa zan ta karlista zan ta asko engaiñatu zun harek ere. Hemen gauze txarrak'e bai bastante in zittuen. Taberna etorri ta beatzitako erretiratzeko "toque de queda" o hoi eon ber zun, ta ni ez naiz goatzen, lau urte nittun ta ez naiz asko goatzen hoi, baiño etxea zihoala beatzik joa zuenen, tiroz jota. Bertakoak e? Bertakoak. Ta hoi errotarie, hor Arrosin oain'e famili bizi da. Bueno, harek ez du zerikusirik hoik famili hoik, geroztik etorrik die. Baiño ta oilloak eukitzen omen zittun errotan zakukin berrogei kilo, konparazio baten, ta hiru o lau kilo laka esaten zitzaion, ordaiñe kendu itten zun artoai. Patu ez zan in ber izaten, artoakin.
- Bai, berantzako hartzen zun zati bat.
- Bai, ta oillo hoik eukitzen zittun, oillo-saille ta geo oillo hoik denak jan omen zizkien rekete o karliste hoik. Ta holako kasok paseak'e bai hemen, kaso tristek.
- Bai, herri txiki baterako gaiñea, danak ezagunak eta, ez?
- Bai, bai ta gorrotoa ta zikiña asko ibili zan hemen.

6. Ekonomia eta industria

6.1. Urangarenean, eraikuntza lanetan; paper-lantegien mugimendua

- **Hizlaria(k):** Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-009/010
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:09:07. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
 - Ekonomia eta industria » Industria motak » Papergintza
 - Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
 - Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Inguruetan gehienak maiorazgoak ziren eta paper-fabrikara lanera joaten zirenek fama txarra zuten. Garai hartan ari ziren pizten paper-lantegiak eta Uranga lantegiaren eraikuntzan parte hartu zuen. Irabazten zuen soldata.

Transkripzioa

- Bueno, etxera etorri nintzen. Ordun papelerak, batzuk ziren papeleran lan eitten zuenak. Ta nonbaiten lanean hasi in behar. Ta papelerak´e ordun hasi ziren pixkat piztutzen. Hemen jendeek papelera, papeleran lan eitten zuenengatikan gaizki hitz egiten zan. Papelera gizaixoak eta noski papelera ahulek-eta.

- Fama txarra zeukan.

- Fama, bai hemen dena nola ziren maiorazgok, "mayorazgos", hoi ta beste mutil zaharren bat izaten zuten denak laneako maiorazgoak ziren jauntxos, ezta?

- Ta lanera joaten zirenak.

- Ta lanera joaten giñen ta hola, ta ordun Uranganen obra bat atera zan, aber alde batera lana emango zuela, bide bat zan, hau baino zabal, hiru-lau metro hola, altura eman giñun "dos cincuenta" hola. Makina bat jartzeko zuloa in ber zan, zulo handie e, "dos cinquenta" behera ta lau metro zabal ta ondoan erreka zegon, erreka hue pasa ta bestalden beste zuloa zegon. Ta in behar izaten gendun: Karrille jarri errekan zulo batetiken bestera pasatzeko, ta bagoia oain dunperra diren bezela, ordun bagoia bat gendun, ta bagoi hoi bete lurrez, ta hamar pezta gendun, baiño betetzeko orain bezela kutxararik-eta ez zan. Betetzen gendun, zistoa bete, eskaillerakin eskailleratan gora iyo ta bagoia, bagoia betea. Hamar pezta. Hamar pezta ordun, ta joan giñen Berastegiko lau ta bi Berrobiko, sei launek alde batera hartu gendun zulo hue egiteko. Ta zulo hue ez dakit zenbat denboram ingo gendun, baiño in gendun, esan dizutena zabalaren horrenbeste altura ere bai. Ta igual zenbat metro izango huan harek: berroita hamar metro luze? Sekulako lana egin gendun han. Hola, geo behintzat hasi giñen Uranganen lanen, obran.

Ta ni hasi nintzenen, hoi lanoi bukatzen gendunen, ateratzen gendun jornala dezentea: hamahiru duro, hamabi, hamar. Segun zenbat bagoi betetzen giñun, sei lagunen arten partitu ta han. [Ordun kontua] hasi giñen gero enpresan, zeran barrun, zuloa ein gendun hontan, altxa in ber zan zea fabrike, makinak jartzeko ta orduko hiru pezta ta erdi hasi nintzen ni lanean han, hiru pezta ta erdi, bai...

- Hori zan Urangan, hori zan konstrukzioan-edo, ez?

- Bai konstrukzioan.

- Eta ze ibili ziñaten iten paper fabrika?

- Bai baina gero ia bueltan dator hor barrura sartu giñen gero. Hoi obra

egin gendun hoi, ez dakit zenbat arten. Hoi die ba “el año cincuenta”ko kontuk eo ez dakit, Hola ta behintzat geo lau pezta noizbait´e , lau pezta ta erdi...

6.2. Bazkaria lanean

- **Hizlaria(k):** Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-009/011
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:13:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Lanean bertan, oso bazkari onak ematen zizkieten. Zer menu izaten zuten azaltzen du. Lankide bat bazkari batean haserretu zenekoa kontatzen du.

Transkripzioa

- Bertan bazkaltzen gendun, han fabriken bertan, baiña bazkarie izugarri ona ematen ziun. Zopa, zopa ez, ezerrez, salda, ta babarruna, ta arraultz bat tomate pixka batekin. Hoi izaten zan gure bazkarie, ta gogoratzen naiz batek joan giñen bazkaltzera ta esan zun: “Hau zer da zopa o ure?” esan zun. Tenedorekin hasi zan zopa jaten, zopa ez da tenedorekin jaten normalen. Halako zan bea ere ta zopa jaten hasi zen tenedorakin ta ostias. Da! leihotik behera, platerak eta kristo guztik tiratzen zittuen beste harek, malaletxea zan!

6.3. Etxea egiten hasi eta hura ordaintzeko lanak

- **Hizlaria(k):** Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-009/015
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:19:55. **Bukatu:** 00:21:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Lanbideak » Arotzak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Bost urte egon zen nobiotan, etxea egin arte zain egon baitziren. Diru-laguntzak asko lagundu zien. Lanean suertea eduki zuen, igandetan aste osoko lana egiten uzten baitzioten. Gaztetan ez zuten aprobetxatu denbora elkarrekin egoteko.

Transkripzioa

- Ezkontzeko nahiko denbora pasa [...]. Bost urte nobiotan, gehiegi, gehiegi ta guzti zeatikan. Etixerik gabe geunden ta etxea ein behar ta nahiko komerikin. Ta etxie itten hasi giñenen, nik kartilan neuzken “ochenta mil

pesetas”, ez zittun askok eukiko hori igual e, “ochenta mil pesetas” ordun asko zien. Diru asko zan, diru asko zan. Hala teillatue eman zien, bintzat zor handiik gabe ordun genbiltzen komeritan ta subentzioa kobratu gendun, “sesenta mil pesetas”, jo! Harekin erreunittu ginun denak, anai igeltseroa ta hue ekarrarazi gendun ta harek bazeuzkan beste bi lagun asteasuarrak barrungo lanak eitteko, haiek ekarri giñun ta hementxe lanen. Nik bi hilleteko porroga atera nun fabrikatiken, ez ziren eman nahi izandu, baiño baten bat hartu beharra neuken ta bintzat eman zidaten, baiño kondizio batzukin eman ziaten porroga: igandero lanera joatekotan. Baiño ikaragarri gustora. Asten irabazten nuna igandean bakarrik irabazten nun, ikaragarri ondo tokatu, ondo tokatu zitzaten. Ta andreakin nenbillen ta esaten nun, mekaniko lana itten nun ordun, ta esaten nun: “Bueno, etorriko naiz lauak aldera edo bostak aldera”. Motoa nun ordun, lauak bostak aldera etorriko naiz, lauak, bostak eta seiak jo ta makinan azpin igual. Zikin-zikin inda grasaz beteta, bueno desastre, desastre. Gure gaztetasune izandu zan parragarria.

6.4. Dirua izandakoan erosten

- **Hizlaria(k)**: Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-009/016
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:21:45. **Bukatu**: 00:23:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Diaz, Josu
- **Gaia(k)**:
 - Ekonomia eta industria » Boom industrial
 - Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena**: Etxean bizitzen jarri zirenerako, dena ordainduta zeukan. Dirua izan arte, ez zuten erosten. Lan asko egiten zuten orduan. Irabazitako dirua amari ematen zion.

Transkripzioa

- Azkenenan etxea pagau ahal izateko ba hori ez, lan ta lan
- Baiño etxea, lan ta lan ta lan ta lan... Baina egia esatezkerok, bizitzen jartzerako peza baten zorrik gabe, etxea pagatuta hasi giñen gu. Oain nik askotan esaten det gauz bat´e: radio bat...aurrena dirua sobratzen gendun, gero ekarri.
- Gero ekarri baina ez alderantziz
- Telebisioa ez dakit noiz izandu gendun ta hola, baiño pagatuta ekarri.
- Bai, bai, etxea ere berdin, ez?
- Ni...Bai, bai, bai. Mueblek usatu jarri,
- Zorrik gabe.
- Usatu jarri giñun ta ahal gendun bezela ta puf! Andrek aiuntamentu ta eskola garbittu ta kriston lana, nik hamabi ordu baiño gutxio ez dakit noiz ingo nittun, lana ta lana ta lana... Orduraarte gaiñea, soldaduska joan arte amai, diru guztik amari, nik bakarra itten zun ia etxen lana. Bat etxean zegoan, baiño baakizu baserriko diru berrie, diru berrie ta gue ama beti diru eske, diru eske, diru eske, ta amai dirue.
- Zuk irabazitakoa amari ematen zenion.
- Amari eman, amari ematen nion. Ta dirua sobratzeko asunto txarra besteei emanda ta, baino, osasune ta...

7. Lanbideak

7.1. Etxea egiteko komeriak

- **Hizlaria(k)**: Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-009/014
- **Iraupena**: 0:03:58. **Hasi**: 00:15:57. **Bukatu**: 00:19:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Diaz, Josu
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Arotzak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena**: Neskarekin hasitakoan, etxerik ez zuten. Zer egin zuten etxea egiteko kontatzen du: anaiarekin batera diru-laguntza eskatu, eta etxea egin zuten familiaren lurretan; Donostiako arkitektoa ekarri zuten, eta beraiek atera zituzten zimenduak. Jendea esamesaka ibili zen etxea egin bitartean. Kontratista Leitza topatu zuten.

Transkripzioa

- Geo baakizu neskakin hasi nintzen, ta etxerik ez gendun. Hau gue terrenoa zan, baserrikoa, baiño baserri nola zan maiorazkoentzako dena. Gu ezer ez gendun. Ta terreno puska hau hartu gendun etxea egiteko. Bi anaiak, gazteenak eta nik. Etxea eitten hasi ginen, bueno etxea itteko idean hasi giñen ta hor beste etxe bat bazegoan, saltzeko atera zun ta ehun ta hamar mille pezta eskatu zizkigun ta esan [du] pisu txar hau bakarra ta ehun ta hamar mille pezta ta bi anaiak hitz egin [genun] ta etxe bat zeatik ez degu itten, Berastegin etxek itten ez gendun guk behin´e ikusi, inor´e. Lehendabizikoa herrín, gue gogoan nintzana hau da “el año sesenta y dos” ein gendun. Hala hasi giñen, handik eta hemendik eta nolabait´e ta paper baten leitu nun nik “que había subvenciones”.

- Etxeak itteko.

- Etxeak itteko ta paperak ein giñun, ta kobratu gendun, kobratu ere ein gendun: “Sesenta mil pesetas”, “a treinta cada piso”. Ta ordun etxea eitten hasi giñenen, jende guztia hitz eitten, “horii dirua zeñek emango zien etxia itteko?”. Familiarrak-eta okerrenak, ta hola, ta bintzat hasi giñen gero zimentuk-eta ateratzen, arkitekto bat Donostiakoa ekarri gendun. Ez dakit Donostiara zertara joan giñen, bintzat Donostiako arkitekto bat ekarri gendun. Planoak in zizkigun ta bi anaiak hementxe planoak jarri bazterren, neurtu ta bueno hementxe in beharko diagu hau aurreaxego hau horraexo, honaxeo, haraxeo... Zimentuk ateratzen atxurrakin ta palakin, ez zan kutxaraik, hemen bintzat, ta zimentuk ateratzen-ta hasi giñen ta hemen taberna zegon bertan amistade haundia nuen nik, bueno amistade denakin, baiño Benardo zan horko taberneroa ta etorri zan, ta beste batekin etorri zan zea bestea don Martiñeneko Pedro, hoi herriko hoi´e ayuntamentun zerbait e bazun hor, Kajero edo zerbait, bik etorri zien ta esan zigun: “Ze hasi zeate?”. “Ba etxe koskor bat ingo ote degun”. Ta hola ta esan zidan Benardo horrek esan zidan: “Tabernan zeuen ta jende guztia hitz itten ari dek zuengatik ta aber ze eitera zoazten, konejera edo zulo zikin batzuk itten ari zaretela-ta” handik eta hemendik. Eta esan nion: “Bueno, nik ez dakit zuloak edo ze izango diren, zuloa ahal dana egiten ari gara, baiño neurrik hok dauzke etxek”.

- Zimentuak.

- Hori ba! “Neurrik ta arkitektuk ein dittu, geure kasan ez gera ari” esan

nion. Hala hartu zittun datuk ta joan zan etxera, ta handik bealaxe etorri zan ta esan zidan: “Segi, ez iñori kasurik in, gure etxen neurrik zeuzkek, honek dittu “nueve y medio por once y medio””, ia ia ehun metro, etxea, nahiko etxea. “Segi!”, esan zidan “ateako dek etxea, bai” ta hola. [...] Dirua zeinek emango zigun ta iñork ez zigun laguntzen, baiño hitz egiteko nahikoak ziren. Geo kontratistan bat edo baten bat billatu ein ber, kontratista bat billatu gendun, hemen ari zana lanean, etxe bat erre ein zan ta anai ziren kontratista hoiek, Leitzekok, ta joan nintzen ta hitz in gendun, ba tratu egin gendun ta etxea ittea.

7.2. Eskupeko onenak Donostian

- **Hizlaria(k)**: Iparragirre Intxaurren, Xinfo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-020/007
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:08:31. **Bukatu**: 00:09:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Paper-fabrika zebilela, eskaerak banatzeko furgoneta bat zegoen, eta noizean behin hartan laguntzera joaten zen. Donostiara Mirakruz aldera joatea tokatzen zenean, ordea, txoferra bera bakarrik joaten zen, eskupeko onak ematen baitzituzten han.

Transkripzioa

- Bazan txofer zahar bat, kamion... Forrak, garai hartan Forrak zien kamionak. Ta Forra batekin ibiltzen zan; ta pedido gutxi xamar askotan ta hola ibiltzen zan, oain'e hola dabilte, okerrago oain, berriz. Eta jun ordu bitan lanea ta “bueno, joan hai kamionea hi txoferrai laguntzea!”, ta igual Pasaira o papera eman ber izaten zun, eta puertora igual noabaitteko; ta igual hiru-lau fardo paper ta hola aittona hari laguntzea behin baiño gehiagotan, bai. Eta geo izaten zittun, Kalparsoro zan nausia, Kalparsoro, ta haren ezaunek eta hor Mirakruz alden ta txaletatan ta haintzako paketen batzuk ematen zittun; ta beti bea joaten zan paketek ematea, sekulan ez giñun bialtzen gu laguntzaille, klaro, propinak eta izaten baitzien. Ta beretzako.

7.3. Hargina zeneko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Aranalde Lasa, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-025/006
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:10:03. **Bukatu**: 00:12:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Hargina zenean, zer lan egiten zituen azaltzen du. Harria menditik lortzen zuten eta kamioietan garraiatzen. Oinarritzko tresnak erabiltzen zituzten harriarekin lan egiteko.

Transkripzioa

-Harginak ze lan klase eitten zenduen? Paretak eitten esan dozu.
-Paretak eitten, bai. Etxek eitten-ta, hemen Eldun ein gendun, Berrobin ein gendun eta; etxeko, hemen Berastein ein gendun beste bat eta. Gero bordak ere bai ta. Hola aitzen giñen. Aitta're zahartu zan eta, gero etxe berrie ein zien hor, bi edo ta, haiei ezkiñ guzik hartzen eta. Aittek ez zun juan nahi izaten eta, zahartu ein zan eta. Haren tokin ni juaten nitzen.
-Eta harrie nundik ekartzen zenduen?
-Harrie kamionakin ere ekartzen zuen eta, irikin eta, hola ibiltzen zuen. Harrie, hemen harri asko baitao.
-Menditik?
-Bai. Harrobirik-eta bazan?
-Harrobik bazien baiño harrobie ez zen izaten; bestaldera, mendikoa, harrie ta. Gero ekartzen zuen kamionakin harrie falta zanen, beherko. Harri asko [...], etxea eingo [bada], harri asko behar du. Ez da bela osatzen.
-Eta harri bila zuek juaten ziñaten edo beste batzuk ibiltzen zien lan horretan?
-Harri bila gu nekez. Gu jartzen. Billa, ba, behin edo behin juango giñen baiño. Bestaldea, lan in behar zan tokin. Hola aitzen giñen.
-Eta zer erraminta erabiltzen zenduen?
-Erremintak mailluk eta ze hoiexek, ze haundiik ez. Gero, bakizu, plomadak eta holako zea batzuk; ezerrez.
-Elizatan eta ibili izan zarete?
-Ez. Hemen bai Platadien, eliza dao [...]. Horko barrio [...] denak eiñak die hoik. Berastegiko elize. Hortik Platadie behera. Izkiñetako paretak hoik danak nik in nittun, e. Beste bat eta biok hasi giñen eta hue nagusikin hasarretu eta ni aittu nitzen hor. Pareta asko baitao egiñakhor bi aldetatiken. Hoik'e nik eiñak die ta. Ba, hortxe nunbaitt ari in behar.

7.4. Trenbideko lana

- **Hizlaria(k)**: Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRS-028/021
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:37:48. **Bukatu**: 00:41:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Trenbideko langileak
- **Laburpena**: Jende ugari joan zen Berastegitik Amionera trenbidean lan egitera. Zer lan zen hori azaltzen dute, eta zer tresna erabiltzen zituzten deskribatzen dute (arpona, asto-zerra...).

Transkripzioa

-6-Ferrokarrillea bazien Berastegitik joaten zienak kapazoa hartu hemen zintzilika eta oiñez Amionera, ferrokarrillea lanea.
-5-Bai, hemen beranduntxoena ibilli zana Tomas zana izango uen bat.
-4-Xixilio ere bai.
--5-Hau mandoakin joaten zan, Ansa.
-[...]
-6-Ferrokarrillen trabesak sartu[...] egurrezkoak jarri eta burnik gaiñen korritzen zuen, eta trabesak usteldu itten zien eta kanbiatu ein behar ba.

-1-Trabesok hor bertan itten zien asko.

-5-Makiña bat iñek izan behar zuen gure aittona-ta, aitte-ta, Juan Sebaxtien-eta. Juan Sebaxtieni galdetu handiken hamar urtera holako menditan zenbat trabesa egin giñun-eta, eta da! esaten emen zun. Baiña zenbat in zittuen, e.

1-Bat gora tiratzeko ta asto bat, kaballeta bat eitten zuen eta egurre jartzen zuen han eta egurre ebakitzen zuen esku-zerrakin. Trontza bezela, baiño...

-2-Bat goien eta bi beheran.

1-Gora hutsik tiratzen zuen eta goitik beherakoan ebakitzen zuen.

-5-Goien bat izaten zan eta behean bi.

-Arpana da hori?

-4-Hori da, arpona.

-5-Bata arpona eta bestea da asto-zerra.

-Ez dira berdinak arpona eta asto-zerra.

-5-Ez die /eztie/ berdiñek baiña lan berdiñerako.

-6-Bata zinte da eta bestea berriz zabala.

-5-Bestea izaten da, armazoiakin izaten da asto-zerra. Asto-zerra da bi..., koadroa ein beharren triangularra ein, ezta, eta erdin zerra eamaten du, eta behean aitzen die bi zerrari, bi lagun tiraka. Eskulekue izaten da. Eta goien bakarra. Eta goikoak egin behar izaten du goitik beherakoan ebakitzeko erantsi. Eta gorakoan aurreratu lehen eginda dagon tokira ta behekoak botatzen due gora. Eta harek gero egin behar du goitik beherakoan erantsi ebakitzeko eta bestek tira.

-Hori asto-zerra.

-5-Asto-zerra, eta bestea izaten da zabala. Izaten du goien zabalagoa eta beheran meharragoa. Hori da arpona.

-Eta arpona eta asto-zerra erabiltzen dira oholak eta tabloiak egiteko?

-4-Tabloiak eta eitteko.

-6-Garai baten latak-eta eitten zienen, egurrek dexentek eta, osoiken, puxket ebakie utziz, baiño egurre osoik eamaten zuen. Lata, igual izango zittuen harek hamar, zortzi lata; Baiño osoiken.

-5-Gero aixeago ibiltzeagatik izaten uen, zeatiken zuk puxkatzen baldin badezu ibilli behar dittezu hamar puxke konpaziorako, eta bestela berriz... Eta azkenengo momentun lehertu ta ya está.

8. Iritziak

8.1. Bizitzan zehar egindako lanak

- **Hizlaria(k)**: Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-009/017
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:23:09. **Bukatu**: 00:24:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Diaz, Josu
- **Gaia(k)**:
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena**: 43 urtean ibili zen lanean papeleran. Bizimodu txarra, baina osasun ona izan du. Oraingo bizimoduarekiko zeinen desberdina zen hura.

Transkripzioa

- Berrogei ta hiru urte papeleran atera gabe. [...beharra dago] , berrogei ta hiru urte, hoi barrun atera gabe ta obran egin nittunak. Bai, ta fabrikan berriz jira, buf! Bueno dena hola, bizimodue, bizimodue txarra eman degu, baiño osasun ona ta oain hirurogeita hamazapi urte ta nik esaten, askotan, oain esaten det: "Zea aitona, yogur bat!". "Kadukatua dao", "kadukatue?", bueno bueno.
- Guk harrapatu izan bagendu...
- Harrapatu izan bagendu kadukatue zegola ta Jexus Maria. Aurretiken lan asko egin gendun [...], pixkat basoan´e bai, edozein gauzetan, lan guztitan...

8.2. Aisialdia eta neska-laguna

- **Hizlaria(k)**: Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-009/020
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:26:47. **Bukatu**: 00:28:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Diaz, Josu
- **Gaia(k)**:
 - Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
 - Aisia » Kultura » Musika
 - Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Neska beti garaiz eramaten zuen etxera bueltan. Askotan afaltzen zuen neskaren etxean. Igandetako plana hori izaten zen: musika. Gerora, afaltzera joaten ziren. Neskarekin hasi zenez geroztik, ez zen erromeriatara joaten. Garai hartan, ezkondu arte ez zen publikoki erakusten bikotea zenuenik.

Transkripzioa

- Nik egia esan behar bada, bost urte alkarrekin eman giñun, baiño, motoa nun, motoan argia piztuta behin ez nintzen alletu neskan etxera. Beti garaiz. Erretiro ona, erretiro beti ona ta zemat apari egin ote nun nik neskan etxean. Jaiero afaltzen neskan etxera, bai...Hola, bueno... - Lehen holan izaten zan ez, illuntzerako etxera, ez? - Bazien ordun parranda, bai, baziren bai baziren, parrandak egiten zittuenak. Baiño oso ondo. - Bestela igandetako entretenimendua ze izaten zan? - Hoixe. - Hoixe buelta bat eman… - Bizkarren ekartzen gendun, inbalidoa zan soinu jotzailea. Edo astoan gaiñen, astoan gaiñen batzutan zeren eta bizkarren, ta hue asenton utzi ta astoa joaten zan etxera ta hortxe pixka baten ibilli. Gero behin pixka bat koskortuta, pezta bat ikusi gendun garaien ba apari mokadu bat zerbait´e kontsejun-ta, ordun aparria eskatzen zendun […] ta ematen zizuen zopa ta gisadue ta xerra bat, afaria hua izaten zan, bai. - Ordun hori hemen igande arratsaldetan dantza ta gero neskakin hasi ta gero ere dantzara joaten ziñan? - Ez, ya, ez, ez, ez. - Hori ez zan izaten normala, ez? - Ez, hemen esaten gendun askotan. “Holako ezkontzen omen dek!” ta esaten gendun: “Andregaie ba al du?”. Ez zenun ikusten mutil bat neskakin. Asko esatea izango da, baiño Berastegin neskakin egun argiz ateratzen neroni hasi nintzen aurrena. Motoakin hemen behera etorri zenen bide txar bat zan ta horko

etxe hortakoa naiz ni, bertan ta etorri neskakin etxera, atzetiken nora ote nijoan zaintzen. - Jendea bijilatzen. - Jendea zaintzen ta mentalidadea zan holakoa, bai, bai.

9. Baserria

9.1. Garoak ebakitzen

- **Hizlaria(k):** Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-009/018
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:24:02. **Bukatu:** 00:24:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Baserriko lan egin zituen fabrian hasi aurretik kontatzen du. Garoak nola ebakitzen zituzten kontatzen du.

Transkripzioa

- Ordun´e baserrin´e lan asko izaten zan, laie, laie jotzen zanen, laye lurre jiratzea, sei gizonezko jarri ta zotala jira-jira-jira ta gero zuloa zaborra bota, zaborra botatzen mutil koskorra, ni hantxe zaborra bota. Garoa Berastegin, garoa, denak kalekuk zien, garoa ebakitzen zan ta fabriken hoi fabriken hasi baiño lehenao gaiña garoa ebakitzera.

Goizen jun, pattar pixka batekin edan ta illuntzeko hola garolekura sega bizkarrean hartuta, ta eun guztin mendin lanen, holako...

- Hemen baserriak danak bueno kale inguruan ez eta garo sailak mendian egongo ziran.

- Bai, hori ba, ta gu libre xamar geundenean esaten zin: "Hi, zera, etorri al hitzake garoa?" ta bueno batera joan bestera joan ta bestera joan ta bueno, beti hola.

9.2. Belarra ebakitzen

- **Hizlaria(k):** Lizartza Esnaola, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-009/019
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:24:57. **Bukatu:** 00:26:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Belarra ebakitzera joaten ziren lanera, eta nola egiten zuten lan kontatzen du. Lan handia zen, baina gustura ibiltzen ziren

Transkripzioa

- Belarrera joaten giñenen, ordun´e hiru bi giñun, bale baiño joaten giñen bi gurdi hartu, auzo, aita zana hil ezkerro, alkarri erantzita eaman hara,

gurdie kargatzeko ez giñen gauze, oso ume giñen arten oso gaztek, belarra ihartzen ze[...], ebakitzeko, bik ebakitzen zittuen gure belarrak, bik hillek daude: Zapate[...]. Manuel eta Graxi. Ta hoik ebaki ta gerok martxa, jiraz ta bilduz ta eitten gendun lana, gero gurdie kargatu behar ta gurdi kargatutakoan izaten giñun bi gizon gizajoak, berak´e lana izaten zun, gurdi kargatzera igual ez segittun, baiño joaten zitzaizkigun Arttoanekoa, ez dakit ze izen zun ta Ugaldeko, hoi bik matematikos. Gure belarra hoik kargatzen zittuen... Hor aldapa dago SanAnton esaten dioten hortara, horrera ekarri, gurdi bat hor utzi ta jira ta bestea eske joan. Bestea aurrera ekarri, alkarri lotu nolabait´e ta bi gurdi etxera ekarri belarrakin kargatuta baten. Honera etxera etorri, gure etxetzarrok, toki baserri askotan mandioa zittun, baiño hor nola ez zegon. Sardeka, bigarrenengo soilarura hirugarrena, benga iyotzen, belarra iyotzen, bueno bueno bueno, “desde luego”, dena gogatu ezkerro, desastre, desastre baiño gusto[...]

- Lan handia ta, ez? Dirurik ez

- Baiño halare gustora ibiltzen giñen, jaie edo jaiatsaldero etortzen baldin bazan, zerbait itteko edo, neskakin buelta bat ittera joateko-eo, “más contento que la leche”.

9.3. Baserriko lanak

- **Hizlaria(k):** Lecea Iparragirre, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-011/006
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:06:54. **Bukatu:** 00:09:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 - Baserria » Baserriko lanak » Garia
 - Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena:** Lehen lur asko zituzten, eta soroan lan asko egin behar izaten zuten. Garia ere egiten zuten, eta lan gogorra izaten zen. Laiarekin taldean nola egiten zuten lan azaltzen du. Garia lan zikina eta astuna dela esaten dute.

Transkripzioa

- Hola zan, bai, gure bizimodue.

- Eta hemen Intzan soroak eta asko izango zien, ezta?

- Bai, bai, bai, dena soro. Oain etxek eta haiek dauzke semek, eta gero hor etxe haieta alabak, berriz, ta hok dena soro ta terreno asko gendun, bai; terreno asko gendun, bai.

- [MARIA] Bai, bai. Hemen´e lan asko iñak gea hemen´e, bateko belarra dala ta besteko garua dala...

- [PEDRO] Soro-lana. Ordun lan asko egitten zan, lan asko egitten zan. Garie ere etxan egitten zan ordun, garondoetan ta, hura eitteko lana gogorra izaten zan, laiez, ta jiran lurre jira beharra, ta holaxe, dana holaxeko lana izaten zan lehen ta. Holaxe ohittu gea, lanen ikasik gea gu, bai, ikasi gendun. Oain, oain... ez gea gauze ez gea, baiño, hementxe.

- Zuek ere laietan itten zenduen orduan?

- Bai, bai, bai, bai... Saio earrak iñak gea, bai. Asko, asko.

- Nola izaten zan laietan, nola itten zan laietan?

- Ez dezu ikusi, ez dezu ikusi, hemen hor fotografiak´e bazien hor ez dakit

nunbait. Herrin izango die ta [...] bai. Gu giñen kuadrilla, sei-zazpi lagun jartzen gea herrenkan, jarri holaxe, ta laiek, oain'e badauzkat hor jasoak izaten dittut, sartu denak batera, ta lurre dena batea in, sartu laiek, eta denak batera jirau, hoixe atzeraka- atzeraka- atzeraka joaten zan. Hoixe. Galdu zan hura ere, ta nik oain'e hortxe dauzket, laiek hor dauzket nik oain'e. Arittu're itten naiz, baatzan ta oaindiken'e zeozer pixkat aitzen naiz.

- Bai?

- Jirutzen det. Bai, bai. Hemen gure etxe [...]Jez die aritzen, baiño ni aritzen naiz. Bai, ikasi gendun hortantxe. Ta ordun ez zan lan txarra're, lan ona zan ordun, oso errexa zan hura. Oain ez baiño... Ta gari asko eitten zan.

- Bai? Gari asko hartzen zenduen?

- Bai, gari asko eitten zan.

- Gariak lan asko izango zun, ez?

- Bai, lan txarra dena.

- [MARIA] Zikiñe, zikiñe, hautse ta zikiñe asko du hori. Barrura sartu ta gero jotzeko, ale hura apartatzeko, ta dena harlosa jarri, ta harri jarri, ta harei joka, ta oooo.

- [PEDRO] Lan zikiña da, bai.

- [MARIA] Lan zikiñe, lan astuna ta zikiñe.

9.4. Janaria gerraostean

- **Hizlaria(k):** Huizi Apezetxea, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-011/007
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:09:03. **Bukatu:** 00:10:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 - Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 - Baserría » Baserriko lanak » Garia
 - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Ogia ekonomikan egiten zen etxean gerra aurretik. Gerraostean, gosete handia izaten zen, eta taloa jaten zuten gehienbat. Gazta eta mamia ere ez zitzairen falta izaten. Kaletik baserrira joaten zen jendea janari eske.

Transkripzioa

- [PEDRO] Ogie ere, garie errotan iho ta etxen itten zan ta ordun ekonomikan ta labetan ta itten zan, etxen itten zan ogie. Gerra ondore hortako kontuk. Hoi ya, geo ez, geo gerra ondore hartan gosete handia zan, ta zerbait behar zan, ta taloa. Artoa ere asko itten zan ta.

- [MARIA] Gure gazte denbon gu dena taloa izaten gendun: goizen taloa, eguardin taloa, atsalden taloa, gauen taloa. Gaztaiña erre eta esnea ta hola gauen, gaztain garaien, bai, dena holaxe, gu...

- Hori izaten zen orduan janari inportantena, ez?

- [MARIA] Bai, janari sana, sana, janari sana. Gazta etxen izaten gendun, nahiko gazta izaten gendun, ardi gazta.

- [PEDRO] Ardi asko ta...

- [MARIA] Gero mamia ere nahiko izaten gendun etxen, ta kanpotik'e jende asko juten zian gure etxea behintzat han baserría. Gazura gazta ondoko

esnea [...] atera ta gazta zaharra jatea, jende asko juten zan, bai, baserria asko juten zan ordun, garai haitan, gu gazte giñela.

9.5. Ardiak eta haiek zaintzen

- **Hizlaria(k):** Lecea Iparragirre, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-011/008
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:10:15. **Bukatu:** 00:11:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserrinari lotutako lanbideak
 - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Ardi asko eta behorrak izaten zituzten gaztetan. Gerora pinuak jarri zituzten, eta ez dago halakorik. Pedroren aita ibiltzen zen artzain gehienbat. Haren artzain-bizimodua nolakoa zen kontatzen du. Etxean morroiak izaten zituzten. Ardi-gazta egiten zuen aita, baina ez zuen jaten.

Transkripzioa

- Ta hemen ere eukitzen zenduen ardiak eta?
- Bai, bai, gure gazte denboran ardi asko, asko izaten zan. Gero piñuk jarri zien ta kendu behar izandu zien; behorrak ere bai, ta ardi asko, ta oain ez dao... ta aspaldin kendu giñun denak. Oain ezer ez, hoietakorik ezer ez.
- Ta zein ibiltzen zan artzain?
- [MARIA] Honen aitta're bai asko.
- Nere aittek gu baiño haure gehiego hue. Gu're bai, ni geo asko, gehiena ni ibiltzen nintzen, baiño gure aita zana gu baiño gehio. Gu erabat artzai ibiltzen zen. Geo mendin han aparte Goizutaldea aparte zan hemen mendik eta... han izaten zien ardik, ta han bordak eta txabolak eta bertan eukitzen zitun, ta txabolan bertan lo einda ta hola ibiltzen zan hue. Hue etxeko baserriko lana baiño gehio aziendatoko martxa ibiltzen zun aittek, bai. Gero etxen morroiak'e, gu ttikik giñala morroiak, hemen itteko lana morroiak izaten zien, ta bai. Hoik ezautuk gea, bai.
- Eta orduan aita ardiekin joan ta txabolan hantxe egoten zan.
- Bai, bai, bai, asko, zortzi egun igual, ta holaxe.
- [MARIA] Gazta earrak beak egitten zittun e? Gazta, ardi-gaztak, eta beak ez zun probatu're egitten gaztaikan.
- [PEDRO] Ez, gazta ez zun jaten harek...
- [MARIA] Ez zun jaten.
- [ELKARRIZKETATZAILEA] Egin bakarrik berak.
- [PEDRO] Ein bai, ta gazta ona.
- [MARIA] Egin bakarrik. Jan ez, jan ez zun bate itten.

9.6. Janaria kontserbatzeko moduak

- **Hizlaria(k):** Iztueta Lizaso, Flora; Iztueta Lizaso, Saturnino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-017/011

- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:15:10. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Janaria kontserbatzeko gazi-kutxa erabiltzen zuten.

Transkripzioa

-Lehen frigorifiko eta halako...
 -Ez zan. Negun bakarrik...
 -Gazi-kutxe, ez dakit zer dan baakizun.
 -Gazi-kutxa?
 -Bai. Hola itxi-itxi zera bat, kaja bezela, [...], eta han sartzen zien, gatzakin josi han, ta harria gaiñea bota ta karga-karga ein ta urdaizpikoa-ta han konserbatzen zien.
 -Gatzetan.
 -Gatzetan, bai, gatzetan. Oingo frigorifikoak baiño neretzat nahio, beste gusto bat izaten zun. Gero begiratu gatza hartzen zuen eta [...]. Neretzako, ez dakit, batzuei ez zaie gustatzen.
 -Eta ardikiarekin ere berdin egiten zen?
 -Bai, ardiakin berdin. Negu-negun eta gure etxen egoten zien, ardi koskorak egoten zien eta. Baiño gaiñontzien ardie berdin, gatza emanda. Odolkik in, [...] pixkak jan, baiño geo hua. Ta gatza [...] zintzilik jartzen zan mandiuana edo [...] lekun, zeziñe. Hori eitten zan egualdi onakin seka-seka in [...] Urdaiazpikok'e holaxe eitten die.
 -Zintzilik jarri eta gero sekatzan utzi.
 -Bai, bai. Eta sukaldean askotan azkarrena, hemen sua itten zalako, sukaldian.

9.7. Zelatungo bizimodua artzain gisa

- **Hizlaria(k):** Iztueta Lizaso, Saturnino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-017/020
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:31:20. **Bukatu:** 00:33:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** 600-700 ardirentzako leku handia behar izaten zen. Zelatunen zenbait txabola zeuden eta nola erabiltzen ziren azaltzen du.

Transkripzioa

-Nola egiten zenuen? Zuk urte osoa pasatzen zenuen han (Zelatunen) ala honea etortzen zinen?
 -Negun honea.
 -Eta ardik?
 -Ardik'e bai. Hemen al dan bezela ibilli behar mendin eta abar-ta. Hementxe.
 -Hemen bazekazuen 700 ardirentzako lekua?
 -Bai. Piñu batzuk moztu aldian behin eta. Erritan jarri ta, multa batzuk pagatu ta. Danea ohittua nao ni.

-Eta han Zelatunen egoten ziñanian uda aldian ze bizimodu izaten zendun?
 -Ona han. Zelatungo trabenarik'e ordun laguna behar izaten zuen eta lan puxka bat itten zuen ta jana tope ematen ziaten nei han ordun. Tope!
 -Zelatunen ordun txaboletan jaten eta ematen zuen?
 -Baa. Bai, beti. Oin'e emango due baiña han trabenari fuerteak bazian.
 -Lehen ere oraingo hiru txabola hoiek zeuden ala zenbat txabola zeuden han gain-gaiñian Zelatun erdian?
 -Harek [nere gogoanian?] edo hortxe egiñak dia. Haik ein berriak dia, bat behintzat.
 -Bar berria, ez?
 -Bat berria, ta bestia're bai. [...], txabola ederrak dia haik. Hamaika aldiz ardik jazten eta mozten arittua nago ni han, bordatan. [...] Lehen han eitten zun zerbizioa udaberrin ardintzako ta negun, udazkenian trabenaako. [Jarri] garbittuta ta. Mendin'e, bakizu, kozina txartxuaua, ontxuaua, dana ona izaten zan eta. Dana ona, bai. Geo soldau asuntuan'e puxkat kozinan ibillia neon han'e ta. Pixkat ikasia neon eta, asko [zabaldu nitzan]. [makina bat] kafe ta salda [einda jua nitzan] borda haitan.

9.8. Gerra ostean lurren jabe, baina ezin haiek erabili

- **Hizlaria(k)**: Azpiroz Nazabal, Simona; Saizar Ugartemendia, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-022/015
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:28:14. **Bukatu**: 00:30:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
 Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Aita hil zenean, ama alargun gelditu zen 6 ume txikirekin. Anai-arreba bakoitzak zer egin zuen azaltzen du. Bixente baserrian gelditu zen, baina lurrak maizterrei emanak zizkien. Horregatik, gosea pasatzea ere tokatu zitzaien. Aurrera atera ahal izateko nola moldatu ziren azaltzen dute.

Transkripzioa

- (Bixente) Hue hil zan eta gure ama geatu zan alargun, jakiñe. Familie ere mutikoskorrez betea, zaharrenak hamar urte, hue seminaria joan zan. Bigarrenak zortzi-beatzi, hark'e hamabikin, joan zan.
 -Bai, zuk zazpi ziñun ta beatzi. Jose Ignazio beatzi, zuk zazpi.
 -- (Bixente) Hue ere arotzeiara joan zan, Tolosara ofizioa ikastea, Inazio eta baserrin ni geatu nitzen etxean terrenokin.
 -() Baserrie, terrenoak bazittuen baiño baserrik ez zun. Baiño berez baserrik ez zuen, ez zuen. Denak maiztarrai emanda zeuzkean. Ta geo nola gerran ondoren gosea etorri zan.
 -(Bixente) Urte txarrak zien haiek.
 -Nahi izandu zittuen terreno bat edo beste eskuatu ta maizterrak ez zien, ez zien zeditzen, ez zizkien ematen, ta ordun ba goseak bizitzea-ta aillegatu zien. Baserrie gendukenak etxen iten gendun artoa, babarruna, garie. Artoakin taloa eitten gendun, garikin ogia eitten gendun, ta babarruna bagendun. Hok, berriz, batez, joan behar zuen erostea. Nola bazuen, dirue ekarri zuna dena ez zun erosketatan gastatu, baizik geldittu zitzaion diru hoi. Prestamoak zittun. Ordun prestamo haieztatzen bizittu zen

hoen ama hok soroan hasi zien arte. Baiño honek hamalau urte zittun arte ez zien iñork terrenoik utzitzen lana itteko. Terrenoak bazittuen baiño maiztarrak ez zien uzten.

-(Bixente) Bost etxe, bost baserri, baiño ez ziun uzten.

-Baiño hamalau urte zittula honek ordun hasi zien, utzitzen hasi terrenoa puxkat uzten eta hau hasi zan lanen. Ta honen anaia, bi urte gaztegoa baita, hok bi anaiak ikastea ez zien joan, dedikatu zien baserria. Eta handiken biziik atea zien.

9.9. Gerra ostean nola moldatzen ziren janaria lortzeko

- **Hizlaria(k)**: Azpiroz Nazabal, Simona
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: BRS-022/016
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:30:12. **Bukatu**: 00:32:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerra ostean, gosea zen garaian, ogia jateko eta janaria lortzeko nola moldatzen ziren Bixenteren eta Simonaren familiak kontatzen dute.

Transkripzioa

- Baiño bere amak esaten zun. Pentsatu gure etxea, guk baserrie bagendun, eta labe haundi bat gendun, eta han itten gendun ogie astelehenetan aste guztiako. Kutxe baten jartzen gendun maindire batzun gaiñen eta gaiñetik beste maindire batzuketan tapatu ximelago egoteko, ez sekatzeko. Eta honen osaba, behorra batzuk, Elduaiña joan zielako ta, gure erreteroa zan, gure etxeko erreteroa zan osaba hoi, ordun behorrek ekarri zittuen gue etxea, eta behorren bila hau joan zanen, gure ama ta honen ama zien lehengusuk. Ordun gure amak ogi hoitako baten zati bat, erdie edo eman zion honei etxea eamateko. Ta honen amak esaten zun: "harrek zortzi egun baiño gehigo in emen zitun kajoi, puxke bat kendu. Arreba zuen osasunez moteltzegokoa, ta harrek taloa ezin jan, ta harrentzako izatearren ba han sartu ta eukitzen zun ba mahai hartantxe, berak kajoiak erakusten zun. "Mahi honetxan kajoiak sartu ta ogi puxketa harrek zortzi egun in zittun gure etxan". Patata edo in ber zenduna itteko olioik ez zan, azukreik ez zan, dena ez zan. Ordun ba porru-patatak gauen in ber bazittun'e, esnea egosten zanen gaiñe kendu ta esne-gaiñ hue bota grasa. Gu enkanbio baserrikoak nola giñen, guk txerrie're hiltzen gendun, ardik'e bagiñun ta guk gendun jana, jateko gehigo genun eta. Garai hartan, bakizu, txerri-grasa gaur txarra da ta bota eitten da, ordun dena jasotzen gendun. Pata prejittuk etahok denak itteko're ba grasa harekin itten zien. Eta gure alabak eta askotan: "Ama, baiña horrek grasa du", esaten dit. Nik esaten diot: "Neska, gu grasakin indako patata-prejittukin ta zeakin bizitu gea ba. Ta larogeita hiru urte aillegatu gea. Zuek noiz arte egotea espero dezue ba", esaten diot nik alabai.

9.10. Gurasoen herentziaren banaketa

- **Hizlaria(k):** Saizar Ugartemendia, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-022/017
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:32:19. **Bukatu:** 00:34:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Gurasoen herentzia anai-arreben artean nola banatu zuten kontatzen du Bixentek.

Transkripzioa

-Bueno, lehengo segitu bihar diogu. Ordun ama gelditu zan alargun eta famili zai; entenditzen dezu? Eta orduan zeoan don Andres Bikendi hoi apaiz, erretorea. Erretoreakin amistade haundie zun. Ta geo aitta hil zanen'e testamentuek itteko ta erretorekin-eta ibili zan. Testamentuek-eta, Salterain zan ordun Tolosako notarioa. Salteraiñek, ekarriarazita edo iñ emen zuen ta, parte bat amai eta beste bi parte umei utzi zien, hiru parte inda. Terzia parte bat amantzako. Eta aitten [heredentzia] hartatiken neri hau eman zien. Baserri oso-osoa, hau, bere borda ta. Ardik'e bazittun honek. [azioak]'e bai mendin. Baserririk osona hau zan, bost haitan, bost baserri gehigo're bai baiño baserrik osona hau zan. Ta nik hau hartu nun ta eskatu zien ta gue etxen lan in nulako, eta [...], garie ta artoa ta eitten hasi nitzelako, ta etxen lan in nulako. Orduako hau lagune banun soldau joateako're banun hau lagune.

-Bai, hemeretzi urtekin hasi giñen. Presaka, bakizu, gero denporaik izango ez dalako, hemeretzi urtekin.

-Hala eskatu nintzen-eta, soldauxkatik etorri nintzen, soldauxkan bi urte in nittun. Handik etorri nitzen, ta [...] Artzaie bizi zan hemen, maizterra, dana abandonatue zeon.

-Etxea're bai, etxea're zeuken dena abandonatuta.

-Dana larrak eta zeलेbre. Makiña bat lan in nun. Baiño behintzet eman in zien hau. Ezen graberik gabe eman zien. Nik [...] pagatzeko lanik ez nun. Geo etorri zan hoi, aittan partekua zan, eta aman partekua're eskatu in gendun. Han'e belaze haundi bat eta baittugu gehigo're, eman zizkiuen belaze haundi hoik, eman ziguen eta hoik'e partittu in giñun. Baiño guk egoskorak eta zeak giñen baiño denok aldatu gea ixil-ixiliken. Hemen soiñu asko ibili da familitan hola herentzikin-eta, baiño gu oaindaiño, taka!, ixil-ixiliken egoten giñen. Baiño erretore hue zan txorrontxanoa, lehen esan detena, baiño hola zorrotza're bai haundie.

-Batzuentzat bai.

-Gu harek hartu giñun etxeko umek bezela ta. Ama alargun zeoan-ta harek gui eman zigun elizen lan asko. Ni monagillo, [...] kantore ibilli ni elizen. Tenorra nitzen, oain baiño eztarri [earraua] nun-eta.

9.11. Erditze lanerako prest logela

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Nazabal, Simona
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

- **Erref:** BRS-022/026
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:49:31. **Bukatu:** 00:50:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Lehen logelan apain-mahaia egoten zen, eta haren barruan garbiontzia. Garbiontzi horren gainean lihozko toalla egoten zen, eta azpian balde bat. Emakumeek umeak logelan izaten zituzten, eta balde hori lagungarria izaten zen.

Transkripzioa

-Baiño izaten zan ordun, kuartoan izaten zan tokadore bat. Klaro, baserritan jaiotzen zien umek, ez. Izaten zan tokadore bat hola hankaluzekin, ez, ta goien zun zulo bat hola. Ta zulo hortan zan palenkana zuri bat, eta haren barrun jartzen zuen txarro bat, txarro zuri bat. Hori zeazkoa zan, esango al dizut, portzelanazkoa. Ta ordun, toalla esan dizut hola bordatuta. Toalla hoi egoten zan horren gaiñen txintxilika. Kuartoa sartzen zinenen beti palenkana, txarroakin, txarroa hutsik arten, eta txarro horren gaiñen jarrita toalla hoi eukitzen zuen. Hue holaxe zan.

-Eta holakuak izaten zien kuartuak?

-Geo zun horrek palenkana horrek azpin zun hola balde txiki bat bezela. Eta igual parton da geatzen zienen, txarro hortan ure ekartzen zuen kuartoa, palenkana hortan garbitzen zien ta ur hoi, altxako balitz bezela altxa ta juten zan behera balde hortaa.

-Prestatuta zeuden orduan kuartoak partoetarako ta.

-Bai, deneako prest egoten zien.

9.12. Ezkonberritan baserria pixkanaka betetzen

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Nazabal, Simona
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-022/029
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:54:40. **Bukatu:** 00:55:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak
- **Laburpena:** Ezkonberritan aurrera ateratzeko nola moldatu ziren azaltzen du.

Transkripzioa

-Derrior-derrior ba baserrie behar zendun, handik atea behar zun. Ganadukin esnea, txekorrak, geo amak-eta eukitzen zittuen txerrik, oilloak; bizie ateatzeko ta hala're juxtu-juxtu ateatzen zan. Guk geok honea etorri giñenen era hortaaxe etorri giñen. Ekarri giñun behiek eta txerri bat, oillo batzuk eta hasi giñen ba hoikin. Ta nola beste iñora lanea-ta ez giñen ateatzen, etxeko gastue dena atea behar gendun hortik. Gero itten gendun babarruna ta, ba hoi're saltzen gendun. Tolosa feria jun-eta hoi saldu ta hoikin hartzen gendunakin asteako etxeako behar zana ekartzen gendun. Jornalik ez da izan.

9.13. Zazpi seme-alaba aurrera ateratzen

- **Hizlaria(k):** Azpiroz Nazabal, Simona
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-022/030
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:55:36. **Bukatu:** 00:57:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Zazpi seme-alaba mantentzea gogorra izan zen, baina eskola bukatu eta lanean hasi zirenean erraztu egin zen kontua. Seme-alabei buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Ba holaxek ateatako bizimodue deu guk, bueno! Guk gurasoetatik hoi ezautu gendun ta bate perezaik gabe hartu gendun gaiña hau. Ez zigun, ez dakit, ez zitzaigun iruittu zaille zanik. Baiño gero hasi giñen ta ez zan erreza. Gero horrenbeste ume giñun. Hoik denak aurea ateatzeko... Ordun kanpoa eskolaa juten ez zala. Zarrena jun zan eskolaa Arrasatea-ta, hue bai. Hue kosta zitzaigun baiña bestela ikasi zuena hemen ikasi zuen. Suerte bat ona izan gendun guk eskolatik hamahiru-hamalau urtekin ateatzen zienen lantokie zegoan, ta gure umek ba hamabost-hamasei urte hortan lanea hasi zien bai bixkiok eta denak hasi zien bere lanea. Ta ordun ez gendun harrenbeste behar ta bueno, errezago bultza giñon, ez. Baiño bitartekoa izan zan nahiko goorra. Nahiko goorra izan zan, bai. Oaiñ, handiken aurea hoik bere lanetaa joan zien. Gaztenak oain dauzke berrogeta sei urte, eta harek batxillerra harrek in zun. Ez zun nahi beak, e. Ikasteko gogo haundie ez zun eta ez zun nahi, baiña hok senidek esaten zien "baietz, hori ikasi in behar dezu Anamari, gu lanea jungo gea baiño zuk ikasi in behar dezu" ta. Batxillerra atea zun baiño ez zun aurea segittu nahi izandu. Joan zan Azpeitiko bere ahizpakin. Ta harekin neskame zeoala mutil-lagune orduako azpeitiarra zun hemengoa, [...], Lasaokoa, eta harea joan zan eta handiken bi urtea edo ezkondu zan eta bik han bizitu die.

9.14. Karearen erabilerak eta onurak

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Iztueta, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-026/012
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:28:47. **Bukatu:** 00:31:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Kareak hainbat erabilera zituen: desinfektatzeko, etxea zuritzeko, soroaren azidotasuna kontrolatzeko... Arbiari begiratuta jakiten zuten ea lurrari karea falta zitzaion. Kareak lurra harrotu egiten duenez, landareari on egiten dio.

Transkripzioa

- Karea zertarako erabiltzen zan? Lehen esan dozu oilluen garbitoki azpian botatzeko...
- Bai, baiño karea erabiltzen zan sorotan. Aparte, bueno, letxada pixkat itten zan, ikuillue o zerbait zuritzeko're, etxea zuritzeko're bai, sukaldea ta; ordun oaingo pinture plastikoik eta ez zan. Ta erabiltzen zan, ez zien oso txukun-txukunak egoten etxek, baiño aldin behin erabiltzen zan karea pixkat. Eta sorotan gehienbat urte batzutatik behin soroai botatzen zitzaion karea. Guk PH izeneko kontu hoi ta ez giñun ordun ezautzen, ezta? Baiño gero eskolan ta pixkat ibili nintzenen, zahartutakon, zahartutakon o bastante aurreago pixkat ikasi nittun ezta? Azidezak, eta alkalino eta asunto hoi pixkat...
- Pixkat ze efekto itxen zeban ez?
- Eta lurretan gehienbat nabaritzen zan batibat arbikin karea falta zula. Soro baztarretan ta hasten zitzayon, arbia ateratzen zendun ta karatxo koskor haundi batzuk eta oso arbi raroa, leune eon beharren. Ta ordun konturatzen zan jendea karea falta zula soroak. Hemengo kasoan e? Bestek ez dakit ze kriterio ibiltzen zuen ta ezer'e.
- Ongarri moduan erabiltzen zan.
- Bai, bai, ongarri, bueno, ongarri ez zala bazekien, baiño lurre harrotu itten zun. Lurre harrotu itten du asko. Ta ordun landarentzako ba prestatu itten du lurra ere ondo. Gehiegi botatzen bazu, gehiegi botatako urte hartan zaiña ezin lotuz egoten da lurrei, baiño bere neurrin botatzen baldin bazu ondo erantzuten du.

9.15. Karea etxegintzan

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Iztueta, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-026/014
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:33:50. **Bukatu:** 00:35:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Hasiera batean, karea lurra lantzeko erabiltzen zen. Geroago, buztinarekin nahastu eta etxeen egiturak egiteko erabiltzen hasi zen.

Transkripzioa

- Fundamentala izandu zan, geo zertan erabili zan? Baita're aurrena lurra prestatzen ibiliko zian ta gero asmatu zuen, ba, buztina nahastu karea, morteroa deitzen zaiona, morteroa in, ta etxeei estrukturak, paretak eta gauzak, itteko. Osea hemengo baserri denak daude lengoak harrie ta morteroa lurre ta kareakin indakoak, denak. Eta horrek, ba, karea ta buztina ondo nahastu ta gogortu're itten da pixkat, eta harrik bere hartan lehorren jarri gabe, ba harria're hobeto asentatzen dezu ta paretak, hola, hemengo estruktura denak, den-denak, bat utzi gabe, etxek denak hola inek daude. Bordak, adibidez, borda batzuk badaude, batez ere zenbat harri klase harri asentu onekoak, hor hauzkalden badaude. Eta hor badaude harrik denak lehorren jarritakok. Bordak eina bate lurrik gabe, harri hutsez tolestatuz ezta? Bate lurrik gabe. Baiño etxek denak lurrekin inek daude.

9.16. Karearen beherakada

- **Hizlaria(k):** Etxeberria Iztueta, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** BRS-026/016
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:40:32. **Bukatu:** 00:42:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Karea ona zen desinfektatzeko, paretak egiteko eta lurrak lantzeko. Kultura maila handia behar zen karearen balioa aprobetxatu ahal izateko. Bere garaian, kareari ez zitzaion garrantzia eman eta karea egiteari utzi zitzaion. Kareak, ordea, onura handiak dauzka, eta komeni da hura erabiltzea lurra aberats mantentzeko.

Transkripzioa

- Ordun ba karea zertarako zan? Ba ikusi degu, ba desinfektatzeko alde batetik, oso inportantea dalako desinfektatzeko; beste aldetik, paretak eta gauzak itteko; baiño fundamentalki nik uste gehiena ibili zala lurrek lantzeko, PH iyotzeko ta prestatzeko guk behar dittun baratzak eta soroko gauzek produzitzeko eran jartzeko. Hori ez da entzuten, baiño nik konklusio hori atera det. Gero hori zan kultura mailla garai hartan nik pentsatzen det nahi ta nahi ez haundia behar zula gauza hoik denak ulertzeko ta aplikatzeko, baziela behintzat. Ta gero gertatu dana da gure garaian karea batek balio zun gauz bat balitz bezela, ez zitzaiola bate inportantzik ematen. Gero jendeak karea itteai utzi zion, lur-lanai'e utzi zitzaion, ta gero uste izan da soroa ez baldin badaukezu ez dezula kareik behar; baiño geo gertatzen dana da belarditan belarra gastatzen bazoaz, harek karea kentzen dio lurrei, baiño lurrek eman ber dio karea behar duna, ta dijoa lurra pobretzen-pobretzen. Ta kare falta horrek, ba, gero ekartzen du belarrak ere aldatzen dijoaztela. Belarrak lehorrak ordun. Kare-aplikazioa sistema horrekin o beste kare-formula batzuk'e badaude[...] itten dienak adibidez, ta ordun ba hori aplikatzea komenigarri dala nahiz ta soroa ez ibili.

9.17. Ardientzako zuhaitz-hostoa

- **Hizlaria(k):** Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BRS-028/014
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:23:37. **Bukatu:** 00:26:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Lizar hostoa eta garo zimela ardientzat erabiltzen zituzten. Bakoitza noiz eta nola biltzen zen eta nolakoa zen azaltzen dute. Ardiek gustura jaten zituzten lizarren hostoak, eta haren adarrak neguan sua egiteko erabiltzen zituzten. Beste zenbait zuhaitzen adarrak ere erabiltzen zituzten. Neguan, berriz, pagoa botatzen zuten behorrentzat, zotzak jan zituzten.

Transkripzioa

- 1-Ordun neguako reserba ein behar izaten zendun lizar-hostoa, haik sekatu ta...
- 6-Neguako ardintzat.
- Lizar hostoa ta?
- 3-Igartutzen zien eta. Sekatuta, e.
- Adarra hartuta?
- 5-Adarra. Gero adar harek baliotzen du babarrunentzako pardatarako.
- 3-Bi urtekoa behar du, bi urtetik behin arbola bati kentzen zitzaion.
- 6-BordA-ukuillun zutik jarri behar dezu sekatu arte. Zutik sekaten danen ganba(ra)n pillatu.
- 1-Hegaizek jotzen duenen... Bai, ilbeheran.
- Hori ganaduentzako?
- 6-Oain jendeak pentsut eta ibiltzen du baiña ordun ez zan pentsue. Ahal zana eman behar izaten zan, belarra edo
- 1-Garo zimela ere bai, sekatu ta zimeldu eta hue. Garo berdea.
- 6-Usai earra izaten du garo zimelak. Kamaiñetan'e ona izaten zan garo zimela.
- Garo zimela gorritutakoa?
- 6-Ez, ez, berdea, sekatuta.
- 2-Berdea dagola sekatu.
- 6-Guk Letzalden txabolan kamaiñan lo hartu ta egin bear izaten gendun, mendin Leitze alden eta txabolan eta, garo zimela giro onakin ondu baldin bazan izugarrizko usai earra. Usai bat izaten zun garo zimelak... Belarrak baiño hobea.
- 1-Zeak ere bai, mendin ibiltzen zien ikazkiñek'e. [basolariek]'e bai ta.
- 5-Aiñarra ere bai asko.
- 2-Ordun ikazkiña ta basolari asko izaten zan, eta haik danak txabolan...
- 1-Koltxoak oain bezelako aukeraik ez zan izaten ordun.
- 2-Koltxoak basuran ear askoak ikusten die baiño.
- Lizarra ardiei eta emateko oso-osorik?
- 2-Bere adarren.
- 6-Belarra jarri [ganbelan] eta haren gaiñen jarri hostoa ta ederki jaten zittuen.
- 2-Soil-soill eitten zittuen.
- 6-Belarra eutsi eitten zion. Gero adarrak pardataako modukoak zienak

aparte. Txikik sue piztutzeko. Neguako sua piztutzeko.

-1-Oain gazteei alperrik da esatea gauza hoik, txorakeriekin ze ai zea?

-5-Esan, aitzeko bakarra, itteko ez.

-Eta lizarra? Besterik ez?

-4-Gerize ere bai. Araitzekin'e bai, araitzekin'e egin izandu da.

-5-Negun berriz pagoa botatzen zan behorrantzat zotza jateko.

-6-Behorrak beti hausnarran behar du. Animalietan behorra da onena.

Hausnarrik ez du /eztu/, ardik eta behiek eta badue baiña behorrak ez du ta eta beti jaten ari behar du behorrak.

9.18. Lizar-hostoa eta garo-lanak udazkenean

- **Hizlaria(k)**: Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRS-028/015
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:26:42. **Bukatu**: 00:29:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Zuhaitz-adarrak udazkenean mozten zituzten. Garoa ere bai. Metak egiten zituzten orduan, mendian bertan, gurdia iristeko moduko leku batean. Garailea deitzen zitzaion garo-lanean lanbide gisa aritzen zirenei. Lagun horiei ordaindu egiten zitzaien. Zer tresna erabiltzen zituzten lanerako aipatzen dute.

Transkripzioa

Noiz izaten zan (adar) moztea, uda partean?

-6-Udazkenen. Setienbre, otubre. Garoa itten da otubren. Ilbehera behar izaten zuen. Pagoa ilberrin.

-Garoa?

-Garoa udazkenen. Azpik egiteko. Behientzako; metak itten zien.

-Garo gorria?

-Bai. Hori otubre, Pilarika aldera izaten zan hori.

-4-Jeneralen Pilariketan.

-2-Pilla galantak eitten zien, Jesus! Mendik garbi-garbik baizien! mendik garbi-garbik. Segakin.

-5-Gero adelantoka etorri zan segadorakin.

-6-Ordun segai eskuarea jartzen zitzaion, eta eskuareakin mailla biltzen zun ebakitzen ari ziñenen; mailla bildu ta gero iteiekin edo bueltaka-bueltaka-bueltaka zama itten zendun.

-3-Eta geo hartu sardekin eta meta in ber zan tokira.

-4-Aurrena iteiekin bildu.

-Metak bertan egiten ziran?

-Bai. Gehienak bertan.

-2-Beste batzuk bazien etxe ondota itten zittuenak 'e. Baiño normalen bertan.

-6-Bide izkiñan baldin bazan edo... burdie aixe kargatzeko tokin meta in behar. Gurdirik sartzen ez dien tokik, aldapak edo baldin bazien, bide izkiñara ekarri ta ahal dan erosoena jarri behar izaten zien.

-3-Arrastan jetxi bera.
 -Izenik bazuen garo-lan honek? Garota edo?
 -3-Garaillea, garaillek esaten giñun guk, garaillek.
 -I5-Igual etxe batek biltzen zittun hiru-lau mutill edo bost igual egun bateako.
 -3-Garo-lanak eitteko.
 -5-Beste batzuk berriz eamaten zuen alde batea.
 -6-Kuadrillan, metako hainbeste baten, beak etxei itteko moduik ez bazuen alde batea eamaten zittuen, metako hainbeste; doenerdi lagun igual izaten zien kuadrillan ibiltzen zienak.
 -Eta hori pagatu egiten zan?
 -1-Bai, bai. Metako hainbesteko bat. Ez dakit ba. Egunekeo jornala.
 -3-Haiei esaten zitzaien "garaillek". Garo biltzailek edo.
 -2-Famili motxa zan tokitan garaillek itten zien, eta familie zeon tokin etxen bertan izaten zan indarra.
 -1-Ematen zitzaien otordue, bazkarie eta gauen aparie.
 -[...] Lehengusuek edo
 -3- littarik iteiekin.
 -1-Gero hasi zan segai eskuarea jarrita, garoa bezela.
 -Harri-jasa ere ein zula segan.
 -2-Gero sega hasi zanen hua adelantoa.

9.19. Elkarri laguntzeko moduak

- **Hizlaria(k)**: Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRS-028/016
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:29:43. **Bukatu**: 00:31:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Auzolanaz eta galdor-afariaz hitz egiten dute.

Transkripzioa

-Baina bestela auzolanean eta egingo ziran?
 -Bai, bai. Bidek eta asunto hoik dena auzolanean, bai.
 -Gari eta garo eta kontuak ere bai?
 -6-Ez. Parienteak edo bazien laguntzera puxkat.
 -1-Gero otordun aldera're asko joaten zan.
 -6-Ordun bakizu, etxe bete jente, ordun lanik ez zan /etzan/ izaten eta ahal zan tokira.
 -1-Eta kuadrillen ambiente hue pasatzera, otordu earrak ein eta bakizu, sasoia ta.
 -3-Ardi zaharren bat hilko zuen.
 -6-Ordun fabrikante zer? hiru-lau fabrikante, gaiñontzen batez.
 -Izenik bazeukan afari horrek, gari-afaria edo?
 -3-Galdor-afarie?
 -5-Galdor afaria esaten da obra bat bukatzen danen, galdor-afarie. Jartzen da erramue bukaeran telatue eitten zanen. Eta hori da galdor-afarie.
 -Baiña hori etxea eginda gero.

-1-Etxea eginda gero. teillatue ematen zaio normalen, gaiñen jartzen zaio eta.
 -5-Azkenengo teille jartzen dezunen erramue jarri ezkiña baten...
 -6-Teillatue eman behar, teillatue eman ezkeroz...
 -Galdor-afaria?
 -Bai.

9.20. Zahiarekin zer egiten zen

- **Hizlaria(k):** Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BRS-028/024
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:48:56. **Bukatu:** 00:49:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
 Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Zahiarekin ore-pilotak egin eta txekor txikiek oso gustura jaten zuten.

Transkripzioa

-Eta zahiarekin zer egiten zan?
 -6-Zahie ganaduei. Txerrintzako. Ore-pelotak
 -3-Txekor txikik ziela esnea eaten zuen eskutik.
 -Nola egiten zen pelota hori?
 -4-Ur pixkatekin. Taloa egiteko bezelaxe.
 -[...]
 -6-Amagandik beti apartatu nahie. Ore-pelota bezelako batzuk hartu ta mingaiñe pixkat busti... Atzetik nola segittu txekorrak!
 -3-Bere tokira harekin.
 -2-Moitzen zein, bai, moitzen zien.
 -Ama esnia baiño nahiao?
 -5-Eaten zizkion eta ez pentsa egoten danik aman errepeik gehio.

9.21. Neurri unitateak

- **Hizlaria(k):** Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BRS-028/028
- **Iraupena:** 0:05:40. **Hasi:** 00:55:12. **Bukatu:** 01:00:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Aleak neurtzeko: Lakaria: 3 k. inguru; Gaitzerua: lau lakari, 12 kilo; Anea: 4 gaitzeru, 44-48 k. Haragia: Erraldea: 5 k. Bizi-pixura saltzeko Kordelaz neurtzen ziren txekorrak. Esnea: Litroa. Ardoa: Pitxarra, 2 l.

Transkripzioa

- Lehenago neurriak ez ziren oraingoak, ezta?
- 5-Ez, lehenago ziren lakarie, gaitzerue, anea ta anea-erdikoa.
- 4-Gaitzerue garie ta artoa neurtzeko. Lau gaitzerukin berrogeita lau kilo. Anea.
- 6-Lau lakarikin gaitzerue.
- 5-Eta lakari batekin hiru kilo.
- 5-Baiño lakariek ez dittuk denak berdiñek. Artoak eta babarrunek ez due igual pixatzen. Artoak gutxigo pixatzen du babarrunak baiño.
- Eta lakarie?
- 5-Babarrunak pixatzeko ta. Ordun ez zan Tolosan-eta kiloka saltzen, lakarika.
- Hori babarruna, artua ta garia?
- 1-Garie eta hoik denak gaitzeruekin.
- 1-Garie etxen behar izaten zan normalen.
- 6-Lakarie jeneralen babarruna.
- Anegak bai, garia?
- 4-Bai, garie anegakin.
- Eta haragia eta?
- 2-Haragia kiloka. Erraldea, erraldeka. [...]. Karnizeerin kiloka.
- 5-Erraldeak bost kilo dittu.
- Eta pixua zan hilda ala bizirik?
- 5-Hilda. Baiño saltzen zan bizirik, bizi-pixua esaten zitzaion hari. Baiño ez, jeneral hilda, kanalen. [...] Andre baten historia esango dizuet, aittutakue det nik: Txekorra emen zuen saltzeko andre batek eta karnizeroai hots ein emen zion eta etorri emen zan ikustea, ta, bueno, "zenbat ber dezu txekorrantzako?" ta "Ez dakit ba zenbat itten duen edo, zuk esan beharko dezu" esan emen zion. "Ez, ez, eskatu zuk", eta: "Ez". "Bueno, kiloko pezta pagatuko dizut". "Kiloko pezta? Ez dezu hemen holako txoroik harrapatuko. Hiru erreal behar dittut nik". (Barreak).
- 1-Gogorra bota zioken.
- 6- Engaiñora joaten zien. Karnizeroa ojo! Baserritarra baiño erneago egoten zan hue. Harek ez zun honek hamalau pixatuko dizkik eta hamabost ez zizun esango karnizeroak ahal badu. Horregatik pixura jendea konformeago geratzen zan.
- Behiak eta neurtzeko eta?
- 4-Kordela.
- Zer da hori?
- 5-Kordela ba soka izaten zan, bastoi hauxe bezelaxe bere koskakin. Gorri batzuk, hari batzuk diferente jarrita. Harekin petxun neurria hartu.
- Zertarako?
- 5-Bizipixuan saltzeko. Idea bat. Haik bukatu zien. Haik bukatu ein zien. Gero hasi zan kanalera jendea. Oaiñ'e billatuko nuke nik etxen kordela.
- Hori etxe guztietan izango zan.
- 4-Garai baten bai baserrian. Oaiñ ez dago baiña.
- 5-Baiño ez danak igualak begie harekin. Ni aittu izandu nun hemen zan onenan Fermin Inazio zala txekorrak neurtzen.
- 1-Batetik bestera diferentzie.
- 5-Joe, izango ez dek ba!
- Likidoak eta neurtzeko?
- 4-Esnea? Litroka.
- Azunbreka eta?
- 3-Ez. Hori zer da?
- Bi litro.
- 5-Pitxarra bi litrokoa.

-Eta esnea edo?
 -4-Ardoa jeneralen.
 -5-Ordun esnea botilletan gutxi ibiltzen zan. Katillun tazatiken. Saldu ere ez zan ordun esneik eiten . -1-Herriko zerbizion baterako.
 -Ez zan saltzen Tolosara edo?
 5-Ez. Gero bai, gero letxeroa zan, Tolosara ez zan iñor joaten esnekin Berrobotiken eta bezela.
 -6-Hemen joaten zien larunbatetan gaztaiñe eta hoiekin bai Tolosara. Arrautze ta.
 -1-Autobusa izaten zan, linea, Etxabe. Harek eamaten zun bai gaiñen eta bai azpin.
 -6-Gaztaiñe're bai lakarika.

9.22. Gaztaina klaseak

- **Hizlaria(k):** Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BRS-028/029
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:00:52. **Bukatu:** 01:02:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Baserrria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Iñurri Beltxa onena. Jaulegi puxkatu egiten da. Txertaka ere gozoa baina txikia.

Transkripzioa

-1-Gaztaiña asko ibiltzen zan garai baten, asko.
 -Gaztaiña klasiak izango zien hemen, ezta?
 -6-Oain gehio kasik. Galdu ein die ya, baiño.
 -1-Gaztaiñ beltza ta bazien.
 -6-"Inguru-txurie" ta. "Jaurei" ta, "hosto beltza" ta.
 -5-Danen onena "Iñurri beltza". Jaulegi txarrena, dena puxkatu eitten da. Eta Iñurri beltza izaten da gaztaiñe osoa.
 -Onena zein zan?
 -5-Iñurri beltza
 -6-Txertaka ere gaztaiña ona da, e. Txertatu gabea.
 5-Ez, ez. Iñurri beltza txertatue eta ondo txertatue izaten da gaiñea. Txertaka jeneralen txatxarra izaten da.
 -6-Ale xeheaoa.
 -1-Hori da berez etorritakoa, bate kasorik ein gabe. [...]
 -5-Makiña bat amorrazio pasatako jaiek izaten nizkin. Jaien txertatu ber izaten zien gure etxen beti eta jai atsalden gu plazaa jun behar eta aittekin erretxiña berotzera mendin. Egon hai han!

10. Euskara

10.1. Erdara eskolan eta gaur egun

- **Hizlaria(k):** Garciarena Arregi, Jose Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

- **Erref:** BRS-012/006
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:10:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Diaz, Josu
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Eskolan erdaraz egin behar izaten zuen, baina ez zekien erdararik. Orain gehixeago hitz egiten du erdaraz. 49 urte daramatza ezkondata emaztearekin, baina hark hobeto daki erdaraz

Transkripzioa

- Eta eskolan erderaz ein beharko zenduen?
- Erderaz, baiño nik erdera, erderik ez eskolik eta ez erderik ikasi.
- Klaro.
- Ordun hitz eitten, euskeraz hitz eitten ahal zan gutxina, ta hala're iten gendun ikasi; gutxi, eskola're gutxi joanda.
- Zuek eskolara hasi arte erderaz, bueno, tutik ez zenduen...
- Tutik ez, tutik ez guk erdereik, tutik'e. Oan pixko bat noiz o noiz gehixeo oain eskola. [...] geratu ezker eskola bat beharren jarri ta erdera pixka bat gehixeo, baiño nik erdera ere motxa, oso motxa; andreak'e erderaz ondo daki ta moldatzen gea. Berrogeita beatzi urte badittegu ezkondurik, sesentan ezkondu giñen, bai, otsaillen hamazazpin inda gaude berrogeita beatzi urte. Ta horrek, horrek'e nere gixe nik aiñe urte eskola motz xamarra du horrek'e, baiño erdera ona, erderaz leitzen, erderaz garai haitan'e leitzen erdera izan itten baitzan.

10.2. Berastegiko eta inguruko euskara

- **Hizlaria(k):** Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BRS-028/002
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:01:38. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Berastegiko euskara inguruko herrietako euskararekin alderatzen dute: aldea sumatzen dute Elduain, Leitza, Gaztelu eta inguruko beste zenbait herrirekin; hizkera antzekoena Tolosakoa iruditzen zaie. Tolosan eta Donostian garbi hitz egiten da beren ustez. Berastegiko hizkera Tolosakoarekin eta Leitzakoarekin alderatzen dute, eta zer desberdintasun dagoen aipatzen dute.

Transkripzioa

- Esaten dezu Elduaienera aldatu egiten dela?
- 2-Hitz batzutan nik harrapatzen det Elduaiñera.
- Hori inñorkere ez dit esan oin arte.
- Oreja ta Gaztelua ere bai, e.
- 4-Oreja ta Gaztelua ere bai, asko. Eta Eldua're bai, e.
- 2-Zeozte Elduara're bai.
- Berastegi izan arren?
- 2-Bai.

-1-Hala're gehio kanbiatzen da Leitze ta Goizueta, Areso ta. Horitara gehio kanbiatzen da.

-2-Asko-asko hoitan, asko, asko.

-Leitza bertan dago, ez?

-2-Bai, hamar kilometro, beatzi, hamar.

-Eta gertukuena edo berdintsuena zein da?

-1-Nik uste hau dala, hemendik Tolosa ta inguru hoi. Goierria ere beti kanbiatu eitten da pixkat.

-5-Euskeraik garbina beti Tolosan... Inguru hau. Tolosa, ingurue.

-6-Zona haundie hartzen du Tolosak eta horko... Euskeraik garbiina hor esaten due.

-5-Donostin bertan'e garbi hitz eitten da, e.

-1-Gero ya aurea hasi ezkeo Azpeiti eta hoitan'e asko kanbiatzen da.

-5-Hortikan ya joaten bazea Hondarrabi aldea ta Irunera ta ya Frantzikoa asko sartzen da. Frantsesa're mezklatu eitten da.

-6-Oiartzun eta danetan ya kanbiatu eitten da.

-5- Hemen Gipuzkuan bertan bezela Bizkaikin ingurukoak ya asko mezklatzen die.

-Eta hemendik Tolosara ta kanbiatzen da?

-5-Zeozar bai.

-1-Nere irudittuan asko ez.

-2-Berrobin'e hitz batzuk badittuk diferentek.

-1-Esateko era batzuk bai baiño hola...

-4-Azentoa da diferentea.

-6-Tolosan nik uste garbigo edo hemen baiño're oaindik.

-Hemen gehiago jaten dezue?

-4-Hitz batzuk jan itten dittuu.

-5-E ta A-kin asko kanbiatzen da hau. Hemen E esaten da eta Tolosan A. Guk "egie" esaten degu, haik "egia". Hortxen dao, asko behiñepein bai.

-Eta Leitzan?

-5-Hemen "jainkoa" ta esaten dittegu bezela han "yainkoa" ta.

-2-Hemen esaten degu "jo", haik esaten due "yo". Ta hemen esaten da "jan" eta haik "yan".

Eta holako hitzek asko diferentek.

-6-Hemen "etorri zea?", han "heldu zea?"

-Eta gero azentua ere asko aldatzen da?

-2-Baita, baita.

-5-Gero hemen sekulen ez da esaten "haurra", "umea" esaten da hemen. Han berriz "haurra" esaten da, jeneral.

-4-Oaiñ hemen'e ai da sartzen hoi "haurra", baiño han gehio.

10.3. Baserriaren egiturari buruzko lexikoa

- **Hizlaria(k)**: Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRS-028/022
- **Iraupena**: 0:05:54. **Hasi**: 00:41:05. **Bukatu**: 00:46:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elxepuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Baserriko tresnen izenak aipatzen dituzte. Argazki batzuk ikusita, baserriaren egitura fisikoari buruzko lexikoa aipatzen dute.

Transkripzioa

-Nahi ditut jaso gaiñera izenak, baserriko tresnen izenak [...]
-1-Kapirioak eta
-4-Kapirioak.
-1- Goiagak, kontragoiak eta zapatak beheran, pareta gaiñen. Frontala, hue zapata [...] Pillarea, "postea" erderaz, pillarea da hau. Hau frontala. Hok solibek (frontalera doana). Hoik telaituko haik kapirioak. Eta hue zapata. Paretan nola daon? Hue zapata. Beste bi haik perrotek, harrizkoak perrotek. Hoik'e bai zapata. Hori kapirioa.
-4-Gaillur-egurre ere: goiaga, erdikoa. Ez da ikusten.
-Ez da ikusten baiña kapirioan jartzen dira goiagan.
-5-Behetik gora hasiko gea: behean izaten da zapata. Kontragoiak geo.
-1-Hori eztao hemen.
-5-Eta galdorrekoa goiaga.
-Eta zapatak dira orduan pareta gainekoak?
-6-Bai, pareta gaiñean joaten dienak.
-Eta gero kapirioen artean jartzen dianak?
-5-Latak. Eta behean lehenao jartzen zitzaion teila erasteko zera jartzen zitzaion [erats-lata] [...] Eta hori izaten da hola izkiñan teilla zintzilikan geatzen baita, teillai pittin-pittin bat muturra altxatzeko.
-1-Atzetik eiten diozunen muturra geratzen da zintzilikan, eta horrek egiten dio bizittu
-Eta kapirioen azpian batzutan tarte txiki bat izaten da.
-4-Hori saete-zuloa, sarete-zuloa, txorik eta sartzeko. Saete-zuloa [...]
--Eta hauek orduan pillareak
-Bai.
-Eta batzutan harri batzuk eta jartzen dira.
-6-Pillare-harrie. ikullutan askotan, ez erretzeko. Zegatikan gorotzakin...
-5-Baserrian denetan. Pillare-harrie. [...]
-1-Hori izaten da behean zabala eta goran estuxeago.
-[...]
-Baserri batzuetan baserri erdia banatzen horma zabal bat ipintzen zan.
-4-Zuen Artxuanen, ze esaten zaio, medianilla edo.
-1-Argamasa. Egurak eamaten ditu tarten.
-Eta medialiña edo?
-4-Medialiña Artxuanen eongo da, bi etxe ez al zian han.
-1-Bai, erdiko pareta.
-5-Medialiña, edo medianilla edo. Bai, zerbait hola dek.
-1-Hori erderaz izango da, ez? Horrek euskeraz beste izenen bat izango du.
-4-Nik medialiña, nik hoixe dauket, eztakit.

10.4. Irinaren inguruko lexikoa

- **Hizlaria(k)**: Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: BRS-028/023
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:46:59. **Bukatu**: 00:48:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Euskara » Lexikoa
Baserria » Baserriko lanak » Errota

Baserria » Baserriko lanak » Garia

Baserria » Baserriko lanak » Artoa

- **Laburpena:** Errotan garia eta artoa ehotzearen inguruko lexikoa.

Transkripzioa

-Errota kontuak eta aipatu dituzue. Iriña errotan txikitzia nola esaten da?
-4-Eiho. Artoa eiho. Edo garia eiho. Errotarriekin.
-Iriña irtetzen da baiña bestea?
-Zahie, zahie. [...]
-Eta zahia da?
-4-Zahi larrie.
-6-Artoan eta garin azala. Artoak azal gutxi, gariek gehio.
-Eta zahiak diferenteak izaten dira segun nola txikitzen dan?
-3-Zahi larrie. Segun nola txikitzen dezun. Errotan ez, han ez da ezagutzen hoi..
-3-Ganaduentzat, Naparruan eta.
-5-Hori ezagutzen die oaingo fabriketan, zahi larrie ta txea ta.
-4-Zahi larrie da axal haundi hoi eta txikixeagoa txea.
-1-Bahien pasatzen zan hoi.
-Etxean?
1-Bahia estu-estue izaten zan eta han iriñe. Eta talok eitteko're bai. Nola izeten zan?
-3- Maide (Ore-mahaia) mahia, maide. Iriñe jarri han eta masa eitten zendun. Maie. Maide.
-Eta zahiakin zer egiten zendun?

10.5. Saskiak (banastak) (1)

- **Hizlaria(k):** Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BRS-028/025
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:49:45. **Bukatu:** 00:51:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Euskara » Lexikoa
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena:** Saskiak (banastak) gaztaina-zumitzezkoak izaten ziren. Kartolak edo kakoak, berriz, zurezkoak.

Transkripzioa

-Otarrak eta?
-5-Saskie. Txikiei esporta.
-1-Eta behorran kartolak. Kartolak izaten zien ordun. Haik etxen egiten zien asko.
-5-Kakoak'e izaten zien.
-Kakoak zer dira?
-5-Kakoak izaten die, nola esango dizut ba nik? Egur bat hola zuzenen eta gero bestea hemendik zabaltzen dala ta batzuk izaten zien...
-[...]
-4-Belarra ekartzeko. Astoakin edo behorreakin edo.
-6-Hori jeneralen belarra, ganajana eitteko, ganajana esaten zitzaion. [...]

Eta haik izaten zien osokoa billatu ezkeo behintzat hola zabal antzak. [...]
 -5-Haik bi eratara eitten zien: osoa billatzen bazendun osoa eta bestela berriz zulatuta igual-igual eitten zien. Nik itten nittunak beti zulatuta itten nittun.
 -Saskik, berriz, zumitze, egurre ekartzen zuen gaztaiñe edo menditik eta ximaur azpien sartzen zittuen beratzeko, zumitze ateratzeko, eta uretan'e bai. Gero zumitze ateratzen zuen, nik aitte-zana ta ikusten nittun, eta sillek'e itten zittuen, sukaldeko sillek eta.

10.6. Saskiak (banastak) (2)

- **Hizlaria(k):** Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BRS-028/027
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:53:10. **Bukatu:** 00:55:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Euskara » Lexikoa
 Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena:** Izenak: Esporta, txikia, harria zabaltzekoa; Kintala, 25 kilokoa, karea neurtzekoa.

Transkripzioa

-Eta zumitza eta zumitzezko saskiak etxe guztietan egiten ziren?
 -5-Ez, keba. Gutxi izaten zien hoik eitten zittuenak.
 -6-Izaten zien kartolak eta itten zittuenak baiño jakiñek izaten zien.
 [...]
 -6-Egurre gaztaiñe behar du.
 -Eta saskiak klase askotakoak ziren?
 -4-Bai, esportak bezela gero kertenakikoak'e bai.
 1-Garai baten karreteretan ere esporta behar izaten zun harrie zabaltzeko ta.... Batzuk haudixeoak, beste batzuk txikixeoak, nahi zunan aukeran eitten zan ordun.
 -1-Haundigoak berriz artoa biltzeko ta.
 -4-Kintal saskie. Karea neurtzeko. Kintala.
 -1-Ordun karobik izaten zien eta.
 -5-Hogeita bost kilo. Kintal harrie bai, hogeita bost kilo. [...]
 -4-Saldu behar baldin bazitzaion neurrie kintala izaten zan.

10.7. Euskara semeei ez erakusteko erabakia

- **Hizlaria(k):** Lecea Iparragirre, Marcelina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** BRS-035/027
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:58:50. **Bukatu:** 01:01:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Euskara » Euskararen egoera

- **Laburpena:** Fabrikako soldata Madrilgoa baino askoz hobe zen. Madrilen oso gaizki pasa zuen euskara bakarrik jakitegatik; eta horregatik, bere semeek ez die erakutsi euskaraz hitz egiten.

Transkripzioa

-Madrilen irabazi zendun diruarekin ezta konparaziorik ere.
-Ez, ezta pentsatu ere. Nik ein nittun earrak. Esaten nun. Garbi esango dizut, garbi esango dizut! Bi seme dauzket, eta ez dakie euskeraz. Gaztenak gehio daki zaharrak baiño. Baiño ez dakie, oin esango dizut, nik pasa nittunak han, hara joanda, euskeraz bakarrik, ez neukela erderaik, euskera bakarrik, ateeraik ez iñoako, ez dakizu erderaz, eta ez zeukazun ateeraik iñoako, parra itten zizuen gaiñea, eta ez diet erakutsi. Holaxe!, eta jende askoi esaten diot gaiñea. Holaxe, horregatixe baiña. Zergatiken nik han pasatu nittunak euskerakin....

11. Itsasoa

11.1. Pagoa onena urazpirako

- **Hizlaria(k):** Mahai-ingurua Berastegin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** BRS-028/026
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:51:10. **Bukatu:** 00:53:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
Lanbideak » Arotzak
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Pagoak oso ondo agoantatzen du uretan, busti-lehorrean, berriz, gaizki. Birraitona arotzaren pasadizo oso interesgarria kontatzen du. Ardatzak sartzen jarduten zuen oletan.

Transkripzioa

-6-Eta uretan pagoa uztarrie itteko. Uztarrie eitteko pagoa, uztarri bat in eta beste puxke, bi puxke edo hiru edo bi sobratu al zaizu?, haik lurpen umel, leku umel baten sartu eta lau-bost urte igual egoten zien, pagoa.
-5-Lau urte bezelaxe hogeita hamar urte aguantatzen du pagoak putzun. Eta busti-lehorren seittun usteltzen da. Seittun. Gaur busti ta bihar lehortu eta horrela hasten badezu seittun. Oin esango dizuet nik Ibarreko Olakoa. Olak jakingo dezu zer dien. Hoik fabrikek Altos Hornosek izurratu omen zittun hoik denak. Gure etxen bazan aittonak, harek esaten emen zun. Ba ardatza, ibilliko baldin bazun bueltaka ardatza, eta pagoa behar izaten emen zun. Ta azkenekoa Orejatik ekarri emen zuen, Oreja menditiken. Hiru iri-parekin. Ez zan oso txikie izango. Eta lehengoa atera zuenen putzura bota emen zuen. Ta lau kuadrokoa, e, mahi hau bezela kuadradutakoa. Putzura bota eta hostoa atera omen zun harek. Pentsatu. Bere denboran uretan egundue hure. Urek ibiltzen emen zun eta. Bai, gure aittona batek. Garai haietan attona, gure attonan aitte, e. Santanderreaiño joaten emen zan oletan lana eitte arotzerian. Ardatzak sartzea ta joango zan. Ta Berastegitik atea ta Santanderrera oiñez joaten emen zan bizkarra bete erremintakin, aillegatzen zan tokin gaue pasa ta. Behin joan emen zan

barkun. Eta egunen sei pezeta irabazten emen zun eta harek esaten emen zun Altos Hornos ez balitz sortu aberastu eingo zala.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Madrildik bueltan (BRS-002/009)

Madrila hegazkinez joan zen. Autoz itzuli zen, eta argia izorratu zitzaion Gasteiz inguruan zegoela. Guardia zibilak salaketa jarri zion, baina beste arrazoi batengatik, ordea.

2. Nola ikasten zuten gidatzen (BRS-002/010)

Gerora, kamioia gidatzen ikastera joan zen, eta berekin batera emaztea, autoa gidatzen ikastera. Autoeskolako irakasleari buruz hitz egiten du. Gidabaimena ateratzeko azterketa baino lehen, norbere kontura ikasi behar izaten zen kotxea gidatzen.

3. Semei emandako heziketa (BRS-002/015)

Ezkundu, eta bi seme izan zituzten. Handik urte gutxira, alargun geratu zen. Semeak kolegioan sartu zituen Lekarozen.

4. Soroko lanak oporretan bakarrik (BRS-002/019)

Soroan oporretan bakarrik egiten zuen lan, urtean zehar kolegioan egoten baitzen ikasten. Bere familiaren lursailak mendiak ziren gehienbat.

5. Anbulantzia-lana kobratzeko arazoak (BRS-002/020)

Anbulantzia-lanak egin zituenean, kobratzeko izandako arazoak kontatzen ditu.

6. Aitaren jenio txarra (BRS-002/026)

Gurasoak Berastegikoak ziren, eta aita urte askoan zehar Frantzian egin zuen lan kortse-fabrika batean. Han izandako pasadizo bat kontatzen du.

7. Gerra hastean, aita nola salbatu zen (BRS-002/027)

Gerra hasi zen egunean, aita nola salbatu zen kontatzen du. Gerora, aita salbatu zuen gizon hura hil egin zuten. Gaur egun, haren semea herrira maiz joaten da.

8. Gerra garaiko kontu batzuk (BRS-002/030)

Gerrako urte batean, elurte handia egon zela gogoratzen du. Soldaduak kanpin-dendatan egoten ziren.

9. Gerra bukatzean, kolegiara (BRS-002/031)

Gerra bukatu zenean, kolegiara joan zen. Orduan ezin izaten zuten kolegiotik maiz itzuli etxera. Sufritzen ikasi zuen kolegioan.

10. Pentsu-banatzaile (BRS-002/036)

Lanean autonomo moduan ibili zen pentsua banatzen. Nola hasi zen lan horretan azaltzen du, eta zer fabrikarekin egiten zuen lan kontatzen du. Negozioa egitea nola lortzen zuen azaltzen du.

11. Kolegioko ohiturak (BRS-002/043)

Kolegioan, mailaren arabera bereizten zituzten. Goizean goiz mezara joaten ziren egunero, eta gero ikasi egiten zuten. Jolas-ordua ere izaten zuten. Eta arratsaldean berriro ikastera. Ostegun eta igandetan izaten zuten libre, eta orduan kalera irtetea zeukaten. Fraideek jakin gabe, gozokiak erosten zituztenekoa kontatzen du.

12. Euskararekiko jarrera (BRS-002/047)

Klase guztiak erdaraz izaten ziren. Orain erdaraz gusturago aritzen da. Txikitan etxean ikasi zuen erdaraz, baina lagunekin euskaraz egiten zuen. Kolegioan euskaldun gutxi ziren.

13. Euskaldunekin ulertzeko arazoak (BRS-002/050)

Kolegioan Gipuzkoako jendea ere izaten zen. Haiekin ere erdaraz hitz egiten zuen. Kolegioan Markina, Oñati, Azpeitikoak... zeuden. Denek batera bazkaltzean, ezin izaten zuten elkar ulertu. Baina denek ulertzen zioten berari.

14. Beste herrietako euskararekiko aldeak (BRS-002/052)

Hizkera garbia Tolosa ingurukoa dela esaten du. Alde handiagoa dago Leitzako euskararekin, Tolosakoarekin baino. Hala ere, erdaraz gusturago egiten du berak. Leitza aldean Gipuzkoan baino azkarrago hitz egiten dute.

15. Parrandazalea (BRS-002/053)

Parrandazalea zela esaten du. Festa batetik etxera itzultzeko zer egin behar izan zuen azaltzen du.

16. Eskolari emandako garrantzia denboran zehar (BRS-004/007)

Lehen eskolari garrantzi gutxiago ematen zitzaion. Gehienbat mutilek egiten zuten piper, lan egiteko. Mutilek zorte txarra izan zuten irakasleekin, gutxi ikasten zuten. Gau-eskolan gogo gehiago jarri zioten, beharra sentitzen zutelako.

17. Etxearen banaketa lehen eta orain (BRS-004/008)

12 urterekin aitari laguntzen hasi zitzaion. Ferratokia etxean bertan zegoen. Etxea nola aldatu duten azaltzen dute, eta argazkia erakusten dute.

18. Aitona eta aitaren lanbideak (BRS-004/009)

Aitona albaitaria zuen, Betelutik etorritakoa. Aita ferratzaile eta errementaria izan zen. Berrobira jaisten ziren batzuetan ferratzera.

19. Nola ferratzen zituzten abereak (BRS-004/011)

Behia nola ferratzen zuten azaltzen du. Abereak, ordea, kanpoan ferratzen zituzten, desberdin. Orain ere horrela ferratzen direla esaten du.

20. Ferratzaile-lanaren bilakaera (BRS-004/012)

Baserritarrek ekartzen zituzten abereak ferratzeko. Lana gutxitzen hasi zenean, berak joan behar izaten zuen baserrietara, eta zer-nolako lanak egiten zituen orduan azaltzen du.

21. Baserritarrek urrutitik etortzen (BRS-004/014)

Baserritarrek urrutitik etortzen ziren beregana, pazientzia gehiago zutelako. Abereak kanpoan egoten ziren, lotuta.

22. Ferratzen zenbat denbora pasatzen zuen (BRS-004/015)

Ferratzen ordu erdi pasatxo ematen zuten. Abere bakoitzak zenbat ferra izaten zituen azaltzen du.

23. Ferra motak abere bakoitzaren arabera (BRS-004/016)

Abereen ferrak beraiek egiten zituzten. Baina abereen txapak ekarri eta moldatu egiten zituzten. Ferra desberdinak erakusten ditu liburuan. Zaldiak, behiak, mandoak... ferratzen ziren.

24. Mandazainak eta astoak (BRS-004/017)

Mandazainek zer lan egiten zuten azaltzen du. Asto asko ez zeuden orduan, baina izaten ziren. Atzazalak ere zuzentzen zizkieten astoei.

25. Ferratokiko tresnak (BRS-004/018)

Atzazalak zuzentzeko zer tresna erabiltzen zituzten deskribatzen du. Ferratokiko beste hainbat tresna ere aipatzen ditu. Sutegia harrikatzarekin erabiltzen zuten.

26. Bestelako lanak ferratzailez gain (BRS-004/020)

Lanik ez zeukatenean, errementariak izan ohi ziren, eta beste hainbat gauza egiten zituzten.

27. Gurpilak egiteko prozesua eta beste lan batzuk (BRS-004/021)

Beste lanetarako materiala Donostiatik ekartzen zuten. Gurpiletarako burdina nola egiten zuten azaltzen du. Gurpiletarako iltzeak bertan egiten zituzten. Arotzarekin batera egiten zuten lan gurpilak egiteko. Basoko zuhaitzak ekartzen zituzten idientzako ere kateak egiten zituzten.

28. Egunero lanean (BRS-004/022)

Egun osoan edukitzen zuten lana. Asteburuetan ere lan egiten zuten. Aita eta bera bakarrik moldatzen ziren lanean.

29. Lanik gehiena ferrak prestatzen (BRS-004/025)

Lanik gehiena ferrak prestatzen izaten zen.

30. Arrea eta laiaren funtzioa (BRS-004/026)

Arrea ere egiten zuten: nolakoa zen eta zertarako balio zuen azaltzen du. Laiak zertarako erabiltzen ziren deskribatzen du. Garia eta artoa biltzen zen. Patata gutxi, baina babarruna bai. Baba beltza ere landatzen zen.

31. Garai hartako soldatak eta prezioak (BRS-004/028)

Zerk merketzen eta garestitzen zuen ferrak jartzea azaltzen du. Garai hartarako ez zen merkea ferrak jartzea. Beste gizon baten zenbateko jornaia zuen aipatzen du. Beren prezioei buruz hitz egiten du.

32. Nola ordaindu ferratzea, eta nola ekarri animaliak ferratokira (BRS-004/030)

Dirutan ordaintzen zen, eta dirurik ez zutenean, apuntatu egiten zen izaten zuenerako. Abereak ferratokira oinez ekartzen zituzten mendiz. Orduko bideak txarrak ziren, baina jendea ohituta zegoen. Gerora, kamioietan ekartzen hasi ziren.

33. Ferratze-lanaren gainbehera (BRS-004/031)

Traktorea iristean, lana gutxitu zen. Orduan, esne-behiak gehiagotu ziren, eta haiek ez ziren ferratu beharrik. 70eko hamarkada inguruan izan zen hori. Aita hil, eta anaia sartu zenean lanean, kanpoko lanak egiten hasi ziren.

34. Aisialdian erromeriara (BRS-004/033)

Igande arratsaldetan bakarrik egin ahal izaten zuten jai, baina orduan ere lan egiten zuten. Baina libre izaten zutenean, erromeriara joaten ziren. Pedrok instrumenturen bat jotzen zuen, eta gazteak biltzen ziren dantzan egiteko.

35. Udaletxeko erlojua (BRS-004/034)

Herriko udaletxeko erlojuari pisuak altxatu behar izaten zitzaizkion lau egunetik behin. Oso astuna zen hura. Aitonak-eta jarri zuten erloju hori, baina dagoeneko ez dago. Bere ardura izaten zen erlojua. Zenbat diru ematen zioten horregatik aipatzen du.

36. Kanpaien bidezko hizkuntza (BRS-004/035)

Kanpaiak oso noizean behin jo behar izaten zituzten. Gainerakoan, udaletxeko erlojuak automatikoki jotzen zituen. Sua zenean, udaletxean jotzen ziren kanpaiak; baina, bestela, elizan. Oraindik ere jotzen dituzten elizako kanpaiak. Kanpai motak zer ezaugarri zituzten azaltzen dute. Orain, gutxi jotzen dira horrelako kanpaiak. Sua zeneko kanpaiak nolakoak ziren aipatzen du.

37. Basoak eta suteak (BRS-004/036)

Sute gutxi izaten ziren lehen, basoak garbiago baitzeuden. Inguruko basoetan zer zuhaitz mota dagoen azaltzen du.

38. Abere eta soroen bilakaera (BRS-004/037)

Lehen behi asko eta ardi gutxi izaten ziren. Orain, ordea, alderantziz da. Soroak ere galdu dira, dena belarra baitago.

39. Aurrerapen teknologikoak (BRS-004/038)

Etxean argia eta ura beti ezagutu izan ditu. Baina baserri askotan ez zegoen. Batzuk komunik ere ez zuten. Haiek nola moldatzen ziren aipatzen du. Telefonorik ez zegoen, plazan izan ezik. Herriko telefono bakarra zen.

40. Tolosarako autobusa Berastegin (BRS-004/039)

Autobus bat egoten zen Tolosara joateko. Joera handiagoa egon izan da Tolosara, Leitza aldera baino. Baserritarrak ere Tolosarako feriara joaten ziren astelehenetan.

41. Trena Berastegin (BRS-004/040)

Trena lehen pasatzen zen. Betidanik ezagutu izan du hori. Jende gutxi ibiltzen zen, baina Donostiatik Iruñera joaten zen trena. Non hartzen zuten trena azaltzen dute. Iruñera joateko bakarrik hartzen zuten trena. Bestela, oinez edo autobusez. Lehen

42. Inguruko herrietara jaietara bizikletaz (BRS-004/042)

Inguruko herrietako jaietara joaten ziren. Bizikletaz joaten zen bera. Oso bizikleta gutxi zeuden orduan herrian. Normalean Areso eta Elduainera. Tolosara ez ziren joaten.

43. Neskatan (BRS-004/043)

Leitzara gerora joaten zen, emaztea hangoa baitzen. Emaztea ezkontza batean ezagutu zuen. Neska-laguntzea nola izaten zen azaltzen du.

44. Dantza lotua eta horrengatiko zigorrak (BRS-004/044)

Dantza soltea egiten zuten. Dantza lotua debekatu egiten zuten apaizek. Neskak nola zigortzen zituzten dantza lotua eginez gero azaltzen du. Apaiz zorrotz bat aipatzen du. Zigortzeko/Saritzeko medailari buruzko kontuak kontatzen ditu.

45. Erljioaren indarra lehen eta orain (BRS-004/045)

Lehen mezara denak joaten ziren igandetan. Eta joaten ez zenari seinalatu egiten zioten. Hiru meza izaten ziren goizean. Herri baterako hiru apaiz izatetik, apaiz bat lau herritarako izatera pasa da. Dotrina nahitaez joan behar izaten zuten.

46. Gazteen gaiztakeriak (BRS-004/050)

Gazte-kuadrillak, mozkortuta, jai berezietan egindako gaiztakeriak kontatzen ditu.

47. Zergatik eraman zuten jaiotetxetik osaba-izebekin bizitzera (BRS-006/003)

Ansonen jaio zen, baina Goienetxan bizi izan da bere bizi guztia. Goienetxera noiz eta zergatik eraman zuten bizitzera azaltzen du. Nahiz eta jaiotetxean tifusa egon, berak han ematen zuen egun osoa, senideekin egoteagatik.

48. Eskolan hasterako, izebak hainbat gauza irakatsi (BRS-006/007)

Berastegiko eskolan ikasi zuen, eta oinez joaten zen hara. 7 urterekin hasi zen eskolan, baina ordurako izebak irakatsi zizkion zenbait gauza. Aitak eta izebak oso idazkera polita zuten.

49. Eskola garaiko ordutegia (BRS-006/009)

Eskolara goizean goiz joaten ziren, eta bazkaltzera etxera. Garaiz joan behar izaten zuten etxera. Izebak oso maitea zuen Joxe, eta ez zuen hura zigortzeko jo nahi izaten. Arratsaldean berriro eskolara joaten ziren.

50. Umetan baserrian zer ganadu zuten (BRS-006/013)

Etxean ganadua izaten zuten, baina ez asko, baserriaren inguruan belar gutxi baitzegoen. Zer ganadu zuten azaltzen du. Gaur egun oiloek arrautza gehiago jartzen dituzte.

51. Auzolanak eta haiek ekarritako aurrerapenak (BRS-006/017)

Lehen bideak auzolanean egiten ziren. Egun haietan ardoa ematen zuten lan egitearen truk.

52. Idaztearen atzean dagoen filosofia (BRS-006/020)

Idazteari buruz hitz egiten dute. Lehen gurasoek ipuin eta kontu gehiago kontatzen zizkieten seme-alabei. Beren aitari buruz hitz egiten dute.

53. Liburuak idatzi zituenetik argitaratu artekoa (BRS-006/024)

Oporretan zegoela, besteak paseatzera joan bitartean, bera idazten gelditzen zen. Idazten bukatutakoan, errainak idatziak hartu eta mekanografiatzera eraman zituen. Behin Aita Zabala joan zitzaion etxera, eta idatzitakoa irakurtzen uzteko eskatu zion. Gerora, itzuli, eta liburu argitaratzeko proposatu zion. Azkenean, bi liburu argitaratu zituen: bata etxeko kontuei buruzkoa, eta bestea gerrako kontuei buruzkoa.

54. Liburuak idazten eta irakurtzen (BRS-006/027)

Hirugarren nobela nola idatzi zuen, eta ordura arte zer idazle irakurtzen zituen azaltzen du.

55. Oporretan senideak ezagutu (BRS-006/028)

Behin oporretan zeudela, beren urrutiko senide bat ezagutu zuten kasualitatez. Joxek hari erakutsi zion ordura arte idatzitakoa, eta asko gustatu zitzaion.

56. Afrikan gaixotu zenekoa (BRS-006/037)

Joakin Afrikan egon zen soldadu, eta han gaixotu. Penizilinari esker sendatu zen. Zer gaixotasun izan zuen azaltzen du.

57. Soldadutzan Afrikan izandakoa (BRS-006/040)

Afrikara soldadu joatea tokatu zitzaion Joakini 1937an. Afrikara iritsi aurretik zer hiritan egon zen eta zer jaten zuten aipatzen du. Ceutan ardoa oso garesti zegoen, baina jatekoa nahi adina. Soldadutzan 7 urte eman zituen lizentziatu zen arte.

58. Familia guztiarekin Allora lanera (BRS-009/027)

Allora lanera joan zen fabrikarekin. Han makina desberdinak zeuden, eta arazoak zeuzkaten. Calahorran egiten zuten lo, hotel dotorean. Baina berak pisua eskatu zuen, eta Lizarrara joan zen bizitzera 6 seme-alabekin.

59. Ingeniariekin tirabiran (BRS-009/029)

Fabrika hartako ingeniarekin izandako tirabira kontatzen du.

60. Paper-fabrikako prozesua (BRS-009/031)

Paper-fabrikako prozesua kontatzen du. Emakumeek lan asko egiten zuten han.

61. Papera egiteko prozesua (BRS-009/032)

Papera bera nola egiten zen azaltzen du.

62. Aurrerapenak fabrian (BRS-009/033)

Paper-fabrian lanean hasi zenetik asko aldatu da: makinek abiadura handiagoa dute.

63. Lankide batek izandako istripua (BRS-009/035)

Gizon bat behin makina barrura erori zen, eta bizirik atera zen. Makinak nola funtzionatzen zuen azaltzen du.

64. Lehengo lan-baldintzak (BRS-009/036)

Lehen zer lan-baldintza zeuden aipatzen du.

65. Saldutako paper motak (BRS-009/037)

Papera kanpora saltzen zen. Zertarako balio zuten paper horiek azaltzen du. Edozein paper mota egiten zutela aipatzen du.

66. Beste paper-fabrika batzuk (BRS-009/038)

Beste paper-fabrika batzuk aipatzen ditu.

67. Mandatugile ibili zenekoa (BRS-009/039)

Mandatugile-lanetan ibili zenean zer egiten zuen kontatzen du.

68. Familiaren lurretan egin behar izandako lanak (BRS-009/043)

Bere familiaren lurrei buruz hitz egiten du. Lehen zertarako erabiltzen ziren azaltzen du. Lan txar asko egin behar izaten zituzten.

69. Eskola txikitan (BRS-011/010)

Berastegiko eskolan ibili zen Pedro. 7 urterekin hasi zen joaten, eta berehala hasi zen gerra. Gerra-denboran izaten zuten eskola, baina irakasleak etengabe aldatzen ziren. Ez zuten ezer ikasten. Erdaraz ez zekiten, eta irakasleek erdaraz hitz egiten zutenez, ez zieten ulertzen. Mutilek eta neskek aparte ikasten zuten. Ikastolako ordutegia azaltzen du. Hala ere, eskolara gutxi joaten ziren, etxean lana zegoelako beti.

70. Txikitako jolasak (BRS-011/011)

Jolasteko denbora izaten zuten. Pilotan aritzen ziren, tornikean, kaniketan, gordeketan... Tornikera nola jolasten zuten azaltzen du. Izandako pilotak gogoratzen ditu.

71. Eskola txikitan (BRS-011/012)

Maria ere oso gutxi joaten zen eskolara, lan asko zegoelako baserrian. Zarauzko maistra bat izan zuen, euskalduna. Eskola euskaraz ematen zuten.

72. Dotrina (BRS-011/014)

Dotrina buruz ikasi zuten. Orduko apaiz batekin nola ikasi zuten azaltzen du Pedrok. Bai eskolan, bai handik kanpo ikasten zuten. Orduan dotrina oso garrantzitsua zen. Gaur egungo egoerarekin alderatzen dute ordukoa.

73. Elizaren pisua gizartean (BRS-011/015)

Eliza inportantea zen orduan. Sarritan joan behar izaten zuten elizara. Kongregazioez hitz egiten dute. Elizak esandakoa ez betetzeagatik, zer zigor izaten zituzten kontatzen dute.

74. Elizak agindutako janzkerak (BRS-011/016)

Elizara joateko eta lutoa zenean nola jantzi behar izaten zuten azaltzen dute. Lutoa zenean, askotan arropa tindatu egin behar izaten zen. Urte t'erdi bi urtean eramaten zuten lutoa

75. Eskola eta gero, lanean (BRS-011/017)

Eskolan 14 urtera arte egon ziren. Eta horren ondoren, baserriko lanak egiten zituzten. Etxetik kanpo, teilatuak konpontzen ibili zen Pedro. Paretak egiteko harriak jartzen ere ibili zen. Lan pisuak egiten. Baserriko lana ere astuna dela diote.

76. Argia eta ura (BRS-011/018)

Lehen ez zuten urik etxean, eta argia berandu jarri zuten. Nola moldatzen ziren ura etxera ekartzeko eta arropak garbitzeko kontatzen dute. Xaboa izaten zuten, baina lixi-ura izaten zuten, arropa zuria egosi eta garbitzeko. Xaboi-hautsak botatzen zitzaizkion, eta gero kanpoan zabaltzen zuten arropa.

77. Etxeko garbitasuna (BRS-011/019)

Dena eskuz egin behar izaten zuten, eta lana gogorragoa zen. Etxeko garbitasuna nola egiten zuten azaltzen dute.

78. Kantak eta bertsoak (BRS-011/020)

Mariaren aita oso alaia zen, eta bertso eta kantu asko zekizkien. Mariak beregandik asko ikasi zuen. Frantses euskaldunen kantuak ziren. Mariak abestu egiten du.

79. Kantuak belaunaldiz belaunaldi (BRS-011/023)

20 urte zituenerako ikasi zituen kantu horiek. Bere aitak entzunda ikasiko zituen kantuak. Goizuetan bertsoarako zaletasun handia zegoen. Lehen entzunda ikasten zen, ez baitzekiten irakurtzen eta idazten.

80. Udaletxean lanean (BRS-011/025)

Pedro udaletxean aritu zen lanean, 40 urte zituela. 7 urte eman zituen han lanean. Garai hartan nolako bizimodua eta zer eginkizun izaten zituen azaltzen du.

81. Nola aldatu den herria (BRS-011/027)

Herria asko aldatu dela dio. Kanpoko jende asko etorri da. Baina industriarik ez dagoenez, hori da arazoa. Fabrika bat jartzekotan egon ziren, baina ez zieten utzi.

82. Berastegiko auzoak (BRS-011/028)

Berastegin zer auzo dauden azaltzen du: lau bailara dira, eta etxe guztiak bistan daude.

83. Errekan jolasean (BRS-011/030)

Txikitan erreka joaten ziren amuarrainak harrapatzera eskuz. Errekan hartzen zuten bainua. Uretan ibiltzen ziren jolasean.

84. Nola ezagutu zuten elkar (BRS-011/032)

Hernanin ezagutu ziren, Maria han neskame zegoela. Pedrok aitzakiaren bat izaten zuen Hernanira joateko, eta hala ezagutu zuen Maria.

85. Dotrinaren garrantzia (BRS-011/034)

Dotrina buruz ikasi zuten. Orduko apaiz batekin nola ikasi zuten azaltzen du Pedrok. Bai eskolan, bai handik kanpo ikasten zuten. Orduan dotrina oso garrantzitsua zen. Gaur egungo egoerarekin alderatzen dute ordukoa.

86. Elizaren pisua gizartean (BRS-011/035)

Eliza inportantea zen orduan. Sarritan joan behar izaten zuten elizara. Kongregazioez hitz egiten dute. Elizak esandakoa ez betetzeagatik, zer zigor izaten zituzten kontatzen dute.

87. Elizak agindutako janzkerak (BRS-011/036)

Elizara joateko eta lutoa zenean nola jantzi behar izaten zuten azaltzen dute. Lutoa zenean, askotan arropa tintatu egin behar izaten zen. Urte t'erdi bi urtean eramaten zuten lutoa

88. Eskola eta gero, lanean (BRS-011/037)

Eskolan 14 urtera arte egon ziren. Eta horren ondoren, baserriko lanak egiten zituzten. Etxetik kanpo, teilatuak konpontzen ibili zen Pedro. Paretak egiteko harriak jartzen ere ibili zen. Lan pisuak egiten. Baserriko lana ere astuna dela diote.

89. Argia eta ura (BRS-011/038)

Lehen ez zuten urik etxean, eta argia berandu jarri zuten. Nola moldatzen ziren ura etxera ekartzeko eta arropak garbitzeko kontatzen dute. Xaboa izaten zuten, baina lixi-ura izaten zuten, arropa zuria egosi eta garbitzeko. Xaboi-hautsak botatzen zitzaizkion, eta gero kanpoan zabaltzen zuten arropa.

90. Etxeko garbitasuna (BRS-011/039)

Dena eskuz egin behar izaten zuten, eta lana gogorragoa zen. Etxeko garbitasuna nola egiten zuten azaltzen dute.

91. Kantak eta bertsoak (BRS-011/040)

Mariaren aita oso alaia zen, eta bertso eta kantu asko zekizkien. Mariak beregandik asko ikasi zuen. Frantses euskaldunen kantuak ziren. Mariak abestu egiten du.

92. Kantuak belaunaldiz belaunaldi (BRS-011/043)

20 urte zituenarako ikasi zituen kantu horiek. Bere aitak entzunda ikasiko zituen kantuak. Goizuetan bertsoarako zaletasun handia zegoen. Lehen entzunda ikasten zen, ez baitzekiten irakurtzen eta idazten.

93. Udaletxean lanean (BRS-011/045)

Pedro udaletxean aritu zen lanean, 40 urte zituela. 7 urte eman zituen han lanean. Garai hartan nolako bizimodua eta zer eginkizun izaten zituen azaltzen du.

94. Nola aldatu den herria (BRS-011/047)

Herria asko aldatu dela dio. Kanpoko jende asko etorri da. Baina industriarik ez dagoenez, hori da arazoa. Fabrika bat jartzekotan egon ziren, baina ez zieten utzi.

95. Berastegiko auzoak (BRS-011/048)

Berastegin zer auzo dauden azaltzen du: lau bailara dira, eta etxe guztiak bistan daude.

96. Errekan jolasean (BRS-011/050)

Txikitan errekarara joaten ziren amuarrairak harrapatzera eskuz. Errekan hartzen zuten bainua. Uretan ibiltzen ziren jolasean.

97. Nola ezagutu zuten elkar (BRS-011/052)

Hernanin ezagutu ziren, Maria han neskame zegoela. Pedrok aitzakiaren bat izaten zuen Hernanira joateko, eta hala ezagutu zuen Maria.

98. Euskararen ñabardurak (BRS-011/055)

Hernanin neskame egon zenean, etxeak beti erdaraz egiten zuten, nahiz eta euskaldunak ziren. Goizuetako azentua nabari zaio Mariari, baina erraz ulertzen zaio. Tolosa aldera hizkera garbia eta polita dela esaten dute. Berastegiko hizkera hizkera nafarrarekin nahastu egiten du jendeak. Ez dago alderik hizkeran herriaren barruan. Ondo bereizten dira Gipuzkoako hainbat hizkeran. Gertuko herrien arteko hizkerak desberdinak diren adibide ugari ematen ditu.

99. Jolas-orduak eta jolasak (BRS-012/010)

Jolas-orduan pilotarekin jolasten zuten. Pilotak erosi egiten zituzten.

100. Txikatako jolasak (BRS-012/012)

Futbolean ez ziren ibiltzen. Baloirik ere ez zegoen orduan. Beste jolas batzuetara ere jolasten zuten: gordeketa, tornikea... Tornikea nola zen, eta taldeak nola egiten zituzten azaltzen du. Jolasetako arauak aipatzen ditu. Kaniketan ere ibiltzen ziren.

101. Pilota (BRS-012/013)

Berastegin ez da pilotaririk atera, baina baziren ondo egiten zutenak pilotan. Garai hartan frontoirik ere ez zegoen Berastegin, baina Leitza eta Elduainen bai, ordea. Pilotari ezagunak aipatzen ditu. Txapelketak kontu berria dira. Partiduak beraiek antolatzen zituzten. Ez du inoiz frontoietara joateko ohiturarik izan.

102. Estraperloa (BRS-012/014)

Estraperloan ere ibili izan ziren. Berastegin kontrabandista ugari izan ziren. Baina lan gogorra dela esaten du. Merkantzia nola lortu eta banatzen zuten azaltzen du. Diru pixka bat egin zuen horrela. Estraperloan zer eramaten zuten azaltzen du.

103. Estraperloko anekdota bat (BRS-012/015)

Behin estraperloko erloju batekin lagun bati gertatutakoa kontatzen du.

104. Estraperloko merkantzia gainean (BRS-012/016)

Merkantzia gainean nola eramaten zuten azaltzen du. Motxila, sokarekin lotuta, eta makila erabiltzen zuten. Bidaia bakoitzean 25 kilo eramaten zituzten, baina asko nekatzen zuen.

105. Estraperloko bidea (BRS-012/017)

Berastegi ingurua ondo ezagutzen du. Estraperloan zer bide egiten zuten azaltzen du. Leku batzuk besteak baino arriskutsuagoak ziren, guardiak egoten baitziren.

106. Polizia eta nagusiak estraperloan (BRS-012/018)

Mikelete eta guardia zibilei buruz hitz egiten du. Kontrabandisten artean ez zegoen lehiarik. Nagusiak maneiatzen zuen dirua, eta zintzo ordaintzen zien lana.

107. Merkantzia babesteko moduak (BRS-012/019)

Ardorik ez zuten eramaten kontrabandoan. Merkantzia ondo bilduta eramaten zuten apur ez zedin.

108. Estraperloan poliziarengandik ihesi (BRS-012/020)

Mikeleteak eta guardia zibilak non egoten ziren azaltzen du. Inoiz ez zuten arazorik izan guardia zibilarekin, baina beste batzuek bai. Arriskurik ez izateko, biderik zailena hartu behar izaten zuten.

109. Estraperloko bideko auzoak eta minak (BRS-012/021)

Plaza "arriskutsu" horietako batean, trena ez zebilen beraiek estraperloan zebiltzanerako. Inguruko auzo batzuk aipatzen ditu, eta mina batzuk zeudela azaltzen du. Han kanpotarrek egiten zuten lan gehienbat. Hala ere, mina horiek gerra denboran itxi ziren.

110. Trena Berastegin (BRS-012/022)

Trena ezagutu zuen, eta oso mantso joaten zen. Iruñera joaten zen tren hori. Jendea ere ibiltzen zen bertan. Tren zaharra zen. Eurite batek trenbideko errailak eraman zuen, eta orduan kendu zuten zerbitzu hura.

111. Kontrabandoa eta gero, fabrikara (BRS-012/024)

Kontrabandoan urte t'erdi inguru egin zuen. Hori utzitakoan, Arrosi fabrikari sartu zen lanean 27 urte zituela. Han 17 urte eman zituen.

112. Nagusi berriak fabrikari (BRS-012/025)

Gero fabrika saldu egin zutenez, itxi, eta Leitzara eraman zituzten lanera. Jabe beraren beste lantegi batera bidali zuten.

113. Jubilatzeke gorabeherak (BRS-012/026)

59 urterekin jubilatuta egin zen. Jubilatzeke zer komeria izan zituen azaltzen du. Eta pozik bizi da jubilatuta denetik.

114. Artzain-lanetan (BRS-012/027)

Txikitan artzain ibiltzen ziren anai-arrebak, gehienbat anaia bat. Lehen mendian izaten zituzten ardiak. Borda bat zeukaten mendian, eta han egiten zuten lo askotan, eguraldi txarra bazegoen.

115. Garraiobideen bilakaera (BRS-012/028)

Gaztetan bizikletak bakarrik zeuden. Gerora, motorrak etorri ziren. Eta gerora, autoak. Baina garai batean, dena oinez.

116. Auzolanak (BRS-012/029)

Auzolanak zer egiten zituzten bideak konpontzeko. Lehen auzolan ugari egiten ziren, elkarri laguntzeko borondate handiagoa baitzegoen lehen.

117. Garia eta artoaren prozesua (BRS-012/030)

Garia norberak jotzen zuen. Nola jotzen zuten garia deskribatzen du. Garia eta artoaren prozesuak azaltzen ditu. Lekuaren arabera, lehenago edo beranduago heltzen da garia. Igitaiarekin ebakitzen zen garia, lehortzen uzten zuten, eta ganbarara eramaten zuten.

118. Gariaren prozesuko makinak (BRS-012/031)

Harria egin zuen urte batean, garia guztiz okertu zen. Urte hartan asmatu zuten garia batzeko makina. Garia garbitzeko makinak nola funtzionatzen zuten azaltzen du.

119. Garia, irina eta errotak (BRS-012/032)

Gari alea lehortutakoan, zakuetan eta arkan gordetzen zuten. Eta gero errotara eramaten zuten pixkanaka-pixkanaka, irina egiteko. Errotak non zeuden azaltzen du. Beraiek, hala ere, Aresora joaten ziren, finagoa izaten baitzen hango errotatik lortutako irina.

120. Ardo bila Aresora (BRS-012/033)

Ardo bila ere Aresora joaten zen Berastegiko jendea. Nafarroatik ardoa pasatzeko, "sitxeak" ordaindu behar izaten ziren, eta mendiz etortzen ziren ordaindu behar ez izateko.

121. Ikatza eta karea (BRS-012/035)

Basoan gutxi ibilitakoa da, etxeko seme zaharra izanda, etxean lan egitea nahi izaten baitzuten gurasoek. Mendian ikatza eta karea egiten ziren. Karobia non zegoen, eta zer lan egoten ziren han azaltzen du. Harriak eta egurrak nola ekartzen zituzten aipatzen du.

122. Karobiaren funtzionamendua (BRS-012/036)

Karobiak nola erabiltzen zuten azaltzen du.

123. Karearen erabilerak (BRS-012/037)

Karearekin zer egiten zen azaltzen du. Soroarentzat ona da karea, eta gaur egun karea eginda erosten da. Kareak lurrari laguntzen dio. Karea morterotarako ere erabiltzen zen.

124. Osaba gotzaina (BRS-012/039)

Jose Mari Arregi Iparragirre bere gotzaina zen. Urte asko eman zituen Txinan. Han egin zuten gotzain. Argazkiak eta gutunak bidaltzen zizkion Jose Julianen amari.

125. Aitonak baserria erosi zuenekoa (BRS-012/041)

Aitonak baserria erosteko izan zituen gorabeherak kontatzen ditu. Baserri horren jabea Amerikakoa zen.

126. "Benixone" etxean jaioa (BRS-014/005)

Maria Angeles "Benixone" etxean jaio zen Berastegin. 4 senide ziren. Aita gazterik hil zitzaien eta izeba batekin bizi izan ziren. Baratze txiki bat eta ganadu parek zuten etxean. Lehen denak baserritik bizi ziren Berastegin. Gerora hasi ziren lantegiak, pixkanaka.

127. Txerriak etxe guztietan (BRS-014/006)

Orain eskola dagoen lekuan erretore-etxea zegoen. Baserri-etxeak ziren gehienak Berastegin eta etxe guztietan egoten ziren txerriak, txerrikumeak hazi eta saltzetik bizi ziren asko eta.

128. Inguruetan soro ugari; etxeko jeneroa saldu (BRS-014/008)

Orain etxe berri asko egin da Berastegin, baina lehen soroak ziren inguruan. Garia eta artoa hartzen zen asko. Hiru puskatatik baten garia ereiten zen eta beste bietan artoa; eta urteka txandatu egiten zen. Babarruna ere asko egiten

zen. Egunero jaten zen babarruna, astean babarrun gorria eta igandetan babarrun zuria edo garbantzua. Dirua ekartzeko etxeko jeneroa saldu egin behar izaten zen. Ardiekin ere ateratzen zuten diru pixka bat, bai gazta eginda edo baita arkumeak salduta ere.

129. Ardizain mendian (BRS-014/011)

Etzetik kanpora gutxi lan egin izan du Evaristok. Ardiak zaintzen egoten zen mendian. Txabola batean egoten zen. Hasieran etzetik eramaten zituen babarrunak baina gerora ardikia prestatzen zuen bertan. 20 egun inguru egiten zituen bertan. Ardiek udaberrian izaten dute lan gehien, arkumeak jaiotzen hasten direnean.

130. Eskolan lehenbizi don Eliasekin eta gero apaizarekin (BRS-014/013)

Plazan ibili ziren eskolan. Evaristo 8 urtera arte don Elias maisuarekin ibili zen eta orduan ikasitakoarekin gelditu omen zen, gerora irakaslea aldatu egin zen eta. Gero apaizari enkarguak egiten zizkion tarteka eta hark eskola partikularrak ematen zizkion. Baina lehen eskola gutxi jasotzen zuten, etxean lan egin behar izaten zuten eta.

131. Aita eta aitona ganadu-tratuan (BRS-014/014)

Evaristoren aita eta aitona ganadu-tratuan ibiltzen ziren. Auritz ingururaino ere joaten ziren, Agoitzerraino trenetxe joanda. Ganadua handik ekarri eta Tolosan saltzen zuten ferian.

132. Maria Luisa Prendes irakasle asturiarra (BRS-014/015)

Maria Angeles gehienetan joaten zen eskolara, nahiz eta batzuetan etxeko lanetan lagundu behar izaten zuen. Neskek Maria Luisa Prendes asturiarra zuten irakasle. Oso zorrotza omen zen eta ez zuten euskaraz hitz egiterik izaten. Ze zigor jartzen zizkien azaltzen du.

133. Dotrina euskaraz izan arren, zenbait hitz ulergaitzak (BRS-014/017)

Neskek Cara al Sol abestu behar izaten zuten eskolara sartzean. Dotrina garrantzitsua zen, baina hura apaizarekin ikasten zuten. Eskolak gaztelaniaz jaso arren, dotrina euskaraz ikasten zuten. Hala ere, buruz ikasten zuten, eta zenbait hitz ez zituzten ulertzen.

134. "Pazkoazkoa"; kongregazioak; dantza lotua debekatuta (BRS-014/020)

Orduan inor ez zen geratzen herrian jaunartzea egin gabe. "Pazkoazkoa" ere egin behar izaten zuten. "Pazkoazkoa" nola egiten zen. Elizak indar handia zuen orduan, beldurra sortzerainokoa. Kongregazioak. Dantza lotua debekatuta zegoen orduan, baita neskek elkarrekin eginez gero ere.

135. Herriko soinujoleekin erromeria (BRS-014/022)

Herrian bazen soinujole elbarri bat; ez zen ibiltzeko gai eta astoan ekartzen zuten. Umoretsua zen eta erromeria politak egiten omen zituen. Inguruko herrietatik ere bertara etortzen zen jendea dantzara. Beste soinujole bat ere bazen, nanoa. Bi anaiak omen ziren nanoak eta biak musikariak. Zaldiz ibiltzen ziren. Solfeoaz gain, Tolosan eskola ona ikasiak ziren.

136. Herriko bi anaia musikariak (BRS-014/024)

Bi anaia nanoak, biak ziren musikariak, bata pianoa eta besteak soinua jotzen zuten. Tolosan ikasi omen zuten musika eta eskolan ere bertan ibili ziren, frantsesekin. Musikari onak ziren, baina "kasketak" ere izaten omen zituzten.

137. San Lorentzo jaiak nolakoak izaten ziren (BRS-014/025)

Herriko festak San Lorentzoetan izaten dira. Dantzasoka egiten zen lehenago herriko txistulariekin. Kirol gutxi jartzen zuten orduan. Bertsolariak ekartzen zituzten normalean eta balkoitik balkoira abesten zuten. Pilota partidak ere izaten ziren. Etxeetan gonbidatuak izaten ziren. Iluntzean garaiz bukatzen zen festa.

138. San Lorentzorekin fedea, "bixikak" kentzeko (BRS-014/026)

San Lorentzo ermita mendian dago. Jendeak fede handia zuen San Lorentzorekin, "bixikak" kentzen omen zituela eta.

139. San Lorentzo ermitaren inguruko sineskeria (BRS-014/027)

San Lorentzo ermitaren inguruko sineskeriak: San Lorentzo ermita zaharra behean dago; berria goian egin zutenean, berriz behera etortzen omen zen ermita.

140. Inguruko ermitak: San Anton eta San Sebastian (BRS-014/029)

Inguruko ermitak: San Anton eta San Sebastian. San Anton ganaduen patroia. Bide ertzean dago San Anton. Lehen jendeak dirua botatzen zuen bertara, baina gero lapurretak izaten omen ziren. San Sebastian, burukominen zaindaria omen da.

141. Umetako jolasak: gordeketan, aideketan, torniken, kaniketan... (BRS-014/030)

Umetan gordeketan, aideketan, torniken... jolasten zuten. "Aideketan" eta "torniken" jolasak nola egiten ziren azaltzen dute. Kaniketan ere jolasten zuten, bai paretean eta baita zuloan sartzen ere. Kanikak lurrezkoak izaten ziren normalean eta kristalezko bakanen bat ere egoten zen.

142. Pospolin jantzitako panpinak; dantza-taldea; abertzaletasuna (BRS-014/031)

Maria Angeles pospolinen dantza-taldean ibili zen eta gizon batek pospolin jantzitako panpina bana oparitu zien berari eta ahizpari. Gerra garaian, Nafarroa aldetik sartu ziren erreketak. Abertzale izateagatik bizitakoak. 12 neska inguru izaten ziren dantza-taldean. Abestu eta dantza egiten zuten. Bere aitak eta anaiak ere dantza egiten omen zuten. Zer dantza egiten zituzten.

143. Gurasoei berorika (BRS-014/036)

Evaristok anai-arrebekin hika hitz egin izan du, baina Maria Angelesek ez. Evaristok gurasoei berorika hitz egiteko ohitura zuen. Apaizari, medikuari eta

maisuei egiten zitzaien berorika. Senar-emazteek elkarrekin zuka egiten zuten normalean. Emakumeen arteko hitanoa nahiko galduta dagoela herrian dirudi.

144. Aitak eskolarako gaitasuna, baina aukerarik ez (BRS-016/002)

Aitaren abizenak: Egües Eraso. Eskolarako gaitasuna omen zuen, baina ez zuen aukerarik izan. Plazaolako trenbidean garraio lanean ibili zenean, zenbat irabazten zuen kontuak ateratzen ibiltzen omen zen, matematikako ariketak egiten. Idazteko zaletasuna ere ba omen zuen.

145. Umea jaiotakoan, atsolorra (BRS-016/004)

Umeren bat jaiotzen zenean amak umea elizara eraman behar izaten zuen, "aurkeztera". Eta handik bueltan bazkaria edo merienda ematen zitzaien senide edo ingurukoei. Atsolorra ("Atso lehorra" izango dela uste dute) deitzen zitzaion. Normalean emakumeak biltzen ziren atsolorrean. Beraien amak seme-alaba guztiekin eman zuen, batekin izan ezik, errazionamendu garaia baitzen. Errazionamendu garaian galdu omen zen atsolorra egiteko ohitura.

146. Errazionamendu garaia; errotara ezkutuan (BRS-016/005)

Errazionamendu garaian ez zegoen ogirik. Euren etxean ez zegoen taloa jateko ohiturarik, baina errazionamendu garaian hasi ziren egiten. Garai batean ezkutuan joan behar izaten ziren errotetara irina egitera. Aresoko errotara joaten ziren. Inguruko asto batek errotarako bidea omen zekien eta denek asto hura nahi izaten zuten.

147. Senarrek 3 eta 7 urte egin zituzten soldadu (BRS-016/006)

Doloresen senarra Elduakoa zen, Etxezahar baserrikoa. Aita-semeak bizi ziren bertan. 17 urterekin, gerrara joan behar izan zuen; eta, gerra ostean ere, beste 7 urte soldadutzan egitea tokatu zitzaion. Luciaren senarrak 3 urte egin zituen. Senarren eta ingurukoen fronteko kontuak kontatzen dituzte. Luciak idazten zizkien gutunak ingurukoei, eta oraindik gogoan ditu helbideak. Eskutitz bidez jakiten zuten elkarren berri. Dirua (5 duro) ere bidaltzen zuten gutunetan.

148. Senarrak Espainia pasa zuen gerran (BRS-016/007)

Senarrak, gerran zeudenean, baimen gutxi izaten zuen etxera etortzeko. Luciak senarra nondik nora ibili zen gerran azaltzen du. San Pedro bezperan itzuli omen zen gerratik lizentziatuta.

149. Santiago egunez sartu ziren erreketekak Elduainen (BRS-016/009)

Gerra hasiera. Errepublikanoak inguruetako etxeetan ibili ziren arma bila, eta Nafarroa aldera egin omen zuten; baina, gero, atzeraka-atzeraka etorri omen ziren. Santiago egunean sartu ziren erreketekak Elduainen: guardia zibilak, txapel gorridunak, apaiza sotana luzea eta txapel gorriarekin... "¡Viva España! ¡Viva Cristo Rey!" oihukatzen omen zuten.

150. Errepublika garaian apaizak jazarrita (BRS-016/011)

Errepublika garaian apaizak jazarrita egon ziren, tartean euren lehengusu Kaximiro, sakramentinoa. Kaximiro goizean goiz joaten omen zen mezara eta

kanpairik ere ez omen zuten jotzen, mehatxatuta zeudelako. Errepublika nahaste handiko garaia izan omen zen.

151. Errepublikako ikurrak kendu eta tiroak hasi ziren (BRS-016/013)

Gogoan dute errepublikako ikurrak nola kendu zituzten. Errepublikako banderari izkinetako morea kendu eta horia josi zioten, eta kontzeju gaineko leihoan jarri zuten. Udaletxeko Manuel Azañaren argazkia erre egin omen zuen guardia zibil batek. Gauean tiroak hasi ziren, alde batetik errepublikanoak eta bestetik erreketek. Gerora, errefortzuak etorri ziren eta kanoikadak ere izan ziren. Abuztuaren 10ean, San Lorentzo egunez, festak ziren Berastegin; eta, han zeudela, kanoikadak erori zitzaizkien inguruan.

152. Errepublikanoak fabrikara material bila (BRS-016/014)

Aita zaintzaile moduan ibiltzen zen paper-fabrian. Gauez, bakarrik zegoela, errepublikanoak etorri zitzaizkion mantak, papera, gasolina eta abar eskatzera. Gero jakin zuen produkzioko zuzendariak esan ziela norengana jo material bila. Zuzendaria bera ihesi joana zen eta gehiago ez omen zen itzuli fabrikara.

153. Etxean bildu ezindako besteko "kupoa" (BRS-016/017)

Kalekoek okerrago pasa zuten gerra ostean, errazionamendu garaian; baserrian beti izaten zen zerbait jateko. Sasoi batean etxeko jeneroa entregatu ere egin behar izaten zen eta bildu ezindako baino kupo handiagoa jarri zietela gogoan dute.

154. Gerra garaian bi dantza-talde: karlistena eta nazionalistena (BRS-016/021)

Berastegiko festetan txistua eta danbolina izaten ziren eta dantza egiten zuten. Dantzasoka ere egiten zen eta euren osaba batek ere egiten zuen dantza. Gerra garaian bi dantza talde egoten ziren, bata karlistena eta bestea nazionalistena. Gerra ostean, berriz talde bakarra. Gerra aurretik ere ba omen zen dantza-taldea.

155. Igandetan bezperetara eta ondoren dantzara (BRS-016/022)

Dolores igandero joaten zen Berastegira; lehenengo bezperetara eta gero dantzara. "Aimaritarako" (Ave Mariatarako) etxera etorri behar izaten zuten. Berastegiko mutilek gero neska-laguntzea egiten zieten.

156. Elduaingo alkate batek dantza lotua baimendu zuen (BRS-016/023)

Dantza heldua debekatuta zegoen. Apaizak agintzen zien alkateei debekua ezartzeko. Elduaingo alkate batek hobe zela apaiza kontra izatea herri osoa baino eta debekua kendu zuen. Jaietan beranduagora arte ibiltzeko baimena ere izaten zuten.

157. Elduako festak (BRS-016/024)

Elduan abuztuaren 15ean izaten dira festak, Ama Birjinaren egunean. Gerra aurretik txaranga ere ekartzen omen zuten. Jai arratsaldean txokolatea hartzera joaten ziren ezagun baten etxera. Berastegiko gizon batek soinua eta txistua jotzen zituen festetan. Elbarria zen gizona eta astoan etortzen zen.

Berastegiko nano batek ere jotzen zuen soinua, baina hark kategoria gehiago zeukan.

158. Elduako eliza egin zenean 3-4 etxe bakarrik ziren (BRS-016/025)

Elduako eliza parrokia izana da eta garai batean bikarioa bizi izan omen zen bertan. 600 urte inguru omen dauzka. Elduako eliza egin zenean 3-4 etxe besterik ez omen ziren. Inguruetako baserriak.

159. Auzorako apaiza eskatu zioten obispoari (BRS-016/030)

Apaizak kanpotik etortzen ziren meza ematera. Beraiek beneditarrak ezagutu izan dituzte, baina aurretik sakramentinoak etortzen omen ziren. Igandera egoten zen meza Elduan, nahiz eta meza nagusira Elduainera joaten ziren. Auzotarrek apaiza auzoan izatea nahi zuten eta obispoarengana joan ziren eskean. Obispoa bertara etorri zitzairen. Apaizarentzat eta elizako gastuetarako diru-iturria behar zen eta paper fabrikako nagusia egin zen kargu. Apaizari nomina jarri zioten eta elizarako behar ziren gauzak ere hark ordaintzen zituen.

160. Baserriko elikadura (BRS-017/008)

Soroan zer lantzen zuten azaltzen dute. Sagardoa egiten zuten baserrian, dolarea bai baitzeukaten. Ardiak zituztenez, ondo ibiltzen ziren janariarekin..

161. Txabolan lapurreta egin ziotenekoa (BRS-017/017)

Behin txabolan lapurreta egin zioten bera barruan zegoela. Lapurrek gero mehatxu egin zioten, eta diru gehiago eskatu. Azkenean harrapatu zituzten lapurrak, baina bitartean estutasunak pasa zituen Saturrek.

162. Artzain lana gustuko (BRS-017/019)

Bost artzain inguru ibiltzen ziren Zelatunen. Beti ibili izan da ardiak zaintzen, nahiago baitzuen hori soroan lan egin baino. Ardien salmentari buruz hitz egiten du.

163. Txabolan gaztak egin eta herrian saldu (BRS-017/021)

Satur Odriako txabolan egoten zen eta han etxeko lan guztiak berak egiten zituen. Gazta saltzera herrira jaisten zen.

164. Txabolako sukaldaria (BRS-017/022)

Txabolan bazkaltzeko era askotako janaria izaten zuten: ardikiak, txerrikiak, arrautzak, patatak...

165. Ardiak gaixotzen zirenean (BRS-017/024)

Ardiak hiltzen zitzaizkien, baina lehen ez zegoen orain adina gaitzik. Lehen botika gisa sulfatoa erabiltzen zuten, eta sendatu baino, erre egiten zuen hark muina ere.

166. Ahariak eta ardi motak (BRS-017/026)

20 bat ahari izaten zituen bere ardientzat. Ardi mota ugari daude.

167. Ardi bakoitza desberdina (BRS-017/028)

Lehen ardiko 1.000 pezeta ordaintzen zuen, baina pixkanaka salneurria igotzen joan zen. Hainbeste ardi ezagutzeko eta kontrolatzeko nola moldatzen zen. Ardia zeren arabera ezagutzen zuen.

168. Azeriak eta txakurrak etsai bihurtzen zirenean (BRS-017/030)

Azeriek eta txakurrek eraso egiten zieten ardiei.

169. Zelatungo erromeria eta Hernioko gurutzea (BRS-017/033)

Zelatungo erromeria lehen ere egiten zen; eta artean artzainak ere oraindik han izaten ziren, Eguberri aldera itzultzen baitziren etxera. Hernioko gurutzea jartzen lagundu zuen Saturrek. Erromeriara jendea nondik etortzen zen azaltzen du. Erromeriako giroa.

170. Erromerietako musikagileak eta haiek jarritako giroa (BRS-017/035)

Erromerietako soinu-jotzaileak zein izaten ziren aipatzen du. Musikak jendea asko animatzen zuen. Erromeria bukatutakoan, bakoitza bere etxera itzultzen zen, eta dena isil-isilik geratzen zen.

171. Ferratzaile lanetako hastapenak (BRS-019/001)

Ferratokian lan egindakoa da. 14 urterekin hasi zen Tolosan osabarekin eta anaiarekin lanean. 11 urte ostean, utzi egin zuen hango lana. Beren familiako ferratokiko lan motak nola joan diren aldatzen azaltzen du. Tolosan ibili zen hasieran lanean eta hara bizikletan joaten zen bazkaria etxetik eramanda.

172. Ferratokiko lan-baldintzak hasiberrian (BRS-019/003)

Ferratokiko ordutegia. Normalean bizikletaz joaten zen Tolosara lanera, baina batzuetan esnezalearen kamioian. Lanean hasi zenean, eguneko 20 pezeta kobratzen zuen. Paper-fabrikako soldatak baino askoz baxuagoa zen ferratokiko soldata.

173. Eskolako ibilerak (BRS-019/005)

Plazako eskolan ikasi zuen. 5 urterekin hasi zen han, eta bi maistra izan zituen txikitan; geroago maisua izan zuen. Maisuak dena erdaraz egiten zuen eskolan eta umeei ahal zutena ulertzen zuten. Katona ikasten zuten orduan. Mutilak eta neskak aparte ibiltzen ziren eskolan. Eskolako ordutegia aipatzen du.

174. Maila oneko korua Berastegin (BRS-019/006)

Eskolatik ateratakoan, don Toribio Labaien apaizak korua antolatzen zuen elizan. Apaiz hark solfeoa irakatsi nahi izaten zien umeei, baina umeei ikasi nahi ez, eta gordeka aritzen ziren. Koruan, mutilek bakarrik abesten zuten. Lehen koru ona zegoen Berastegin. Herrian ondo abesten zuten gizonak aipatzen ditu. Igandetan abesten zuten mezetan.

175. Eliz mutil ibilitakoa (BRS-019/008)

Koruarekin igandetan abesten zuten mezetan. Nahitaez joan behar izaten zuten mezara. Sei-hamabi urte bitartean, Gregorio eliz mutil izan zen. Orduan

egunero egoten ziren mezak, eta goizean goiz eskolara joan baino lehenago joaten zen bera mezara. Eliz mutil izateagatik ordaindu egiten zieten. Meza bereziak izaten zirenean, eskupeko berezia ematen zieten. Eliz mutilek zer lan zuten azaltzen du.

176. Apaizen izaera eta medikuarekin izandako istripua (BRS-019/009)

Amak animatu zuelako sartu zen eliz mutil. Apaiz ugari ezagutu zituen, eta izaeran antza gutxi zuten elkarren artean. Apaiza medikuarekin pilotan zebilela, nahi gabe medikua hil zuen pilotakada batekin. Ordutik errudun sentitzen zen apaiza, eta bakarrik aritzen zen hizketan.

177. Eliz mutilen lana eta apaizen soldata (BRS-019/010)

Lau apaiz egoten ziren eta erretore zegoenak bikoitza kobratzen zuen. Apaizek erresponstuak errezatzeagatik edo mezak emateagatik zenbat kobratzen zuten aipatzen du. Diru hura bost pilatan jartzen zuten, eta bi erretorearentzat izaten ziren.

178. Erresponstuak eta sepulturak (BRS-019/011)

Erresponstuak hildakoen aldeko errezoak ziren. Sepulturetan dirua nola biltzen zen azaltzen du, eta diru asko zegoenetan denbora asko pasa behar izaten zen errezatzen diru hura "gastatu" arte.

179. Apaizari ematen zitzaion tratamendua (BRS-019/014)

Lehen apaizarekin topatzean, txapela kendu egin behar izaten zen. Apaizari, gurasoei eta zaharragoei berorika hitz egiten zieten. Zuka senideei egiten zitzaien; baina anai-arrebei eta lagunei hika.

180. Berastegiko prozesioak (BRS-019/016)

Berastegin prozesioak egiten ziren Corpus Egunean. Ibilbidea. Aste Santuan ere izaten zen prozesioa. Matxingorriak. Kalbarioetan beste ibilbide bat egiten zuten.

181. Eliz mutil elizatik kanpo (BRS-019/017)

Eliz mutil gisa meza nagusietan laguntzen zuten. Baziren, hala ere, okasio bereziak elizatik kanpora joan behar izaten zutenak: besteak beste, iltzeen ofrendako egunean.

182. Berastegiko antzerki-taldeko ibilerak (BRS-019/020)

Gregorio Berastegiko antzerki-taldean ibili zen 19 bat urte zituela. Getariara, Errezilera eta beste leku batzuetara joan ziren emanaldiak egitera. Antzerki-taldean neskak eta mutilak ibiltzen ziren; apaizak antolatu zuen taldea. Entseguak gauean izaten ziren, lana bukatu ostean. Entseguetarako lekua denon artean prestatu zuten. Entseguetako giroa nolakoa zen azaltzen du. 15-20 lagun ziren taldean. Antzerkietarako arropa etxetik lortzen zuten nola-hala.

183. Antzerki-taldean lagun-giroa (BRS-019/021)

Antzerki-taldean Gregorioren lagun-kuadrilla guztia sartu zen. Euskaraz egiten zituzten antzerkiak. Herriko jendea zain egoten zen antzerkia noiz ikusiko, zinerik ez baitzen ez orduan ez oraindik. Sarrerarik ez zuten kobratzen emanaldietan. Antzerkia egiten disfrutatu egiten zuten.

184. Gazteen festa arrakastatsua Berastegin (BRS-019/023)

Berastegin San Lorentzoak ospatu izan dira. Baina uztail hasieran luistarrek gazteen festa antolatzen zuten herrian. Herri guztiak hartzen zuen parte hor. Festa handia izaten zen egun hartan, oso giro ona. Zinten jolasean aritzen ziren. San Lorentzoetan baino giro hobea izaten zen egun hartan.

185. Kirolak eta apustuak Berastegin (BRS-019/024)

Berastegin korrika-apustu asko izaten ziren. Herrian ez zegoen kirolari ezagunik, baina pilota-partiduak igandero izaten ziren. Pilotarako zaletasun handia zegoen. Idi-proba behin bakarrik ikusi izan du Gregoriok bere bizian.

186. Elduaindik Berastegira erromeriara (BRS-019/028)

Elduaingo gazteak Berastegira etortzen ziren jaietara. Oinez etortzen ziren errepidetik, dantzan ibili eta etxera bueltan. Soinu-jotzailea Pedro Okerra izaten zen. Dantza lotua debekatuta zegoen leku gehienetan.

187. Berastegin izandako soinu-jotzaileak (BRS-019/029)

San Lorentzo eta San Anton eguneko dantzaldietan Kaxiano etortzen zen soinua jotzera. Xinfo, Pedro Okerra, Mariano... izan ziren soinu-jotzaileak. Pixkanaka dantza egiteko ohitura gutxitzen joan da. Pakito eta Manolo Yaben soinu-jotzaileei buruz hitz egiten du.

188. Berastegiko euskara ingurukoekin alderatuta (BRS-019/031)

Berastegi eta Leitzako hizkeren artean aldea nabaritzen du. Tolosako hizkera, ordea, oso antzekoa da. Goierri aldera hasten da euskara aldatzen. Tolosarako joera handia dago Berastegin. Leitzako festetara lehen gehiago joaten ziren orain baino.

189. Inguruko herrietako festetara gustura (BRS-019/032)

Leitzako festak abuztuaren 11n izaten dira, San Tiburtzioetan. Hango festak Berastegikoak baino hobeak ziren, gauza gehiago baitzegoen han. Aresora, Elduainera eta Goizuetara festetara joaten ziren Berastegitik. Berrobira gutxiago joaten ziren. Bizikletaz edo oinez joaten ziren festetara.

190. Soinua jotzen irakatsi zioten maisuak (BRS-020/001)

Juanito Kortajarenak erakutsi zion solfeoa. Haren anaia, Txomin Kortajarena, apaiza zen, Argentinan urte askoan egondakoa, han erlezaintzarekin hobekuntza handia egindakoa; erretiroa hartu zuenean itzuli zen Euskal Herrira. Jose Tarragona ere maisu izan zuen.

191. Han eta hemen soinua jotzen (BRS-020/002)

Lehen igandero Berastegin festa izaten zen eta eta Xinfo soinua jotzen ibiltzen zen bertan. Inguruko herrietara ere joaten zen noizean behin soinua jotzera.

192. Baserritik kanpo lan egiteko pausoa (BRS-020/005)

Paper-fabrikan aritu izan da lanean. Gazte zela, 4-5 urte pasa zituen Kalparsoron lanean, baina aitzak nahiago zuen baserrian lan egiten gelditzea, eta fabrika utzi egin zuen. Gerora, ordea, ezkondu zenean, Sarrion sartu zen lanean.

193. Fabrikan lanean han eta hemen (BRS-020/011)

Kalparsoron lan egiteari utzi, etxera itzuli, baina gerora berriro hasi zen kanpoan lanean Arrosin. Arrosi itxi egin zuten, baina, eta Leitzara eraman zituzten langileak. Geroago, aukera izan zutenean, Berrobira joan ziren lanera Berastegiko langile gehienak. Ordutik fabrikak zer bilakaera izan duen azaltzen du.

194. Euskararen aldaketak herritik herrira (BRS-020/017)

Euskara herritik herrira nola aldatzen den azaltzen du. Euskara galtzen ari da zenbait herritan.

195. Eskolan zer eta nola ikasten zuten (BRS-020/023)

Gaztelaniaz nola edo hala moldatzen ziren, baina eskolan dena gaztelaniaz egitera behartzen zituzten, baita Flora maistra onak ere. Florarekin zer ikasten zuten azaltzen du. Neskak eta mutilak denak batera aritzen ziren.

196. Pianotik akordeoira (BRS-020/025)

15 urterekin hasi zen ikasten solfeoa. Hasiera batean pianoa jotzen hasi zen, geroago akordeoia.

197. Bere eskutatik pasatako akordeoien historia (BRS-020/027)

Akordeoi bat baino gehiago izandakoa da eta non erosi eta saldu zituen azaltzen du.

198. Piezak jotzen ikasten (BRS-020/028)

18 urte ingururekin Tarragonarekin ibili zen ikasten, baina ez zuen denbora asko eman han. Partiturak Donostiatik ekartzen zituen eta buruz ikasi arte aritzen zen jotzen. Plazan jotzen zuenean buruz jotzen zuen eta Felix Azpiroz txistulariarekin ondo konpontzen zen partiturak konpartitzeko. Pieza batzuk besteak baino hobeto jotzen zituen, baina plazan inork ez zion ezer esaten, dantzarako nahikoa baitzeukaten.

199. Batetik bestera soinua jotzen (BRS-020/029)

Soinu-jotzaileei udalak ordaintzen zien herrian; beste leku batzuetan, ordea, diru-bilketak egiten ziren. Leku ugaritan eta hainbat adiskiderekin soinua jotzen ibilia da.

200. Soinua jotzetik bizitzea zaila (BRS-020/030)

Beste soinu-jotzaile batzuei buruz hitz egiten du. Soinua jotzetik bizitzea zaila da eta horregatik beste lan bat bilatu behar izan zuten gehienek. Gutxi izan dira soinua jotzetik bizi izan direnak. Soinu-jotzaileen artean lagundu egiten zioten elkarri.

201. Herriaren arabera dantza bat edo beste (BRS-020/031)

Herritik herrira aldea egoten zen dantza egiteko moduan: batzuetan libre zen dantza lotua egitea, baina besteetan ez. Ezkontzetan ere ez zen libre dantza lotua.

202. Soinua jotzera kanpora joaten zenean (BRS-020/032)

Askotan norabait soinua jotzera joan eta bertan gelditzen zen lotan. Orduko ordutegi, otordu eta lanak nolakoak izaten ziren aipatzen du. Otordu haietako batzuetan apaiz ugari elkartzten ziren eta eztabaidan aritzen ziren erlijioaren gainean.

203. Gerraostean goserik ez pasatzeko egindakoak (BRS-020/035)

Gerraostean goserik ez zuten pasa, baina olioarekin arazoak izaten zituzten. Haren orde, seboa erabiltzen zuten, baina hori ere jende askok bilatzen zuenez, urria zen. Errotara ezkutuan joaten zen etxeko artoa jan ahal izateko. Txerria ere hiltzen zenez, goserik ez zuten pasa. Kaletik jendea gustura joaten zen baserrietara lanera zerbait jatearen truke.

204. Txerria guardia zibilengandik ezkutatzen (BRS-020/036)

Behin txerria hiltzen ari zirela, guardia zibila gertu zegoela ikusita, txerria ezkutatu zuten. Izan ere, txerri bakarra hil zitekeen urtean, eta hura ere baimenarekin. Guardia zibilak ez ziren asko ibiltzen etxeak miatzen.

205. Guardia zibilek etxeak miatzen zituztenekoa (BRS-020/037)

Behin guardia zibilak etxez etxe ibili ziren miatzen, kontsul alemana Donostian bahitu zutenean. Garai hartan izan ziren Burgosko epaiketak. ETako kideak bilatzeko ere, etxeak miatzen ibili izan dira guardia zibilak Berastegin. Guardia zibilak etxera etortzen zirenean, firmatu egin behar izaten zuten baserritarrek, frogatu ahal izateko guardia zibilak etorri zirela. Batzuetan, arrautza eske ere etortzen ziren.

206. Guardia zibilen lan-baldintzak (BRS-020/038)

Guardia zibilak arrautza eske etortzen ziren batzuetan. Guardia zibilen lan-baldintzei buruz hitz egiten du: lehen oinez ibiltzen ziren, kuartela Leitzan zeukaten, atentatu pare bat izan zituzten...

207. Paper-fabrikako lana eta haren ondorioak (BRS-021/002)

24-25 urterekin Kalparsoron hasi zen lanean. Pastatan egiten zuen lan eta lan-prozesua nolakoa zen azaltzen du. Lehen fabrikako zikinkeria errekarat botatzen zen eta kiratsa egoten zen Tolosa inguruan.

208. Arrosiko lanaren nondik norakoak (BRS-021/004)

Kalparsoron lan egiteari utzi ostean, Arrosira joan zen lanera. Han zer lan egiten zituzten azaltzen du. Era askotako paperak sortzen zituzten eta Leitzara bidaltzen zituzten.

209. Sarrioren indarra (BRS-021/006)

Sarriok Uranga eta Arroshi erosi zituen 1970 inguruan; orduan indarra hartu zuen, eta fabrika horri esker, Leitza inguru guztian lana egon izan da. Langileak autobusez etortzen ziren inguruko herrietatik. Adin guztietako pertsonei ematen zitzairen han lana.

210. Leitza eta Berastegiko fabriken arteko aldeak (BRS-021/007)

Leitzakoa fabrika modernoa zen, baina diru gutxiago irabazten zuten Nafarroan zegoelako fabrika. Aukera izan zutenean, Berastegira joan ziren lanera langile asko eta zer-nolako lan-baldintzak izaten zituzten azaltzen du. 63 urterekin hartu zuen Xinfok erretiroa.

211. Anaia apaiz egin artekoak (BRS-024/011)

Anaiak Gasteizen ikasi zuen apaiz izateko. Ikasketa haiek ordaintzeko diru-laguntzak bazeuden, baina baserri baten jabe izanez gero ez zituzten ematen. Nola edo hala moldatu ziren, hala ere, hura ordaintzeko. Anaiak 22-23 urte zituen apaiz egin zenean, eta Arantzazun meza eman zuen egunean ardiekin gertatutakoa kontatzen du.

212. Anaia apaiz egindakoan bizitakoak (BRS-024/012)

Anaia apaiz egindakoan, Zumaian egon zen denbora askoan, eta geroago, Usurbilen. Anaiari laguntzera joan zen Katalina Usurbilera.

213. Eskolara txintxo joandakoa (BRS-024/014)

Umetan eskolara txintxo joaten ziren. Eguraldi txarra zenean eskolara joateko nola moldatzen ziren azaltzen du. Maistrak hiru aldiz aukeratu zuen Katalina udaletxeko balkoitik diskurtsoa botatzeko. Diskurtsoa nola izaten zen azaltzen du.

214. Eskolan ikasle fina izandakoa (BRS-024/016)

Eskolako maistra Leongoa zen, eta Katalinari uzten zion etxeko ardurak kanpora joaten zenean. Eskolan erdaraz ikasten zuten. Maistrak ikasleak zigortzen zituztenean, Katalina uzten zuen haiek zaintzen. Zer ikasten zuten aipatzen du.

215. Pilota eta kanikak umetan (BRS-024/020)

Pilotan ibiltzen ziren, baina mutilen kontua zelakoan, erreparoa ematen zien. Kanikatan ere aritzen ziren.

216. 'Pernando amezketarra'ren bertsoak (BRS-024/023)

Pernando amezketarraren kanta abesten du. Behin bertso haiek kantatu zituzteneko anekdota kontatzen du.

217. Ama gazterik hil zitzairen (BRS-024/025)

Ama oso gazterik hil zitzairen, eta seme-alabak zain egoten ziren hura zerutik noiz etorriko. Lehen zer mediku zeuden eta ama ospitalera nola eraman zuten azaltzen du.

218. Lehen nola janzten ziren (BRS-024/030)

Amari gustatzen zitzaion arropan zeuden azken joerak jarraitzea. Zer arropa janzten zuten normalean azaltzen du: soinekoa, xala, zapatak...

219. Arropa dotorea eramatea gustuko (BRS-024/032)

Elizara joaten hasi zirenean, dotore janzten ziren. Amak Tolosako denda batetik erosten zituen soinekoak, eta arropa dotorea izaten zen.

220. Komunioko jantzia eta gurasoen osasuna (BRS-024/034)

Komunioa egiteko, alaba zaharrenarentzako egin zen soineko berria, eta atzetik zetozen alabek ere hura erabili zuten. Komunioko arropa zer-nolakoa zen azaltzen du. Katalinak komunioa egin zuenean, aita gaixo zegoen, eta negarrez hasi zen alaba komunioko soinekoarekin ikusi zuenean. Ama hil zenean, hura zerutik noiz etorriko zain egoten ziren.

221. Komunioa egiteko ikasten (BRS-024/038)

Komunioa egiteko, apaizarekin nola ikasten zuten azaltzen du.

222. Komunioko jantzia eta prestaketak (BRS-024/041)

Komunioa egiteko, ahal zen arropa eramaten zuen bakoitzak. Baina beren etxean, hartarako prestatutako soineko dotorea jantzi zuten neskek. Soinekoa nolakoa zen azaltzen du. Dotrinako galderak nola egiten zizkieten aipatzen du.

223. Aita harria lantzen ibilitakoa (BRS-025/007)

Bere aitak harria landu egiten zuen. Dena eskuz egiten zuen. Donostian ikasi zuen harria lantzen. Harri motei buruz hitz egiten du: gehien kare-haitza erabiltzen zen.

224. Berastegiko euskararen kalitatea (BRS-026/005)

Berastegira kanpotik etortzen zen kuadrilla bati buruz hitz egiten du. Kuadrilla hartan adin guztietako lagunek hartzen zuten parte elkarriketan. Berastegin, ordea, umEEK ezin zuten helduen aurrean hitz egin; eta horregatik, komunikazio-gaitasun batzuk ez zituzten behar bezala garatu. Andresen ustez betirako gelditu zaio horren arrastoa.

225. Eskolara eguraldi txarra zenean (BRS-026/008)

Etxean 11 senide izanda, umetan lan asko egin behar izan zuen. Eskolan hasi baino lehenago, esnea banatzen aritzen zen. 6 urterekin hasi zen eskolan, baina etxean ere lanak egoten ziren soroan, eta eguraldi ona zenean etxean gelditu behar izaten zuen.

226. Eskola partikularrak eta akabo (BRS-026/009)

11-12 urte zituela, eskola partikularretara joan zen hilabete pare batez. Eskolara joateko etxetik zer bide zegoen azaltzen du.

227. Etxean egin beharreko lanak (BRS-026/010)

Eskolara joaten zen garaian ere, etxean hainbat lan egin behar izaten zituen eskolara joan aurretik eta ondoren. 200 oilo inguru izan zituzten etxean.

228. Karea egiteko prozesuaren nondik norakoak (BRS-026/011)

Karea etxean egin izan dute. Umetan noiz edo noiz ikusi zuen etxean karea egiten, baina gerora berak egin izan du. Karea egiteko prozesua nola izaten zen azaltzen du. Lehen jende askok egiten zuen karea.

229. Karea nekazaritzako asmakizun garrantzitsuenetarikoa (BRS-026/013)

Karea oso asmakizun garrantzitsua izan da nekazaritzan. Izan ere, lurraren azidotasunaren arabera belar mota jakin batzuk jaiotzen dira, eta kareak lurraren azidotasuna kontrolatzen laguntzen du.

230. Karobi-zuloen egitura eta funtzionamendua (BRS-026/015)

Karobi-zuloen egitura denborarekin hobetzen joan da. Bi motatako karobi-zuloak ezagutzen ditu Andresek: zakarrezkoak eta arroakoak. Egitura horiek nola funtzionatzen zuten azaltzen du.

231. Lurraz jakin vs lurra landu (BRS-026/017)

Produktu bat beti leku batean ereiten bada, lurretik beti substantzia bera hartzen du, eta agortu egiten du pixkanaka. Horregatik, lugorriaren sistema erabiltzen da. Alpapari esker, lurra nitrogenoz aberasten da. Noizean behin, lurrari karea eman egin behar zaio. Karearen balioaz jabetzen zirenak urruti zeuden lurra lantzen zutenetatik, eta horregatik nekazari askok karea erabiltzeari utzi zioten. Ikasitakoa praktikan jartzea oso garrantzitsua da.

232. Valladoliden ikasteko Leitzan prestatzen (BRS-026/020)

Ardirik gabe zeudela, behiekin bakarrik egiten zuten lan eta Andres Valladolidera joan zen ikasketa batzuk egitera, Leitzako nekazari eskolan hartarako prestatzen ibili ostean.

233. Valladoliden "Dirección y gestión de empresa agraria" ikasten (BRS-026/021)

"Dirección y gestión de empresa agraria" ikasketak egin zituen Valladoliden. Ikasketa horiek zergatik sortuko ziren azaltzen du. Ikasketa zabalak ziren, baina ez zen ezertan asko sakontzen. Ikasten zituzten gaien aipamena.

234. Gazta asko egindakoa (BRS-027/003)

Gazta asko egindakoa da Andres. Urtean 5.000 kilotik gora egin izan ditu azkenaldian.

235. Bikia bizi zeneko garaia (BRS-031/002)

Florentzia umetan oso iharra zen, eta bere biki-laguna mardula. Bikia, ordea, hil egin zen umetan.

236. Umea izatean, hilzorian (BRS-031/004)

Lehen umeak etxean izaten ziren normalean. Don Juanek laguntzen zuen umeak erditzeko garaian. Florentziak bere azken umea Donostiako ospitalean eduki zuen, eta odolustuta hiltzeko zorian egon zen. Izandako erditze bakar batean ere ez zioten eman injekziorik.

237. Gerra bukatu arte kaleko etxean bizitzen (BRS-031/006)

Umea zela, ganadua izaten zuten etxean eta ardiak mendian. 12 urte izan zituen arte kalean bizi izan zen, eta gerra amaitutakoan baserrira itzuli zen. Kalera zergatik joan zen bizitzera kontatzen du, eta han zer-nolako bizimodua izan zuen.

238. Eskolako maistra eta zigorrak (BRS-031/007)

Kalean bizi zela, eskolara joateko aukera ona izan zuen. Eskolako maistrari buruz hitz egiten du. Klaseak gaztelaniaz izaten ziren, baina ez zieten debekatzen euskaraz hitz egitea. Zer-nolako zigorrak izaten zituzten kontatzen du.

239. Eskolan ikasten zutena (BRS-031/008)

Eskolan aritmetika ikastea gustatzen zitzaion. Zer gai ikasten zituzten azaltzen du. Gai bakoitzerako liburu txiki bat edukitzen zuten.

240. Eskolako ordutegiak eta laboreak (BRS-031/009)

Eskolara goiz eta arratsaldean joaten ziren. Laboreak ere ikasten zituzten orduan. Jolas-ordurik ez zuten izaten, baina bestela ere jolasten zuten.

241. Umetako jolasak nolakoak ziren (BRS-031/010)

Zer jolasetan ibiltzen ziren eta jolasak nola izaten ziren azaltzen du.

242. Poxpolin ibili zenekoa (BRS-031/013)

Poxpolin ibili zenean, herriko emakumeak izaten ziren irakasle. Zer dantza eta abesti ikasten zituzten aipatzen du.

243. Poxpolinetan txistua eta danborra (BRS-031/023)

Poxpolinetan ibiltzen zenean, txistua eta danborrarekin egiten zuten dantza. Txistua nork jotzen zuen azaltzen du. Dultzainarekin dantzatzea, ordea, ez zuen ezagutu berak.

244. Mutilen eta nesken arteko desberdintasuna aisialdia bizitzeko garaian (BRS-031/025)

Don Andres apaiza oso zorrotza izaten zen bekatu kontuetan. Emakumeek ezin izaten zuten tabernatara sartu. Emakume batzuek galtzak jantzi zituzten, eta apaizak errieta egin zien horregatik pulpitutik. Mutilentzat arauak ez ziren hain zorrotzak izaten; nora joaten ziren aipatzen du Florentziak.

245. Umetan herrian zeuden etxeak (BRS-031/026)

Lau urte zituenean, osaba-izeben etxera etorri zen kalera bizitzera, eta zer etxe zeuden azaltzen du.

246. Telak jostunei eramaten (BRS-031/027)

Tela erosi eta jostunengana eramaten zuten. Jostun on batzuk aipatzen ditu. Bera ere ibili zen josten ikasten.

247. Lehengo ezkontzak nolakoak izaten ziren (BRS-031/028)

22 urterekin ezkondu zen. Garai hartan goiz ezkontzen zen jendea. Ezkontzak lehen nolakoak izaten ziren azaltzen du. Berak ez zuen eztei-bidaiarik izan, baina izan zutenak ez ziren urrutira joan. Ezkontzako jantzia beltza izan zuen.

248. Lutoa eta oinetakoak (BRS-031/029)

Luto asko izaten zuten gaztetan. Koloretako arropak tindatu egin behar izaten zituzten, zuten arropa bakarra izan arren. Arropa askoz gutxiago izaten zuten orduan. Nolako oinetakoak izaten zituzten azaltzen du; egoera bakoitzerako oinetako mota bat izaten zuten.

249. Zapata-konpontzaileak Berastegin (BRS-031/030)

Herrian zapata-konpontzailea bazegoen, baina ez zapatak egiten zituenik. Gizon haiei buruz hitz egiten du.

250. Berastegiko bizibide eta lanbideak (BRS-031/031)

Lehen morroi sartzen ziren gazteak sos batzuk irabazteko; baina gerra ostean fabrikatan hasi ziren lanean. Herriko meatzeei buruz hitz egiten du.

251. Urik ez etxean ezkondu eta gero arte ere (BRS-031/032)

Umetan etxean ez zuten urik. Errekako eta iturriko ura ekartzen zuten etxera baldetan. Ezkondu eta gero ere etxean ez zuten urik, eta nola jarri zuten azaltzen du. Arropa astintzeko iturrira joaten ziren. Garbiketarako xaboiari buruz hitz egiten du.

252. Errazionamenduan nola moldatu ziren (BRS-031/033)

Gerraostean errazionamendua egoten zen. Dendara joaten ziren tokatzen zitzairen janaria jasotzera. Errazionamenduko ogia, hala ere, ez zuten denek jasotzen eta nola-hala moldatzen ziren hura lortzeko. Beraiek ez zuten goserik pasa, lurrak ematen zien janariarekin nahikoa baitzuten. Lurra lehen garbiagoa eta osasun hobekoa zen. Etxeko janaria entregatu egin behar izaten zuten.

253. Errotak itxita zeudeneko garaia (BRS-031/034)

Gerra ostean zer errotatara joaten ziren azaltzen du. Errotari batzuei buruz hitz egiten du. Errotak zigilatuta egoten ziren gauetz, inork han lanik egin ez zezan.

254. Baserritik bizitzen: abereak, soroa eta feriak (BRS-035/002)

Baserrian ardiak eta behiak zeuzkaten. Soroko lanak ere egiten zituzten beren lurretan. Gutxitan jaisten ziren feriara baserriko jeneroa saltzera. Ferian zer saltzen zuten azaltzen du. Uzta oso ona zenean, etxera ere etortzen ziren eroatera.

255. Etxeko ardiak zaintzen ibilitakoa (BRS-035/003)

Umea zela, ardiak eta behiak zaintzen ibiltzen zen eskolara joan beharrean. Abereak non edukitzen zituzten azaltzen du. 500 arditik gora zituzten.

256. Anai-arreben arteko lan-banaketa (BRS-035/004)

Ardiak eskuz jezten zituzten anai-arrebek. Senide bakoitzak zer bizimodu hartu zuen kontatzen du.

257. Artzainaren bizimodu gogorra (BRS-035/005)

Artzainaren bizimodua gogorra zen. Udaberrian, arkumeak jaiotzen zirenean, oso eguraldi txarrak egiten zituen; baina, hala ere, ardiak zaintzera joan behar izaten zuten.

258. Artilearekin ateratako etekina (BRS-035/006)

Artilea saldu egiten zuten, eta nola saltzen zuten azaltzen du. Handik lortutako diruak ez zuen konpentsatzen egindako lana.

259. Ardien esnearekin gazta egiten (BRS-035/007)

Gazta ere egiten zuten ardien esnearekin. Ardiak jezten zituztenean mendira eramaten zituzten. Ardi bakoitzak zintzarri bat eramaten zuen zintzilik, eta hots horren bidez urrutitik ezagutzen zuten zein ardi zen.

260. Gazta egiteko prozesua eta lekua (BRS-035/008)

Ardien esnearekin gazta egiteko leku berezi bat zuten etxean. Gazta egiteko prozesua nola izaten zen azaltzen du. Gaztak normalean ez zituzten kalera saltzen: etxerako edo lagunen bati oparitzeko erabiltzen zituzten.

261. Eskolatik piper egiten umetatik (BRS-035/011)

Eskolara gutxi joan zen, pilotan jolasten gelditzen baitzen. Maistra erdalduna izan zuten, eta debekatu egiten zien euskaraz egitea.

262. Umetan jolasean, etxean lanik egin behar ez zenean (BRS-035/012)

Jolasteko denbora gutxi izan zuen berak umetan, etxean lan egin behar baitzuen. Gerora, denbora gehiago zuenean, zer jolasetan ibiltzen zen azaltzen du.

263. Mariaren kongregazioan egiten zutena (BRS-035/013)

Mariaren kongregazioan egon zen gaztetan. Igandero elizara joan behar izaten zuten, bestela pulpitutik kontuak eskatzen baitzizkieten. Kongregazioan zer egiten zuten aipatzen du.

264. Baserritik elizarako bidea (BRS-035/014)

Beren baserritik elizara 2 km baino gehiagoko bidea zegoen. Bide hura nolakoa zen eta iluntzean nola ibiltzen ziren azaltzen du.

265. Madrilera pilotan jokatzera (I): nola lortu zuen kontratua (BRS-035/016)

17 urte zituela, Madrilera joan zen pilotan jokatzera, eta nola lortu zuen hara joatea azaltzen du.

266. Madrilera pilotan jokatzera (II): hara joan zen eguna (BRS-035/017)

3 urteko kontratua egin zioten pilotan jokatzeko, eta Madrilera joan zen. Han zer nondik norako bizi zituen kontatzen du. Etxean ez zuten ondo hartu Madrilera joan zenean.

267. Madrilera pilotan jokatzera (III): gaztelania ulertu ezinik galduta (BRS-035/018)

Madriren oso gaizki pasa zuen, gaztelania ez zekienez galduta sentitzen zen eta.

268. Madrilera pilotan jokatzera (IV): eguneroko bizimodua (BRS-035/019)

Madriren etxe batean egon zen apopilo. Etxe hartako familiari buruz hitz egiten du. Gaztelaniaz ez zekienez, haiekin ere ezin zuen elkar ulertu, eta logelan ematen zuen denbora gehiena. Entrenamenduak non eta noiz izaten zituen azaltzen du.

269. Madrilera pilotan jokatzera (V): lan-baldintzak (BRS-035/020)

Madriren zegoenean 600 pezetako soldata zuen; apopilo egoteagatik, ordea, 500 pezeta ordaintzen zituen. Esplotatu egin zutela sentitzen du.

270. Madrilera pilotan jokatzera (VI): nola lortu zuen etxera itzultzea (BRS-035/021)

3 urteko kontratua zuen, baina hura bukatu baino lehenago etorri zen etxera, gaixotu egin baitzen. Etxera itzultzeko baimena nola lortu zuen kontatzen du. Etxera iristean, nagusiari idatzi zion esanez ez zela gehiago hara itzuliko eta zergatia azaltzen.

271. Madrildik baserrira eta baserritik fabrikara (BRS-035/023)

Madrildik etxera itzultitakoan, baserriko lanetan ibili zen. Geroago, Uranga paper-fabrian hasi zen lanean. Fabrika non zegoen azaltzen du.

272. Fabrikako lanaren nondik norakoak (BRS-035/024)

Paper-fabrian zer lan egiten zuen eta zer eratako paperak egiten zituzten aipatzen du. Papera dendatara saltzen zuten. Hiru urtez egin zuen lan fabrian, ezkondu zen arte.

273. Fabrikako kiratsa eta materialak (BRS-035/025)

Paper-fabrian usain gogorra egoten zen. Kirats hura nondik zetorren azaltzen du. Pasta egiteko zer material erabiltzen zuten aipatzen du.

274. Fabrikako ordutegiak eta zereginak (BRS-035/026)

Fabrika langile askok egiten zuten lan; denak emakumeak ziren, eta nongoak ziren azaltzen du. Lanean zer ordutegi eta zeregin izaten zituzten aipatzen du.

275. Aita errementariaren lanak eta tresnak (BRS-037/002)

Baserrian errementeria zeukaten, aita errementaria baitzen: aitak zer lan egiten zituen eta zer errementa erabiltzen zituen azaltzen du.

276. Metro eta erdiko elurra Berastegin (BRS-037/005)

Berastegin elur asko egiten zuen lehen eta ospelak izaten zituen horregatik.

277. Solfeoa osabarekin ikasten (BRS-037/011)

Solfeoa osabarekin ikasi zuen. Lehenengo pianoa jotzen erakutsi zion, eta gerora ikasi zuen organoa jotzen. Osaba organista zen. Beti elizaren munduan jo izan du organoa Manuelek.

278. Soinu handia jotzen erraz ikasia (BRS-037/012)

Soinu handia jotzen ere ikasi zuen. Erraza egin zitzaion, pianoaren antza hartzen baitzion. 20 urte ingururekin ikasi zuen jotzen berak bakarrik.

279. Hernanin akademia jarri zuenekoa (BRS-037/013)

Italiara askotan joaten zen. Hernanin akademia jarri zuen akordeoia jotzen erakusteko.

280. Soinu handia jotzen nola ikasi (BRS-037/014)

Soinu handia jotzeko, pieza idatziak erosten zituen. Lehen ez zegoen soinua jotzen erakusten zuenik, norbere kabuz ikasten zuten.

281. Espainiako txapelketa irabazi zuenekoa (BRS-037/017)

Manuelek bakarrik ikasi zuen soinu handia jotzen eta Espainiako txapelketa irabazi zuen. Txapelketa hartara joateko egindakoak eta txapelketan bertan bizitakoak kontatzen ditu.

282. Donostian tangoak jotzen soinu handiarekin (BRS-037/019)

Leku askotan ibili izan da soinu handia jotzen. Donostiako taberna batean tangoak jotzen zituen.

283. Akademia sortu eta ezkondu (BRS-037/022)

20 urterekin hasi zen soinua erakusten eta akademia berak bakarrik sortu zuen. Emaztea ezagutu eta Hernanira joan zen bizitzera.

284. Sagastume Manuelen ikasle izandakoa (BRS-037/024)

Sagastume Manuelen ikaslea izan zen. Nola irakasten zuen azaltzen du. Lan asko egin izan du Manuelek.

285. Ama gazterik alargunduta, aitonaren etxera bizitzera (BRS-040/002)

Berastegiko plazan jaioa, Joxene etxean. Ama bertakoa zen eta aita Urrestillakoa. Tolosan ezagutu zuten elkar. Aita aparejadorea zen, eta Madrilen bizi izan ziren lau urtean, gerra hasi zen arte. Aita han geratu zen. Gaixorik bueltatu zen Berastegira. Bederatzi urte zituela hil zitzaion aita. Seme bakarra da.

286. Aitona, autobus gidari eta postari (BRS-040/003)

Aitonak Berastegitik Tolosara zihoan autobusa gidatzen zuen, eta posta ere eramaten zuen. Mutikotan kartak partitzen ibiltzen zen baserriz baserri, oinez.

287. Berastegiko eskolan, maisu erdalduna (BRS-040/004)

Berastegiko maisua herritik bidali zuten, gerra hasi zenean. Katalana zen maisu berria, eta erdaraz egiten zuen dena. Ez zuten tutik entenditzen, eta ezin asmatu ibiltzen ziren (anekdota). "Federico el botarate" liburua zuten eta "El Quijote" ere bai. Neskak maistrarekin zeuden. Lau maisu desberdin izan zituen. Sartzerakoan eta ateratzerakoan "Cara al sol" eta beste bi himno kantatu behar zituzten.

288. Umetako jolasak (BRS-040/005)

"Flechas" eta "Pelayos" aldizkariak batu egin ziren. Umetan ez zen pelaiotakoa izan. Pilotan jokatzen zuten, "torniken" (harrapaketan), basurdeketan (ehiztariak, basurdeak eta zakurrak)... "Guardias y ladrones"-en antzekoa zen, baina aberatsagoa.

289. Umetako jostailuak (BRS-040/006)

Jostailu gutxi izaten zen orduan, baina berak zortea zuen, aitonak eramaten zizkiolako: trena izan zuen, mekana, etxeak egiteko egurrezko piezak... Ez zieten uzten baloiarekin ibiltzen. Eskuz egindako jostailuak. Txistua egiten zuten gaztainarekin.

290. Dotrina euskaraz (BRS-040/007)

Dotrina elizan ikasten zuten, euskaraz. Jaunartze txikia eta handia. Lau apaiz zeuden. Etxean otoitz egiten zuten, eta dotrina ere etxean ikasten zuten.

291. "Beraneanteekin" mendira (BRS-040/009)

Berastegi eta Lekunberri herri turistikoak ziren. Kanpotik etorritako umeekin, "beraneanteekin", mendira joaten ziren. Nola-hala hitz egiten zuten haiekin, erdaraz; anekdota kontatzen du.

292. Berastegiko kontuak (BRS-040/010)

Berastegiko kontuak. Peru eta Mariaren ipuina aipatzen du. Uli lepoan kokatutako sorginkeriar buruzkoa ere bazen.

293. Esteban lagunarekin (BRS-040/012)

Berastegin kanpoan ikasi zuten bakarrak izan ziren Esteban Garziarena laguna eta biak; Esteban Oronozera joan zen ikastera, eta bera Tolosara, eskolapiotara. Lagunekin asteburuetan egoten ziren. Haiek gutxi joaten ziren eskolara, baserrian lana zutelako. Estebanek eta berak etxola bat egin zuten

gaztainondo batean, eta irakurtzera joaten ziren hara. "El conde Lucanor" liburua. Zeta harrak zituen Estebanek, eta prozesua ikusten egoten ziren. Igandetan nor bere lagunekin elkartzen zen.

294. Tolosara aitonarekin, autobusean (BRS-040/013)

Eskolapiotara aitonarekin joaten zen autobusez, eta osaba-izeben etxean bazkaltzen zuen. Aitonarekin bueltatzen zen Berastegira. Elurra egiten zuenean, oinez joaten zen, 11 kilometro, bezperan. Larunbatetan ere eskola zuten.

295. Tolosako eskolapioetan, gustura (BRS-040/014)

Eskolapiotako giroa. Batxilergoa egiteko prestatu zen han. Gasteizko seminariora joan zen gero. Batxilergoan Historiako liburuan euskaldunen sorrera begiratzen zuen, eta ez zuen ezer aurkitzen. Barandiarani buruz ere ez zekien ezer. "Los vascos en el siglo VIII" liburua irakurri zuen. Eskolapiotako irakasleak. Italianoa erakusten zuen fraide batek, eta ondo etorri zaio gerora.

296. Lehenengo bizikleta (BRS-040/015)

Mutikotan bizikleta izan zuen. Nesken maistrak oparitu zion, gurpilak arraroak zituelako eta ezin zituelako konpondu. Tolosara eraman zuen, konpontzera. 15-16 urterekin, BH bizikleta oparitu zioten berari eta lehengusuei.

297. Gasteizen eta Donostian, seminarioan (BRS-040/016)

Apaiz izateko bokazioa. 12 urterekin Gasteizera joan zen. Hotza eta gosea pasatu zituen han, seminarioan. Berogailurik ez zuten geletan. Etxekoei ogia eskatzen zien. Irakasle onak izan zituen, baina diziplina gogorra zen. Ordutegia. Azterketa asko zituzten, ahozkoak eta idatzizkoak. 11 urtetik 9 egin zituen Gasteizen, eta Donostian beste biak. Han giro hobea zegoen.

298. Natur Zientzien zalea (BRS-040/018)

Oso irakasle ona izan zuen Natur Zientzietan, Gasteizen: Don Leoncio Arabiotorre. Don Jose Migel Barandiaranen laguna zen. Harremana izan zuen gerora ere. Biologia ikastera joan zen, Madrilera.

299. Barandiaranen taldea, apaiztegian (BRS-040/019)

Barandiaran irakasle egon zenean, giro eskasa zegoen apaiztegian. Lau irakasle elkartu ziren, eta bilerak egiten zituzten: Manuel Lekuona, Antonio Pildain eta Don Leoncio. Gerra etorri zenean, banandu egin ziren. Barandiaran Iparraldera joan zen; bueltan, Lekuonarekin harreman handia izan zuen. Lekuonarekin eta Barandiaranekin ibilaldiak egiten zituen berak.

300. Lekuonarekin eta Barandiaranekin (BRS-040/020)

Don Manuel Lekuona jale ona zen; Barandiaran, berriz, ez. Janariarekin lotutako bi anekdota kontatzen ditu.

301. Barandiarani jarri zizkioten oztopoak (BRS-040/021)

Barandiaranek ez zuen erraztasunik izan apaiztegian, bere ikerketak egiteko. Zientzia profanoak zirela esaten zioten, txorakeriak zirela. Don Lorenzo Bereziartua erretoreak esan zuena.

302. Barandiaranek gomendatutako bidea (BRS-040/022)

Barandiaran nola ezagutu zuen, Donostiako seminarioan. Hitzaldia eman zien. 1953an bueltatu zen Saratik. Madrilen ikasten zegoela, espeziearen sorrera interesatzen zitzaion, eta Barandiaranengana jo zuen. Lezetxikin eta Landarbason zebilen Barandiaran, eta ahrekin hasi zen indusketak egiten. Telesforo Aranzadik giza hezurrak aztertzen zituen, baina abereen hezurrak inork ez; Barandiaranek bide horri heltzeko aholkatu zion. Halaxe hasi zen, Madrilen bertan, hezurrak klasifikatzen. Tesia horren inguruan egin zuen.

303. Tesia egiteko zailtasunak, animalien hezurrena ikertu gabeko eremua zelako (BRS-040/023)

Animalien hezurrena ikertu gabeko eremua zen. Izan zituen zailtasunak kontatzen ditu; bere tesi zuzendariak ere ez zekien gaiari buruz. Alemaniara joan zen; han askoz aurreratuago zeuden. Abere hezurrak jasotzen hasi zen, Vesperekin hara eta hona. Seat 600 batekin ibiltzen ziren emaztea eta biak ondoren. Afrikara ere joan zen hezur bila.

304. Barandiaran eta bere ikasleak (BRS-040/024)

Indusketak nola izaten ziren lehen. Barandiaran eta biak ibiltzen ziren sarri. Lo ere elkarrekin egiten zuten. Garai hartako metodoak; gerra aurretik eta ondoren diferenteak ziren. Gai askori buruz hitz egiten zuten. Inazio Barandiaran, Llanos eta Apellaniz ere batu zitzaizkien; haiei buruz hitz egiten du. Lezetxiki, Aizpitarte, Marizulo eta Ekain. Barandiaran 85 urterekin erretiratu zen kobazuloetatik, eta berak jarraitu zuen indusketak zuzentzen. Idazten eta argitaratzen jarraitu zuen, 100 urtera arte.

305. Barandiaranen izaera eta lana (BRS-040/025)

Barandiaran atsegina zen, beti laguntzeko prest. Oso langilea zen. Beti lanpetuta zegoen, baina entzuteko prest. Austeroa eta zorrotza lanean. Etnografia lana. Igandetan baserrietara joaten ziren, Aramaiora, ipuinak jasotzera. Zein estrategia erabiltzen zuen Barandiaranek, nahi zuena jasotzeko; lehenengo entzun egiten zuen, eta gero berriz kontatzeko eskatzen zuen, eta esandakoak jasotzen, idatziz. Grabagailurik ez zegoen orduan. Barandiaranek jaso izan ez balitu, galdu egingo ziren. "Barandiaranek gauza asko lapurtu dizkio heriotzari".

306. Barandiaranen lehen lanak; Breuillekin izandako harremana (BRS-040/026)

1920. urtean argitaratu zuen lan bat Barandiaranek. Vienako etnologo famatu batek, Schmidtek, jardunaldi batzuetara gonbidatu zuen. Antzinako euskaldunen erlijioari buruzko testua prestatu zuen. Henri Breuil Pariseko prehistoriagile sonatuari Barandiaranek 1918an idatzitako hitzaldia iritsi zitzaion eskuetara (aurrez bera ibilia zen indusketak egiten Euskal Herrian), eta idatzi egin zion. Aurkitutako gauza batzuk ere eman zizkion. Barandiaran 1917an hasi zen historiarreko kontuak aztertzen.

307. Schmidt etnologoa eta Barandiaran (BRS-040/027)

Vienako Wilhelm Schmidt (1868-1914) etnologoa fraidea zen, eta misiolariei bidaltzen zizkien galdetegiak. Informazio ugari jaso zuen, eta Jainkoaren sorrerari buruzko lanak argitaratu zituen. Barandiaranek Euskal Herrira egokitu zituen galdetegi haiek.

308. Barandiaran, infernuko etsaiarekin ere lanean (BRS-040/029)

Barandiaran Saran egon zeneko kontuak. Pirineotako megalitoen katalogoa eskatu zion Alemaniako gobernuak, eta salbokondukto berezia eman zioten mendiz mendi ibiltzeko. Ondo ordaindu zioten. Opusean ere eman zituen eskolak.

309. Judu bati ihes egiten lagundu zion Barandiaranek (BRS-040/030)

Judu bati ihes egiten lagundu zion behin Barandiaranek: monagilo moduan eraman zuen mugaz bestaldera, 1942an. Israelgo estatua sortu zenean, eskutitz bat bidali zion, eskerrak ematen; gobernu berriko 1. ministroa zen.

310. Israel sortu zeneko kontuak (BRS-040/032)

Israelgo estatua sortzear zela, Erresuma Batuko politikari batek Australia eskaini zien juduei, han lur asko zutela eta. Israeldar batek eman zuen erantzuna kontatzen du.

311. Euskara, historiaurreko altxorra (BRS-041/002)

Euskara da historiaurreko ondare bizi bakarra, eta zaindu egin behar da. Ezin da jakin Ekaingo kobazuloetan bizi ziren gizakiek zer pentsatzen zuten, zer sentitzen zuten. Baina euskaraz hitz egiten zuten. Brontze garaikoa da, gutxienez, euskara pre-indoeuroparra delako.

312. Hizkuntza indoeuroparren indarra eta iberoa (BRS-041/003)

Hizkuntza indoeuroparren indarra. Euskara inguratuta zegoen. Bordelerako bidean, Gipuzkoako kostaldean egiten zuten lo. Iberoa desagertu egin zen, baina euskara ez. Euskararen jatorriari buruzko teoriak. Vasco-iberismoaren teoria hankamotza da, euskarak ez baitu balio iberoa ulertzeko.

313. Nondik dator euskara? (BRS-041/004)

Euskara nondik datorren ezin da jakin. Oteizaren teoria, bertan sortu zela. Brontze arokoa proto-euskara izango zen, baina euskara.

314. Giza hezur zaharrena, Lezetxikikoa (BRS-041/006)

Gizakiaren hezur zaharrena Lezetxikin aurkitutakoa da. Berak aurkitu zuen. Ramontxo Elosegi eta bera zeuden indusketan, eta Barandiaran bataio batera joana zen. Lezetxikiko kanpaina luzatu egin zuten, aurkikuntza hori eta gero. Emakume baten beso-hezurra da. 140.000-180.000 urte izango ditu. Neanderthal aurrekoa da, eta Atapuercakoen antza du. Neardenthalen haginak eta hezurak beste toki batzuetan ere aurkitu dituzte. Kobazuloak aipatzen ditu.

315. ADN frogekin lotutako aurrerapenak (BRS-041/008)

Nearthendala eta Homo Sapiensa hibridatu egin ziren. Ezetz uste izan da luzaroan, baina ADN bitartez konfirmatu da. Logikoa ikusten du Altunak, 10.000 urtean elkarrekin bizi izan zirelako. Barandiaranen garaian, arrazak aztertzeke kraneometria erabiltzen zen, gero odol taldeena etorri zen. Orain ADN da frogia. Concepción de la Rúa irakaslea aritzen da horretan.

316. Euskal tipo biologikoa (BRS-041/009)

Euskal Herrian odol mota bat gailentzen da, 0 negatiboa, baina arrazari buruz ezin da hitz egin, Hitlerrez geroztik. Arrazak desberdinak direla esatea ez da arrazakeria. Euskal tipo biologikoa badago, eta Australian ikusiz gero ere igartzen dugu euskalduna dela. Ezaugarriak azaltzen ditu. Hibridazio handia dago orain, baina lehen errazago antzematen zen.

317. Arrazen hibridazioa eta eboluzioa (BRS-041/010)

Donostiako Usandizaga institutoko irakaslea zela, oso erraza zen zortzi abizen euskaldun zituzten ikasleak topatzea; gaur egun zaila da. Hibridazioa begibistakoa da mundu osoan. Salbuespen moduan pigmeoen kasua aipatzen du.

318. Giza aztarna zaharrenak, Euskal Herrian (BRS-041/011)

Lezetxikikoak dira giza aztarna zaharrenak. Ondorengo aztarnak zein diren. Aizpitarten, Erreterian, aurkitu dituztenak aipatzen ditu. 25.000 bat urte dituzte, Nearthendal ondorengoak dira. Madalein garaikoak ere badaude, duela 12.000 bat urtekoak. Eta Brontze arokoak, berriz, asko.

319. Animalia aztarna zaharrenak, Euskal Herrian (BRS-041/012)

Animalien aztarnak askoz zaharragoak dira. Hezur zaharrenak dinosauroenak izango dira, Errioxan aurkitutakoak. Ugaztunen zaharrenak Olaztin agertu ziren hipopotamo haginak dira. Maximo Ruiz de Gaonak ikertu zituen.

320. Errinozeronteak, elur oreinak, leizeetako lehoia... (BRS-041/014)

Euskal Herrian bizi izan diran animaliak: errinozeronteak (klima berokoa eta hotzekoa, ileduna), elur oreina, glotoia... Leizeetako lehoia, tigreak antzekoa, eta lehoi arrunta. Arantzazuko apaizgai batek aurkitu zuen leizeetako lehoiaren hezurdura, eta hartza zela pentsatu zuen.

321. Ekaingo kobazuloko irudien aurkikuntza (BRS-041/015)

Ekain Azpeitiko bi gaztek aurkitu zuten. Kobazulo bila aritzen ziren asteburuetan, eta aurkitutakoa Aranzadira eramaten zuten. Sastarrain baserrian izan zuten kobaren berri. Irudiak nola aurkitu zituzten. Ikustera joan ziren. Aurretik, Aralarren irudi faltsuak ere agertu ziren. Kanpaina berria egin dute Ekainen, eta aurkikuntza gehiago izan dira.

322. Ekain santutegia zen (BRS-041/016)

Ekain santutegia zen, ez bizilekua. Tresna bakarra aurkitu dute, harri baten gainean, sinbolo moduan. Kanpoan 5.000 pieza aurkitu zituzten, baina santutegi barruan bakar bat ere ez. Garaiko sinesmenekin lotuta dago.

323. Aurkikuntza interesgarria Frantziako koba batean (BRS-041/017)

Frantziako koba batean, galeria berria aurkitu dute, eta han buztinaren gainean emakume baten eta ume baten oin markak daude; bisontearen irudi baten aurreraino doaz, eta buelta ematen dute.

324. Ekaingo erreplika, museoa (BRS-041/018)

Ekain zaldien koba da. Ez zuten nahi Ekain Altamira bihurtzea. Erreplika egitea erabaki zuten. Gonzalez Txabarrik eman zion bultzada proiektuari. Museoaren martxa.

325. Ekaingo ehiztarien bizimodua (BRS-041/019)

Ekainen bizi izan zirenen bizimodua: ehiza eta basalandareak biltzea. Orein-kumeak eta haien amak harrapatzen zituzten. Denboraldi bat egiten zuten han, udara partean. Agertutako tresnak ehizarako dira, etxerako tresna gutxi daude.

326. Marizuloko artzaina (BRS-041/021)

Marizulo Labordek aurkitu zuen, Urnietan. Indusketa zeintzuk egin zuten. Gizaki baten hezurdura agertu zen, eta animalia hezurrak: zakurra eta arkumea. Buru-hezurra falta zen. Ondorioztatu daiteke artzaina zela, eta erritualen bat egin zutela. 5.000 urtetik gora ditu, Neolito garaikoa da.

327. "Ximonero" hitza (BRS-041/023)

"Ximonero" hitza erabiltzen dute Berastegin monagiloa edo akolitoa esateko. Hitz hori nondik datorren, bere teoria azaltzen du.

328. Jean Auel idazlea, Ekainen bisitan (BRS-041/025)

"Haitzuloetako hartzaren klana" idatzi zuen idazleari, Jean M. Aueli, berak erakutsi zion Ekain. Emakumea hunkitu egin zen irudien aurrean. Hegaldi pribatuan etorri zen; aberatsa zen ordurako. Anekdotak kontatzen du. Ipar Ameriketako partikular batek 150.000 pezeta bidali zituen.

329. Emaztea lankide (BRS-041/027)

Emaztea, Koro, nola ezagutu zuen. Bere ikaslea izan zen institutoan, eta gero hezurrak klasifikatzen laguntzen hasi zen, beste ikasle batzuekin batera. Elkarrekin egin dute lana geroztik. Iritegi aztarnategia. Animalia hezurrak nola lortzen dituzten; lur azpitik ateratzea ez da lan gozoa izaten, sarritan.

330. Berastegiko euskara; "deus ez" hitzen jatorria (BRS-041/030)

Berastegiko euskara nolakoa den. Tolosakoa diferentea da. Hitz amaieran -e artikulua darabilte. J nola ahozkatzen duten. "Ezer ez" esaten dute, eta ez "deus ez". "Deus ez" hitzak nondik datozen, bere teoria. Alfabetoaren hasieran eta bukaeran, Deus esaten zuen aitonak.

331. Peru eta Mariaren ipuina (BRS-041/032)

Peru eta Mariaren ipuina kontatzen du, aitonak kontatzen ziona. Tolosara feriara joan zen, lehenengo txerrikumea ekartzera, gero pitxarra, ondoren manteka eta azkenik gatzak.

332. Ipuinak, sutondoan (BRS-041/034)

Aitonak kontatzen zuen Peru eta Mariaren ipuina; baita beste senide batzuek ere. Sutondoan, afalostean kontatzen ziren halakoak.

333. Teodosioren ipuina (BRS-041/036)

Teodosio Goñikoaren ipuina. Ezkondu zenean, gerrara joan zen, eta han zegoela emazteak engainatu egiten zuela esan zioten. Etxera itzuli, eta, ilunpetan, gurasoak hil zituen, bere logelan zeudelako lotan. Kateak jarri zizkioten, penitentzia moduan, eta Aralarrera joan zen. Herensugea agertu zitzaion. Aralarko ermitan daude kateak. Ipuin hori zein liburutan dagoen jasota.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com